Zu hemen zaude.

# goiena

2018-09-07 EGUBAKOITZA / 783. ZENBAKIA / 18. URTEA
**DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA** GOIENA.EUS TOKIKOM




## ETXEBESTETARRAK BERGARAN BERRIRO, HAMALAU URTEREN OSTEAN

'Agur, Etxebeste!' filmatzen ari dira herrian eta herritarrekin / 38







Argazki nagusian, Elena Irureta eta Ramon Agirre protagonistak Bergarako udaletxeko osoko bilkuren aretoan; ezkerreko argazkietan, filmeko beste une batzuk. IRUSOIN ETA GOIENA


**Mondragon Taldearen kontrako demandaren epaiari helegitea jartzeko asmoa du Ordainduk** / 3

**Arantzazuko Amaren eguna da domekan; 100 urte bete dira Gipuzkoako zaindari izendatu zutela** / 36

**Nere Arregi lasterkari arrasatearra 100 kilometroko munduko txapelketan ariko da Kroazian zapatuan** / 40





**ANDRAMAIXAK ARETXABALETAN ETA GATZAGAN** / 21

**SINADURAK**


PERU ABARRATEGI / 15


XABIER LETONA / 6


ANTONIO DEOGRACIAS / 29


JOSU ZUGASTI / 10


IDOIA ETXEBERRIA / 48




\+ Lierni Irizar psikoanalistari elkarrizketa

Hiru kazetari arrasatear Kongresuan




# Ikasturte berria martxan ibarreko ikastetxeetan

Debagoieneko hainbat ikastetxetan aste honetan hasi dute 2018-2019 ikasturtea. Beste ikastetxe batzuetan, berriz, astelehenean ekingo diote. Jaiotza-tasak behera egin du, eta aurreko urteetan baino ikasle gutxiago espero dira zentroetan

**Josu Bilbao** DEBAGOIENA

Irailarekin batera heldu da eskolara itzultzeko sasoia. Oporrak atzean utzi dituzte bai ikasleek eta baita irakasleek, eta 2018-2019 ikasturteari hasiera eman diote Debagoieneko hainbat ikastetxetan. Guztira, gutxi gorabehera, 2 eta 18 urte arteko 11.000 ikasle baino gehiago egongo dira ikasturte honetan bailarako ikastetxeetan.

Bailarako ikastola batzuetan, Aranzadi eta Txantxiku ikastoletan, esaterako, atzo hasi zituzten eskolak. Bergarako Aranzadin 750 ikasle inguru ibiliko dira aurten; Oñatiko Txantxiku ikastolan, 1.000 ikasle inguru.



Elgetako herri eskolako ikasleak, iazko ikasturtean. GOIENA

Arizmendi Ikastolan, bestalde, gaur egingo dituzte aurkezpenak zentro gehienetan, eta astelehenean ekingo diote ikasturteari 3.225 ikasle inguruk –datuak behin-behinekoak dira–.

Kristau Eskolako bi ikastetxe dauden bailaran, Mariaren Lagundia Bergaran eta Elkar Hezi Oñatin. Bergaran eguaztenean hasi zuten ikasturtea eta, guztira, 680 ikasle izango dituzte aurten. Oñatin, bestalde, 435 ikasle inguruk hasiko dute ikasturtea astelehenean.

Euskal Eskola Publikoak 14 zentro ezberdin ditu bailarako herrietan banatuta, eta aurkezpenak gaur egingo dituzten arren, ikasturtea astelehenean hasiko dute modu ofizialean. Iazko ikasturtean (2017-2018), 5.863 ikaslek burutu zituzten ikasketak Eskola Publikoan. 2018-2019 ikasturterako, hala ere, ikasle kopurua txikiagoa izatea espero dutela azaldu dute Goieskola, nahiz eta oraindik eskolako datuak ez izan.

Bestalde, lanbide heziketari dagokionez, gaur ekingo diote ikasturteari ere Bergarako Miguel Altunako ikasleek.

### Gero eta ikasle gutxiago

Matrikulazioek behera egingo dute datozen urteetan, jaiotzatasak behera egin duen heinean. Hori adierazten du, gutxienez, Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) demografiari dagokionez 2018 urtean zehar kaleratutako estatistikak. Datozen 10 urteetan, Euskal Autonomia Erkidegoan 16 urtera arteko 31.000 haur gutxiago egongo dira, hain zuzen. Pasa den ikasturtean, 2.244 ume gutxiago matrikulatu ziren ikastetxe ezberdinetan.

Gaur egun, 16 urtera arteko 325.900 haur eta gazte daude Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan eta hamar urte barru, berriz, 294.000 izango direla aurreikusten du Eustatek. Ondorioak etapa ezberdinetan nabarituko dira. Haurtzaindegietan nabarituko da beherakada orain, eta urterik urte Lehen Hezkuntzara eta Bigarren Hezkuntzara igaroko da.

Ikasleen beherakadaren beste ondorio bat ikastetxeetan irakasle gutxiago beharko direla izango da, adituek Eustateko datuak ikusi ostean azpimarratu duten arabera.



# Helegitea jarri edo ez erabakiko du Ordainduk

Gaur, egubakoitza, egingo du Ordaindu elkarteak batzar orokorra Arrasaten. Izan ere, uztailean Bergarako epaileak demanda preskribatzearen erabakiari Gipuzkoako Lurralde Auzitegian helegitea jartzeko asmoa dute kooperatibako bazkide ohiek



Ordainduko eta Eskuratuko kideak Bergarako auzitegiaren aurrean. JAGOBA DOMINGO

**Josu Bilbao** DEBAGOIENA

Gaur, batzar orokorra egingo du Fagor Etxetresnak kooperatibako bazkide ohiek osatzen duten Ordaindu elkarteak. Bertan, uztailaren 27an Bergarako Auzitegiko epaile Rodriguez Monsalvek hartutako erabakiaren aurrean Gipuzkoako Lurralde Auzitegira jotzea eta bertan helegitea jartzea edo ez erabaki beharko dute kideek. Izan ere, epaileak Mondragon korporazioari eman zion arrazoia, eta demanda preskribatuta zegoela ebatzi zuen. Orain, bazkide ohien asmoa helegitea jartzea da, baina erabakia batzarrean berretsi beharko dute kideen botoekin.

Ordainduko eta Eskuratu elkarteko kideek nahigabe handiarekin hartu zuten epaia: "Guztiz probatutako ekintzak ez direlako kontuan hartuak izan eta, ekintza horiek gezurtatzeko probarik inongo unetan agertu ez duenean demandatuak, hau da, Mondragonek". Horrela, atsekabez hartu zuten 900 laguni baino gehiagori eragiten dion "auziaren mamian sartu ez izana epailea", eta epaileak "sentsibilitate falta handia" erakutsi zuela azpimarratu zuten.

**Demanda, preskribatuta**

Bergarako epaitegiak uztailaren 27an eman zuen elkarteek Mondragonen aurka jarritako demandaren epaia. Epaileak, demanda atzera bota zuen. Horretarako, Mondragonek epaiketan zehar alegatutako argudio ugarietatik lehenengoari heldu zion; alegia, auzi eskearen preskribatzeari, eta, beraz, ez zuen gainerakoa aztertu behar izan.

Kooperatiben likidazio fasea 2014ko martxoaren 18an ireki zuten, eta Mondragonen aurkako demanda 2015eko azaroaren 27an jarri zuten elkarteek. Horrela, bazkide ohiek euren aurrezkiak eskatzeko urtebeteko epe legala gainditu zutela ebatzi zuen epaileak.

## Hazilan proiektuan izena emateko epea zabaldu dute

Seigarren edizio hau urriaren 1ean hasiko da, eta izena emateko azken eguna irailaren 20ra izango da

**J.B.** DEBAGOIENA

Hazilan proiektuaren seigarren edizioa laster hasiko da martxan, eta, horregatik, dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Aurtengo edizioa urriaren 1ean jarriko dute martxan, eta parte hartzeko eskabide orriak Debagoieneko Mankomunitatean bertan edo bere webgunean jaso daitezke.

Proiektu horren helburua euskaldeko gazte kualifikatuen laneratzea erraztea da. Lehenik, gazteek 80 orduko tailer batean hartzen dute parte, konpetentzia pertsonal eta profesionaletan trebatzeko, eta ondoren, bailarako enpresetan egiten dituzte praktikak. Proiektuan parte hartzeko baldintzak honako hauek dira: 20-44 urte bitartean izatea, goi-mailako ikasketak izatea, langabezian egotea eta Debagoieneko herriren batean erroldatua egotea.

Proiektuaren berri emateko helburuarekin, irailaren 13an aurkezpen jardunaldia egingo dute Mankomunitatean, goizeko hamaiketan, eta interesa duten guztiei dago zuzenduta.




# 14. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA

**egin klik!**

## Eskerrik asko parte hartzeagatik!

Bidali zure argazkiak **irailaren 16ra arte** posta elektronikoz *(argazkiak@goiena.eus)* edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07). Lehiaketaren oinarriak irakurri eta sariak ezagutzeko, sartu *Goiena.eus*-en.

Orain arte jasotako argazki guztiak ikusi hemen: *Goiena.eus/bereziak/14-udako-argazkien-lehiaketa*



**GAU IZARTSUA KATALUNIAKO PIRINIOETAN** | Argazkia: Ugutz Garitaonaindia



**HEGAN KUKUARRINEN (ORIO)** | Argazkia: Gorka Jimenez



**MOMENTU TXIKI HANDIAK (ZUMAIA)** | Argazkia: Olaia Gastiain



**GOIAN KURUTZEBERRI** | Argazkia: Pashkovskyi Maksym



**UDAN, GAUEZ, TONTORRETATIK** | Argazkia: Asier Egaña



**MAITASUN LOTURA ZORAGARRIA (ONDARROA)** | Argazkia: Izaskun Arrese



**DONOSTIAKO JAZZALDIA** | Argazkia: Markel Madinabeitia



**ERLABIOA EKILOREAN** | Argazkia: Angel Ayastuy



**SORGINKERIETAN...** | Argazkia: Alaitz Kristobal



**KUBAKO ARRATSALDEA** | Argazkia: Manu Diaz


**ANTOLATZAILEA:**

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

**LAGUNTZAILEAK:**

EROSKI ARRASATE

GURE AMETSA JATETXEA

ARRASATE BIDAIAK

# "Apaizik gabeko Eliza bat ezagutuko dugu"

**FELIX GARITANO** APAIZA

Donostiako San Bizente elizan parroko gisa emandako 25 urteen gainekoak jaso ditu Felix Garitano apaiz bergararrak '25 años de vida parroquial' liburuan

**Miren Arregi** ARRASATE

Erlijioari eta Elizari lotuta eman du bizitza 1939ko bukaeran Bergaran jaio zen Felix Garitanok. Donostiako Alde Zaharreko San Bizente elizako parroko izan da 25 urtez, duela bi urte erretiroa hartu zuen arte, eta, hain zuzen ere, urte horietan bizi izandakoaz ari da uztailean argitaratu duen *25 años de vida parroquial* liburuan. Une honetan, Lasarteko Brigiden Monasterioan bizi da eta han eta hemen laguntzen du, "behar den tokian".



Felix Garitano abade bergararra, Donostiako San Bizente eliza kanpoan. GOIENA

**Izan ere, laguntza behar handia al du Elizak?**

Bai, jende asko falta da eta. Liburuan ere esaten dut apaizik gabeko komunitateak eta apaizik gabeko Eliza bat ezagutuko ditugula. Intuizio kontua da, ez bainaiz igarlea. Komunitate kristauak egongo dira, batik bat, laikoek koordinatuta. Europa zaharrean gutxienez, ezin dugu etorkizuneko Eliza apaizekin irudikatu.

**Komunitate kristauak egongo dira, baina?**

Izan ere, azaroa ez da apaizak ez egotea, arazoa da komunitate biziak ez egotea. Eta nik uste dut egongo direla. Ez garai batean bezala, garai batean Eliza eta herria gauza bera baitziren, baina egongo dira. Kristautasuna bera ere horrela sortu zen, Jerusalemen komunitate txikietan.

**Eta Eliza gertu dago horrelako aldaketa bati ateak irekitzeko?**

Elizan bi korronte oso bereiziak daude eta zaila izango da horrelako aldaketa bati ateak irekitzea. Korronte kontserbadoreak indar handia du, eta ez da erraza izango.

**Oraingo Aita Santuak zerbait aldatzea lortuko du?**

Asko kostako zaio. Baina liburuan ere badiot Elizak utzi diola erromatarra izateari. Aita Santu hau ez da italiarra eta beste estilo bat eman dio. Orain, Eliza ez da erromatarra, baizik eta da mundu osorakoa. Hurrengoak ere horri jarraipena ematen badio, albiste ona izango da.

**Liburuan gauza askotaz berba egiten duzu, baina, azken finean, zure San Bizenteko egonaldiaren gaineko balorazio bat da.**

Ikuspegi kritikotik egiten dut, gainera. Nirekin ilusioarekin borrokan ibili direnekin pentsatutako liburua da. Nirekin urte hauetan egon direnena. Haiei, eskuz esku ematen diet liburua. Helburua ez da, inolaz ere, saltzea.

**Gizartearen sekularizazioa da Elizak duen arazo nagusia?**

Azken hamarkadetan aldaketa handiak izan dira gizartean. Francoren heriotza, Europako neoliberalismoa, ondoren sortu den gizartea, ETA bera... Horrek guztiak aldaketa handiak ekarri ditu. Baina arlo kristauan izan den aldaketa nabarmenena sekularizazioa izan da, zalantza barik. Teorikoki zerbait ona da, nolabait ere, indibiduoari autonomia bat ematen diolako. Esan gura dut dagoeneko pertsonak ez duela Elizaren esku egon beharrik eta hori teorikoki ona dela. Gertatzen dena da sekularizazioa sekularismo bilakatu dela, alegia, laizismo, eta hori azken 20 urteotako fenomenoa izan da. 1995ean konturatu ginen zer gertatzen ari zen. Duela 40 urte Gipuzkoa oso erlijiosoa zen eta 20 urteotan erabat aldatu da dena.

**Zergatik gertatu da?**

Gizartean aldaketak gertatu dira, eta Elizak ez ditu horiek onartu. Ez du modernitatea onartu, bere baitan itxi da eta gizarte modernoari ez dizkio bere proposamenak eskaini.

**Gizartean gertatu diren aldaketez jardutean Franco eta ETA aipatu dituzu.**

Frankismoaren desagertzea eta ETA azaltzea ere bi elementu oso garrantzitsu izan baitira. ETAk eragin handia izan du. Javier Elzok ondo azaltzen du: berak dio, jainkoan sinestetik ideia politikoak jainkotzera pasatu garela. Absolutismo erlijiosoa absolutismo politiko izatera pasatu da.

**Zeintzuk izan dira, zure ustez, azken 25 urteotan Gipuzkoako Elizak bizi izan dituen unerik aipagarrienak?**

Jose Maria Setienen etorrera, zalantza barik. Setienekin eta Jose Antonio Pagolarekin, Gipuzkoan beste bide bat hasi zen, beste pastoral bat, Kontzilioa martxan ipini guran. Gero Juan Mari Uriartek jarraipena eman gura izan zion, hor-hor ibili zen, eta ondoren etorri zen gaur egungo linea berri hau.

**Errotik aldatu dute lehengoa?**

Errotik baino gehiago, esango nuke ez dutela ezagutu. Kontzilioko joera hori bultzatu genuenok zahartzen ari gara, desagertu egingo gara. Joera tradizional berri horrek, berriz, gazte asko ditu; trantsizio egoeretan mugimendu kontserbadoreak sortzen dira beti eta guk ez dugu indarrik horiei aurre egiteko.

**Amore emango duzue?**

Ez, noski. Eta ez nago desanimatua ere, baina beste Eliza bat dator eta guk izan dugun Eliza hura ez dugu berriz ikusiko. Guk ez, behintzat. Bi linea etorriko dira, nik eta beste askok defendatzen dugun Eliza estilo hori, gutxiengoa izango dena, eta bestetik, Kontzilio aurretik zegoen eliza mantendu nahi dutenak. Autobidean ezin da atzera egin, eta hauek atzera egin gura dute.

**Ikuspegi kritiko bat darabilzu liburuan; ondo hartu dute zure inguruko erlijiosoek?**

Batzuek ondo eta beste batzuek, berriz, ez. Izan ere, Gipuzkoan, argi eta garbi, bi joera daude momentu honetan eta batzuen partetik zorionak jaso ditut; beste batzuen partetik, berriz, isiltasuna. Ez dakit liburuaren berri duten ere.

**"JOERA TRADIZIONAL BERRIAK GAZTE ASKO DITU; GUK EZ DUGU INDARRIK HAIEI AURRE EGITEKO"**

## Euskal Herriko hamar gazte Kolonbiara, elkartasun bidaian

20 eguneko bidaia izango da, Nariño departamentura. Tartean dira arrasatear bat eta bergarar bat

**M.A** ARRASATE

Kolonbiarako bidea hartu zuten atzo Euskal Herriko 23 eta 30 urte bitarteko hamar gaztek –tartean, bi debagoiendar–. Ez da bidaia arrunta izango, Laboral Kutxaren ekimenez eta Mundukide Fundazioak lagunduta egingo duten elkartasun bidaia bat baizik. *Bada beste mundu bat* izena jarri diote ekimenari, eta 20 egunetan zehar, gazteek Kolonbiako egoera eta herritarrak bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dute. Hamar laguneko taldeak Nariño ezagutuko du, Kolonbiako hego-mendebaldean dagoen departamentua. Haiek ingurugiroaren, ekonomia sozialaren, giza eskubideen, parte-hartzearen, generoaren eta beste hainbat gairen inguruko proiektuak ezagutuko dituzte. Ondoren, bidaian zehar jasotako esperientzia eta ikasitakoa partekatuko dute, Euskal Herriko hainbat herri eta hiriburutan egingo dituzten aurkezpenen bitartez.

Elkartasun esperientzia egia bihurtzeko, bi kooperatibaren arteko elkarlana aktibatu da. Esan moduan, Laboral Kutxak Mundukideren kolaborazioa izan baitu bidaia antolatzeko orduan. Hala, Mundukidek lankidetza kooperatiboan duen 20 urteko esperientzia baliagarri izango zaie bidaia honetan gazteei, taldea Kolonbiara lagundu duten bi kideak Mundukideko kide baitira eta biak ere, esperientziadun profesionalak kooperazioaren arloan.

MEDITAZIOA
QI GONG-a
TAI TXIA
Arrasate - Bergara
Oñati - Eibar
Rafael de la Maza
679 64 24 91



## ZABALIK

**XABIER LETONA**

# Eta zu?

Hau irakurtzen ari bazara, lehenik eskerrik asko lerrooi ekitea erabakitzeagatik; eta bigarrenik, adieraziko dizut ez zarela nire kezka handienetakoa. Azalduko dizut. Dagoeneko prentsa euskaraz ari zara irakurtzen, eta hori asko da nire kezkari dagokionez. Horrekin, dagoeneko gure nortasun kolektiboaren ezaugarri garrantzitsu bat partekatzen dugu: euskal prentsa irakurtzea. Ez da gutxi.

Hedabide honek eskualde ikuspegia elikatzen du eta Euskal Herriari begiratzen dionean, zazpi lurralde ikusten ditu. Eta hemen hasten dira nire kezkak: gaur egun, Euskal Herriko zenbat hedabidek begiratzen dute Euskal Herrira eta Zazpiak Bat ikusi? Begirada horren indarra gero eta indartsuagoa edo ahulagoa da? Hau da, gero eta Euskal Herri gehiago edo gutxiago egiten ari gara?

Susmoa dut gero eta gutxiago dela, arrazoi askorengatik, baina bat oso inportantea honako hau: Euskal Herrian oso nagusi diren hedabideen begiradek herri erabat zatikatua ispilatzen dute guk egunero irensten ditugun haien albisteekin. Hau da, ez dute Euskal Herririk erakusten ez ikusten, haien zatitxoa ez bada eta haien moldean. Vocentoko egunkariek –*El Correo*-k eta *DV*-k– irakurleen %80 dute Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian. Prentsa erregionala esaten diote. Zeresanik ez TVE, Tele 5, Ser, Cope, *El País,* France Télévisions eta abar. Sarean hauen guztien indarra birproduzitzen da.

**EUSKAL HERRIKO ZENBAT HEDABIDEK BEGIRATZEN DUTE EUSKAL HERRIRA ETA ZAZPIAK BAT IKUSI?**

Bai, Euskal Herria osorik ikusten duten medioak ere kontsumitzen ditugu askok: EITBkoak, Noticias taldekoak, *Berria, Gara,* Tokikomekoak, *Argia,* Euskal Irratiak... Baina oso gutxi gara besteen aldean.

Bi gobernu autonomiko ditugu, diputazioak... baina, batez ere, Espainia eta Frantzia eskaintzen dizkiguten medioak jaten baditugu, nola metabolizatuko dugu Euskal Herria? Ezinezkoa da. Hortik nire kezkak, irakurle, %80 asko da eta. Ez zara nire kezka handienetakoa, baina apur bat bai. Zuk zer medio kontsumitzen dituzu?

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE**




## HANDIK ETA HEMENDIK

### Bizantziarrak

**ANGEL ERRO**
HTTPS://LABUR.EUS/F3YAX
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Laster etorriko dira berrogeita hiru urte lurperatu zintuztenetik. Ala ez zintuzten benetan lurperatu? Jende askok hartzen du zure hutsunea erraustu zenuen herrian, eta jende asko bizi da berpiztuko zaren beldurrez ingurukoetan. Rodrigo Diaz de Vibarren oinordeko zuzena bazina lez, haren antzera hasi zara hil eta gero ere batailak irabazi nahian. Hortxe egon nahi duzu, gurutze handiaren azpian, eternitate oso baten. Baina ez zaude merezi zenukeen bezain leku doilorrean, eta ez zenuke hor egon behar: zeure aginduz hil zituzten pertsonen ondoan. Zer pentsatuko dute haiek, zer esango dute haien ondorengoek haien ondoan zaudela akordatzen zaien bakoitzean? Alde egin ezazu hortik. Zoaz ezkutuko zokondoren batera. Izango da zuretzako adina leku edozein hilerritan. Ez zinen hain gizon handia ere; gainera, hil eta lau hamarkadara, ondo murriztuta egongo zara. Ez nuen zutaz idatzi nahi, sutan jartzen nauzu. Baina ezin ditut jasan telebistan zure alde ari diren horiek guztiak, gauza onak egin zenituela esaten dutenak. Eta are gutxiago jasan ditzaket hil ondorengo errespetuaz-eta hitz egiten dutenak. Ez duzu inoren errespeturik merezi. Hilda ez bazeunde, gure hildakoak bueltatzeko eskatuko nizuke, baina zorionez, haiek bezain ustelduta zaude.

VII. mendeko Bizantzion, arabiarrek setiaturik, eztabaidagai zuten teologoek jauregian (eta omenak dio, baita barazki saltzaileek ere merkatuan), adibidez, Jesukristo, bere aitaren eskuinean bai, baina nola ote zegoen, eserita ala zutik. Orduan eta orain horrelakoak gertatu bitartean, ez ikusi egiten zaio funtsezko arriskuari.

Post gehiago 8. orrialdean.

goiena" KOMUNIKAZIO TALDEA
www.goiena.eus

**Argitaratzailea**
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.
**Zuzendari nagusia**
Iban Arantzabal.

**Eduki zuzendaria**
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**
Eneko Azkarate, Goiatz Arana, Monika Belastegi, Mirari Altube.
**Zuzendari komertziala**
Mireia Larrañaga.
**Administrazio zuzendaria**
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**
Iñaki Iturbe.
**Hizkuntza arduraduna**
Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia.

**Sailetako arduradunak**
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

**Maketazioa**
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
**Publizitatea**
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin,
Imanol Elortza.
**Administrazioa**
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*harpidetza@goiena.eus*

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
*publi@goiena.eus*

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
*berriak@goiena.eus*

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 19.000 ale
**Difusioa:** 18.723 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

# "Laguntzak poligono publiko eta pribatuendako dira"

**MARI CARMEN LAZKANO** DEBA BAILARAKO INDUSTRIALDEA SA-KO GERENTEA

**Xabier Urzelai** ARRASATE
Eusko Jaurlaritzak industrialde eta poligonoak berritzeko laguntzak emango ditu datozen bi urteetan –4,6 milioi bideratuko dituzte–, eta industrialdeek, udal eta foru aldundiek eta enpresa elkarteek eskatu ahal izango dituzte. Hori horrela, Mari Carmen Lazkanok (Eibar, 1969) nabarmendu du industrialde publikoek eta eta pribatuek eska ditzaketela laguntza horiek.

**Albistearen berri ematerakoan, Arantxa Tapiak Donostiako Zuatzuko poligonoa aukeratu zuen Renove plana aurkezteko. Alde handia dago Debagoieneko poligonoen eta Zuatzukoen artean?**

Ez dut uste Zuatzukoa (Donostia) gure poligonoekin alderatu daitekeenik. Han bulego asko daude, beste zerbitzu batzuk eskaintzen dituzte. Gureak enpresa txiki eta ertainei zerbitzua eskaintzeko pentsatuta dauden poligonoak dira, produkzio industrialera bideratuta daudenak. Eta denetik dugu, inguruak txukun dituztenak eta zerbitzu ona eskaintzen dutenak, eta hobekuntzak behar dituztenak.



Mari Carmen Lazkano. GOIENA

**Krisiak eragin handia izan zuen sektorean. Zein da egungo egoera?**

Nik 2014an hartu nituen gaur egun ditudan ardurak, eta orduan pabiloi asko genituen hutsik, enpresen partetik ez zen eskaerarik iristen. Gaur egun, berriz, egoera bestelakoa da; pabiloi gutxi ditugu eskaintzeko, eta etorkizunari begira lur eskaintza txikia izango da. Horregatik da garrantzitsua daukaguna guztion artean zaintzea eta berritzen eta egokitzen joatea.

**Nabarmendu duzu Eusko Jaurlaritzatik bideratutako diru laguntza horiek poligono publiko eta pribatuetara zuzenduta daudela.**

Halaxe da, eta nabarmenduko nuke helburua ere badela etorkizunari begira poligonoen kudeaketa integrala egin ahal izateko oinarriak ezartzea. Asmoa da asoziazioak sortzen laguntzea udalen, mankomunitateen eta enpresen artean: euren artean komunikazioa hobetzeko, sinergiak sortzeko... Izan ere, indarrak batuta errazagoa izango da industrialdeak egoera onean mantentzea eta zerbitzu hobeak eskaintzea.

**Enpresek ere ardura dutela euren poligonoen hobekuntzan.**

Hori da. Askotan, administrazio publikoak muga handiak izaten ditu poligonoetan berrikuntza lanak sustatzeko, eta enpresetako ordezkariek ulertu behar dute euren ekarpena ezinbestekoa dela.

ITURRI ONETIK

## Aramaioko rallysprintak ibilbide berria izango du

Datorren asteburuan –irailak 15– jokatuko dute Aramaioko Rallysprinta, eta Azpiko Racing taldeko ordezkariek nobedade handiak dituzte aurtengo edizioari begira. Izan ere, ibilbide berria izango du lasterketak.

Zorrotzak izate aldera, ibilbidea berbera da; lasterketaren noranzkoa da aldatuko dena. Eta horrek goitik behera aldatuko ditu lasterketaren ezaugarriak. Pilotuek Ibarratik Gantzagara igoz egingo dituzte lehenengo kilometroak.

ALBISTE IZAN ZEN

2004-09-04

## Etxebestetarren lehen atala filmatzen

*Aupa Etxebeste!* arrakastatsua filmatu zuten duela hamalau urte, irailean, gaur egun *Agur Etxebeste!* filmatzen ari diren toki berean: Bergarako kaleetan eta barruko beste hainbat lokalizaziotan. Musika Banda lagun, hauteskunde kanpainan eta herriko jaietan murgilduta, etxebestetarren oporren osteko itzulera irudikatu zuten. Orduan bezala, banda berriro aterako da kalera bihar, zapatua. Filmeko estra aparta!



JOSETXO ARANTZABAL

HAU BE BADOGU!

### Liskarra Kontxako Banderan



Zierbenak eta Urdaibaik lortu zituzten denborarik onenak pasa den aste bukaerako Kontxako Banderako lehenengo estropadan. Hala ere, ontziek palak gurutzatu zituzten, eta epaileek zigor gogorra ezarri zioten Bermeoko ontziari. Azken sailkatuaren denbora gehi 15 segundoko denbora eman zioten, hain zuzen.

*@Zabaloenea*: "Zierbena eta Bermeoren artekoa izan da liskarra. Biak dira bizkaitarrak. Konplexu horiek ez dira onak".

### Akats larria 'Deportes Cuatro' saioan

Athleticeko gizonezko eta emakumezko jokalariak zirkura joan ziren egun-pasa, eta Cuatro katean esan zuten: "Jokalariak euren neska-lagunekin joan dira".

*@AinhoaTirapu*: "Erratu egin zarete; ez gara neska-lagunak. Hemen utziko dizuet Athleticeko nesken taldeko lotunea hurrengoan argiago izan dezazuen" (itzulita).

*@neka_7*: "Informazio falta izugarria! Aipatzen dituzuen neska-lagunak Athleticeko jokalariak gara!".

### Babesa sare sozialetan Willy Toledo aktoreari

Madrilgo 11. Instrukzio Epaitegiko epaile batek aktore madrildarra atxilotzea agindu du aste honetan, epaiketa batera deklaratzera ez joateagatik. Izan ere, Willy Toledo "Jainkoa iraintzea" egotzita egon da deklaratzera deitua. "Erlijio sentimenduen kontrako delitua" egozten diote, hain zuzen ere, Abokatu Kristauen Elkarteak horrela eskatuta. Hori dela eta, sare sozialetan babes mezuak helarazi dizkiote aktoreari.

## GUTUNAK

### Maltzagarainokoaren astelehena

**IÑAKI IDIGORAS**
OÑATI

Agurne, *Maltzagaraino, domekan* iritzia partekatu zenuen gurekin Goienan, ekainean. Datorren belaunaldiko euskaltzaleondako baliagarri izan daitekeen metafora berri baten beharraz ohartarazi gintuzun. Metaforazalea izan, eta zer pentsatua eman dit. Zaharkituta omen dagoen metafora horren inguruan haritu nahi dut lehenik.

Telesforok *Maltzagara elkarrekin* desio zuen. Euskal politikagintzaren bi korronte nagusiez ari zen: EAJ eta ezker abertzaleaz. Maltzagarekin independentzia irudikatzen zuen; behin estatu propioa izanik, batak eskuinera, Elgoibar aldera, eta besteak ezkerrera, Eibar aldera egiteko, nor bere ildo politikoari jarraituz. Abiapunturik ez zuen zehaztu metaforan, baina bera, zu bezala, bergararra izanik, pentsatzen dut Bergaran irudikatuko zuela.

Ez zen poeta bat lez metaforan gelditu, baina. Eragile nekaezin ere izan zen, bando batean zein bestean zituen lagun eta eragile politikoak batu eta adostasuna lortu aldera, Gotzonek *Berria*-ko *Lekutan zegoen Maltzaga* artikuluan jaso bezala. Ekarpen handia egin zigun Telesforok.

Berrogei bat urte pasa dira ordutik. Biharamun edo astelehena bizi dugula?

Loaldi luzetxoa egin dugu, beharbada. Luzaz lo dagoena, hila baita. Memorian bizi da. Bi belaunaldiren ostean lur jotzea ohiko samarra zaigu. Aiton-amonek sortutako proiektuak bilobek akabatzea ikusi dugu: baserri eta enpresak, adibidez. Gure bailara *kooperatibistan* ere bai.

Nola, baina, metafora biziberritu? Zer diosku hilaren memoriak?

Iruditzen zait Telesforeren metafora lokalegia dela: nork ezagutzen du Euskal Herrian Maltzaga? Egun ez den aurrebaldintza bat ere badauka: ezker eta eskuin abiapuntuan, Bergaran, bat eginda. Nahiz eta borondaterik sumatzen den.

Maltzagaren metafora irudikatzen dudanean, zera dakusat: urdina eta gorria, bi marra, Bergaratik Maltzagaraino parez pare, eta ondoren bakoitza bere aldetik, puntan gezi zorrotzarekin, elkarrengandik aldenduz, dibergentzian. Banaketa irudikatzen dut.

Maltzagan baditugu probetxuzko bi elementu sinboliko, baina: Y eta O.

Saiatuko gara, horietatik abiatuz, metafora unibertsalago bat borobiltzen.

Dagokigun duintasuna berreskuratu aldera, gaurko belaunaldioi erabilgarri izan dakigun gogoz.

### Kaixo, gazte! (edo ez hain gazte)

**BERONIKA GARAI, EZEQUIEL FERNANDEZ 'MARMI', PREMIN SANPEDRO, AMAIA ARRIETA, MIKEL GANGOITI, AIZPEA OTXANDIANO, ITXASO RUIZ DE LARRINAGA ETA ASIER ETXEBERRIA**
ARRASATE

Bulkada berrien garaia da. Konbentzimendu osoz diogu. Asko eman digun aro baten amaiera bizi dugu. Euskal Gazteriaren bultzada ezinbestekoa izan den aroa izan da; frankismoaren garaietan herri hau altxatu zutenena, ekinbide propioz gazte antolakuntzan abiatu zirenena; gazte problematika erdigunean jarri eta bizi eredu berrietan sakondu zutenena; zein inposatutako mugez gaindi, antolatu, borrokatu eta bizitzea aukeratu zutenena. Eta, horrela izaten jarraituko du aurrerantzean ere.

Askatasunaren aldeko bulkada berri eta anitzak gara. Bakoitza beretik, eta denok batera. Horregatik, Jarrairen sorreraren 40. urteurrenaren harira martxan jarri dugun dinamikaren parte izan zaitezen nahi dugu. Gazte Borrokaren parte izan zinen, zaren edo izango zaren heinean, datorren irailaren 16an 11:30ean Leitzako plazan elkartuko gara. Bertan, dinamika honen nondik norakoak elkarbanatu, honi bultzada emateko argazki erraldoia atera eta belaunaldien arteko harremana sustatzeko herri-bazkaria egingo dugu. 09:30ean Garibaitik irtengo gara Leitzara bidean; eman autobuserako izena Iratin. Bertan elkar ikusiko dugulakoan, jaso besarkada iraultzaile bat!

Gora Euskal gazteria! Gora Euskal Herria askatuta!

### Eskerrik asko!

**EIDER GARCIA ETA FAMILIAKOAK**
BERGARA

Gutun honen bidez, Arrasateko Ospitaleko larrialdietako zerbitzuan eta Txagorritxuko Ospitalean aurreko aste bukaeran jaso genuen tratu bero eta profesionala eskertu nahi dugu.

Eskerrik asko!

### Iraultza hemen da

**JON OTERO URIBARREN**
ARRASATE

Iraultza bizitzen ari gara. Erlijio iraultza, bai. Poztu gaitezen. Esan daiteke gazteak ez direla Jesusen jarraitzaile, ez dira kristauak, eta are gutxiago katolikoak. %27 soilik da katolikoa. Nagusiek jarraitzen dute, bai, katoliko izaten; errespetatu dezagun, baina aldatu dezagun.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

## HANDIK ETA HEMENDIK

### Momia

**ONINTZA ENBEITA**
HTTPS://LABUR.EUS/JAZ25
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Laster etorriko dira berrogeita hiru urte lurperatu zintuztenetik. Ala ez zintuzten benetan lurperatu? Jende askok hartzen du zure hutsunea erraustu zenuen herrian, eta jende asko bizi da berpiztuko zaren beldurrez ingurukoetan. Rodrigo Diaz de Vibarren oinordeko zuzena bazina lez, haren antzera hasi zara hil eta gero ere batailak irabazi nahian. Hortxe egon nahi duzu, gurutze handiaren azpian, eternitate oso baten. Baina ez zaude merezi zenukeen bezain leku doilorrean, eta ez zenuke hor egon behar: zeure aginduz hil zituzten pertsonen ondoan. Zer pentsatuko dute haiek, zer esango dute haien ondorengoek haien ondoan zaudela akordatzen zaien bakoitzean? [...] Ez zinen hain gizon handia ere; gainera, hil eta lau hamarkadara, ondo murriztuta egongo zara. Ez nuen zutaz idatzi nahi, sutan jartzen nauzu. Baina ezin ditut jasan telebistan zure alde ari diren horiek guztiak, gauza onak egin zenituela esaten dutenak. Eta are gutxiago jasan ditzaket hil ondorengo errespetuaz-eta hitz egiten dutenak. Ez duzu inoren errespeturik merezi. Hilda ez bazeunde, gure hildakoak bueltatzeko eskatuko nizuke, baina zorionez, haiek bezain ustelduta zaude.

Post gehiago 6. orrialdean.

## HAUXE BAI JENEROA!

**GARBINE UBEDA**






# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

75
**75 URTEZ** JAKINTZA SUSTATUZ
ETORKIZUNA ERAIKITZEN



## Matrikula zabalik

- Automatizazioa eta Robotika Industriala
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua



www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91



LABORAL Kutxa
HETEL
Fp Euskadi
Mondragon Unibertsitatea

# Kirol instalazioetako hobekuntzekin, "pozik"

Udaldia baliatu du Udal Gobernuak herriko hiru kirol instalaziotan esku hartzeak egiteko: Mojategiko futbol zelaia berritu, Iturripeko kantxan kautxuzko zorua jarri eta Musakolako kiroldegiko barruko igerilekuan klimatizazio sistema egokitu dute

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Uztaila eta abuztua hilabete aproposak dira kirol instalazioetan esku hartzeak egiteko; kirol klubek jarduera eteten dute, eta herritarren erabilera mailak ere behera egiten du. Horren guztiorren jakitun, eta erabiltzaileen eskariak aintzat hartuz, hainbat hobekuntza-lan egin ditu Udal Gobernuak.


Ander Garay, Kirol zinegotzia, Iturripeko kantxa berritua atzean duela. X. GOROSTIDI

**Mojategiko futbol zelaia**

Hamaika urteren ostean, Mondra eta Leintz-Arizmendi taldeen etxea denak azalberritzeko beharra zuen, eta Udal Gobernuak 198.000 euroko inbertsioa egin du bertan belar artifizial berria jartzeko –BEZa barne–. Horrez gain, zortziko futbolerako marra gehiago jarri dituzte, eta baita ate berriak ere.

"Belar mota berezi bat jarri dugu Mondo enpresarekin elkarlanean. Erabileraren ondorioz, belar artifizialari kosta egiten zaio tente mantentzea, baina jarri dugunak tente eusteko gaitasun gehiago dauka", adierazi du Kirol zinegotzi Ander Garayk. Zelai berrituan zehar kautxua ondo banatzea falta dela azaldu du, eta aste honetan hori lortzeko esku hartzeak egin dituztela gaineratu. Zelai berrituak hamabi eta hamahiru urte artean irautea da aurreikuspena, eta Mondo enpresak urtean behin mantentzelanak egingo ditu, lehen hamar urteetan.

**Iturripe, itxuraldatuta**

Erosoagoa den kautxuzko batekin aldatu dute lehengo lurzoru berdea. Horrez gain, kantxak zeukan hezetasun arazoa saihesteko, geruza berezi bat jarri dute kautxuzko lurraren azpian. Lanek 80.000 euroko kostua izan dute, eta oraindik azken ukituak falta dira marrak hobeto ikus daitezen. "Erabiltzaile diren kluben aldetik oso feedback positiboa jaso dugu", azaldu du Garayk.

**Igerilekuko klimatizazioa**

"Musakolako kiroldegiko barne igerilekuko klimatizazio sistema oso zaharra zen, eta parametroak justu-justu pasatzen genituen. 125.000 euroko inbertsioarekin, parametroak hobetu eta aurrezpen energetikoa lortuko dugu. Egindako hobekuntza hau kiroldegi berrian ere erabiliko litzateke".

## NIRE USTEZ



**JOSU ZUGASTI**

### Euskara da, ez latina

Beherakada. Hori errepikatzen digute euskararen erabileraren inguruko neurketek. Baina euskalgintza noraezean ikusten dut, gure hizkuntzaren aldeko estrategietan aldaketak egiteko ausardia barik. Eusko Jaurlaritzako hizkuntz politikako arduradun poltroneroak, bitartean, ezagutzaren gorakadaren datuekin txundituta ageri dira eta "inoiz baino euskaldun gehiago daude!" errepikatzen dute. Gogoa sartzen zait galdetzeko: "Eta ehuneko zenbat igo da ingelesaren ezagutza?". Kontua ez delako hiztun kopurua igotzea soilik, baizik eta euskararen ofizialtasuna garatzea eta erabilerarako aukera erakargarriak sortzea. Euskara akademiko eta aspergarria ari gara sortzen, latin berri bat ia. Noizko bideo jokoak euskaraz? Eta telesail eta pelikula arrakastatsuak? *Youtuber*-ak? Kate tematikoak? Ez da 1990a! Aisialdia eta kultura aldatzen ari dira, baina euskalgintzako erabakiguneak 50 urteko gorbatadunez beteta daude. Noiz konturatuko gara hizkuntza informala dela ia beti darabilguna, eta, hain zuzen ere, erregistro hori dela euskaraz ekoizten ez duguna? Haize freskoa behar da!

## OHARRAK

### Pentsiodunak

Arrasateko pentsiodunek astelehenetako elkarretaratzeak berrartuko dituzte. Opor osteko lehena irailaren 10ean egingo dute, 12:00etan, Herriko Plazan.

### LKRTSN eguna 2018

Aurten, 18 musika taldek hartuko dute parte, eta talde sorpresa bat ere izango da. Bazkarirako txartelak, Iratin eta Monten.

### Gaztetxeko hitzaldiak

Gaur, 18:00etan, *Klase feminismoa* izenekoa, eta bihar, 12:00etan, AKAB abokatuak taldearena.

### GEIKE

Euskaraldia herritarrei azaltzeko asmoz, batzar informatiboa egingo dute astelehenean, Kulturateko areto nagusian, 18:00etan.

### Ekin Emakumeak

Bost ikastaro hauek antolatu dituzte abendura bitartean: autokudeaketa ginekologikoa –berria–, sendabelarrak, joskintza, tao eta estanpazioa. Tailerrei eta izen emateei buruzko informazio guztia *Goiena.eus* atarian dago.



# Iazko formularekin dator iraileko Merkemerkaua

Egubakoitzean eta zapatuan egiteak emaitza ona eman zuela ikusita, aurten ere bi eguneko Merkemerkaua izango da. Gaur arratsaldean eta bihar egun osoz, herriko dendariek maukak aterako dituzte kalera, eta aukera zabala egongo da



Herriko bazterrak maukaz beteta. IMANOL SORIANO

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Gaur eta bihar, herriko dendariek maukaz beteko dituzte Arrasateko bazterrak, euren eskaintza erakargarrienak kalera aterata. Iaz, irailean, Merkemerkaua eta Erdi Aroko azoka asteburu berean izan ziren, baina aurten biek asteburu berean topo egitea saihestu dute.

Ibai-Arteko kide Arantza Aranzabalek adierazi duenez, aurten ere dendari kopuru esanguratsuak hartuko du parte, eta produktu aukera zabala jarriko dute erosleen esku. "Denda asko irtengo gara kalera. Guztira, hogeita hamar baino gehiago. Erosleentzako aukera zabala izango da: gizonezkoentzako eta emakumeentzako arropak, haurrentzako jantziak, lentzeria, osagarriak, zapatak... denboraldiko produktuak izango dira, nagusiki, eta erosleek denetarik erosi ahalko dute".

Iaz lehen aldiz antolatu zuten bi eguneko Merkemerkaua: egubakoitzean eta zapatuan. Jendeak ondo erantzun zuela ikusita, aurten eta aurrerantzean horrela egiten jarraituko dute. Ordutegia honako hau izango da: gaur 16:30etik 20:00etara eta bihar 10:00etatik 20:00etara.

"Iaz apustu hori egin genuen, eta oso gustura geratu ginen jasotako erantzunarekin, ikusi genuelako ostiralean jende asko animatu zela. Horregatik, aurten ere errepikatu egingo dugu. Jende asko zapatuetan beste leku batera joaten da, beste etxe bat daukalako edo dena delakoagatik. Hori dela eta, ostirala aprobetxatu zuten, eta giro polita izan genuen".

**Maukak eta musika, eskutik**

Arrasate Musikaleko kideek ukitu musikatua emango diote azokari. Gaur, 18:00etatik 20:00etara, Banda Gaztea eta Suzuki, perkusio, saxo eta tronpeta taldeak aritu dira; eta bihar, gaiteroak eta dantza taldekoak.

## GORA ETA BEHERA



J.B.

### Beste bizikleta bat ostu dute kiroldegian

Astelehenean, Musakolako kiroldegi kanpoan KTM etxeko bizikleta bat ostu zuten, eta jabea lapurra aurkitu nahian dabil. Duela hilabete, beste bizikleta bat ostu zuten leku berean.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.



# 'Kamarada', Celestino Uriarteren bizitza betikotzeko dokumentala

Hamasei testigantzaren bidez, Arrasateko iraultzailearen pasarteak jaso dituzte Intxorta 1937 elkarteko kideek

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Intxorta 1937 elkartekoek *Kamarada* izenburua jarri diote Celestino Uriarte borrokalari arrasatearraren bizitza jasotzen duen dokumentalari.

Iraultzaile nekaezina izan zen Uriarte, eta lanak izan dituzte hark bizitako pasarte guztiak 70 minutuko iraupena duen lan batean pilatzeko. Besteak beste, 1934ko urriaren 5ean Arrasaten egindako iraultzaren gidaria izan zen, 1936an Donostian faxisten aurka borrokatu zen milizia baten sortzaile, Arrasateko Dragoi batailoiaren sortzaile eta buruzagi, eta Ebroko gerra odoltsuan ausardiaren domina eskuratu zuen brigada baten buruzagi ere izan zen.

Gerra ostean Txilen erbesteratu zen, baina hor ez zen haren ibilbidea amaitu: Madrilgo gerrillaren arduradun politiko-militarra izan zen 1944an, frankismoaren aurka hirietan egindako lehenengo ekintza armatuen gidaria; eta, era berean, kantabriar zonako maki mugimenduaren arduradun politiko-militarra ere izan zen.

1946an espetxeratu egin zuten, eta era basatian torturatua izan zen. 1950ean Martuteneko espetxean ihesaldi arrakastatsu bat antolatu zuen, eta ostean Alderdi Komunistako buruzagi aritu zen Parisen eta Polonian.


**Uriarte 1978an.** OKTUBRE TALDEA

**Lagunen testigantzak oinarrian**

Uriarteren ibilbide biografikoa egiteko, harekin harreman estua izan zuten hamasei lagunen testigantzak jasoz osatu dute gidoia Julia Monjek eta Julia Muniz zuzendariak.

Horietako bost arrasatearrak dira: Trini Ruiz de Alegria –haren testigantzek dute pisurik handiena–, Roberto Uriarte, Elias Olmedo, Josu Otadui eta Juan Ramon Garai –hark Uriarteren biografia jasotzen duen liburua idatzi zuen 2008an–. Gainontzeko hamaika protagonisten artean, Nazioarteko Brigadetako bi lagun alemaniar eta Alderdi Komunistako lankideak daude.

**Estreina eta 'crowdfunding'-a**

Ikus-entzunezkoa egiteko Lumiere ekoiztetxearen laguntza izan dute –besteak beste *Aupa Etxebeste* bezalako pelikulak egin dituena– eta urriaren 10ean estreinatuko dute, Kulturaten, 19:00etan.

Bertan, Gose taldeak Uriarteren omenez egindako *Amets gorria* abestia joko du, eta Jokin Labaien bertsolariak ere parte hartuko du haren omenezko kopla batzuk abestuz.

Proiektua diruz laguntzeko *crowdfunding* kanpaina bat jarri dute martxan Inxorta 1937 elkarteko kideek. Diru sartzeak ES46 3035 0001 57 0010105700 kontuan egin behar dira 50 eurotik gorako ekarpena egiten dutenek liburu bat edo liburu sorta bat jasoko dute

## OHARRAK

### Nao Santiago
Kale horretako jolas-parkea berritzeko lanak amaituta daude.

### Hizkuntza Eskola
Alemana edo ingelesa ikasteko aukera izango da Arrasaten, HHEko egoitzan. Izen emateak, irailaren 19ra arte, Eibarko Hizkuntza Eskola Ofizialaren webgunean.

### Abaroako bidaiak
Irailaren 19an egun-pasa egingo dute Burgos aldera eta hilaren 23tik 27ra, aldiz, Arango bailarara.

### 1965ekoen kintada
Irailaren 22an egingo dute aurtengo bazkaria, eta bertara joan nahi dutenek ES76 3035 0055 17 0551058385 kontuan egin beharko dute 65 euroko diru-sarrera.

### Eskalada ikastaroa
Urritik ekainera iraungo du. Izen emateak egiteko, gerturatu Uarkapeko rokodromora irailaren 10ean, 12an, 17an eta 19an, 18:00etatik 19:00etara.

### Uarkapeko gimnasioa, igandeetan zabalik
Ordutegi berria izango du aurrerantzean: astelehenetik ostiralera 06:30etik 14:00etara eta 15:00etatik 21:00etara eta zapatu eta domeketan 08:30etik 13:30era.

### Ate irekien jardunaldiak kiroldegian
Aldez aurretik izena emanda, kiroldegiak eskaintzen dituen aktibitateak probatu ahalko dira martitzenetik ostegunera. Informazio gehiago *Goiena.eus* atarian.












# Emakumezkoen txanda lehen asteburu honetan

Gaur, egubakoitza, jarriko da martxan Kulturate Akustikoak ekimenaren hamargarren edizioa; Marala Trio, Virginia Maestro, Olatz Salvador, German Salto, Lenao eta Fino Oyonarte izango dira sei gonbidatuak; emanaldi guztiak 20:00etan izango dira


Gaur kontzertua eskainiko duen Marala Trio taldea. M.T.

**Eneko Azurmendi** ARRASATE
Kulturate Akustikoak musika zikloa gaur abiatuko da, eta sei emanaldi izango dira, bi asteburutan banatuta. Asteburu honetan, beraz, hiru kontzertu egongo dira Kulturaten.

Marala Trio hirukotea izango da lehen gonbidatua. Herrialde Katalanetakoak dira hirurak: Selma Bruna (Katalunia), Clara Fiol (Mallorca) eta Sandra Monfort (Valentzia). "Hauen eskaintza berezia da, eta, agian, guztietan akustikoena ere bai. Ahotsari garrantzia eta indarra ematen diote, gitarrarekin eta perkusioarekin lagunduta. Estilo desberdinak lantzen dituzte. Esperantza handiak jarriak ditut hirukote honengan", azaldu du Karmelo Alberdik, Kultura teknikariak.

Bihar, zapatua, Virginia Maestroren txanda izango da, bere taldearekin. 2008an *Operación triunfo* saio ezaguneko irabazle izan zen Maestro. "Saioa irabazi ostean, *mainstream* mundutik irten eta bere ibilbide propioa abiatzea erabaki zuen. Apustu ausarta, zalantzarik gabe, eta txalotzekoa ere bai. Azken urte hauetan lan polita egiten ari da folk-rock amerikar arloan", dio Alberdik.

Lehen asteburua Olatz Salvadorrek itxiko du, domekan. Skakeitan taldean hasi zuen musikari ibilbidea, eta, azken urteetan, talde horretan jotzeaz gain, bakarlari ere ari da. *Zintzilik* diskoa aurkeztera dator, taldearekin lagunduta. "Disko ederra iruditzen zait. Gainera, Euskal Herrian hain ohikoa ez den kutsu bat dauka, elektroniko puntutxo batekin eta estilo aldetik ere berezitasunekin", azaldu du teknikariak.

**Datorren astean, beste hirurak**
Irailaren 14an German Salto izango da Kulturateko oholtza gainean; 15ean, Lenao eta 16an, Fino Oyonarte.

## Ate irekiak egingo ditu gaur Arrasateko Trikitixa Eskolak

Laugarren aldia izango da aurtengoa, eta ikasleen lana herrira ateratzea da helburua, urtero moduan

**E.A.** ARRASATE
Arrasateko Trikitixa Eskolak egiten duen lana plazaratzeko helburuarekin, ate irekien jaia ospatuko dute gaur, egubakoitza.

18:00etan abiatuko da kalejira, eskolatik plazarantz, eta ostean, plazan bertan egingo dituzte ekintzak. 18:30ean, *Gurozuna* jo emanaldia hasiko da, eta nahi duten musika pieza jotzeko aukera izango dute ikasleek.

Bitartean, ekotaloak, sagardoa eta ardoa dastatzeko aukera edukiko dute herritarrek, eta panderoak egiten dituen artisau bat ere egongo da. Horrez gain, umeentzako jolasak egongo dira, Txatxilipurdiren eskutik.

Ordu berean, Trikigin erakustaldia egingo dute. Herriko hainbat tabernak gin-tonica egiteko teknika desberdinak erakutsiko dituzte, eta bukaeran, epaimahaiak gin-tonic onena zein den erabakiko du.

Eskolatik jakinarazi dute ikasle gehiagorendako lekua badutela, eta, beraz, izena eman nahi dutenei animatzeko dei egin diete. Horretarako, 636 51 52 18 telefonora deitu behar da.



IRAILAREN 29AN
GORBEIAK

# DONOSTIAKO 66. ZINEMALDIRA

GONBIDATU NAHI ZAITU

**PARTE HARTU ZOZKETAN ETA IRABAZI:**

**BI SARRERA**
DONOSTIAKO
ZINEMALDIAREN
ITXIERA
EKITALDIRAKO

BI LAGUNENTZAKO
**BAZKARIA**
AKELARRE JATETXEAN

BI PERTSONENTZAKO
**GAU BATERAKO** LOGELA
MONTE IGUELDO HOTELEAN

Zozketan parte hartzeko, egin gutxienez 10€-ko erosketa bat
eta erregistra zaitez hemen:
**centrocomercialgorbeia.com**

CINES GORBEIA ZINEMAK
TEKNOLOGIA
DUTEN ARETO BAKARRAK
DOLBY ATMOS
ZINEMARIK ONENA
PREZIORIK ONENEAN

SSIFF Donostia Zinemaldia Festival de San Sebastián International Film Festival

Promozio hau indarrean izango da 2018ko abuztuaren 31tik irailaren 24ra arte. Kontsultatu oinarri osoak hemen: www.centrocomercialgorbeia.com

GORBEIA
Parque Comercial Gorbeia



Gaurko taldeko kideak, emanaldia egiten. NOVENO IN BLUES

# Iraileko zamak arintzeko, musika jaialdia Sastiñan

Gasteizko Noveno In Blues taldearen emanaldiarekin hasiko da, gaur, hileko lau barikuetan egingo den festibala. Krisketa folk taldea, Marrate musika banda –saio hau kultura etxean izango da– eta Red Crabs izango dira gainerako hiru taldeak

**Julen Iriondo** ARAMAIO

Rocka eta bluesa jorratzen dituen laukote gasteiztarrarekin hasiko da, gaur, Sastiñako Musika Festibala. Ahotsa, baxua, perkusioa eta gitarrak darabiltzan taldea Noveno Inca rock taldearen jarraipen moduan sortu zen, blues musikara ere gerturatzeko asmoarekin. Sei abestiko maketa atera zuten 2004an, eta zenbait joan-etorriren ostean, 2016an rock eta blues soinu akustikoagoetan murgildu ziren gasteiztarrak.

Hogei kantu inguruko errepertorioa du Noveno in Blues-ek, eta denak dira taldeko kideen artean sortutakoak, ez dute beste batzuen bertsiorik egiten. Ordu eta laurden inguruko kontzertua izango da gaur iluntzekoa, eta Sastiña kanpoaldean edo barruan izango da, eguraldiaren arabera.

**Gainerako taldeak**

Krisketa taldearena, hauek ere gasteiztarrak, izango da bigarren emanaldia, datorren astekoa. "Folk-zale talde bat" bezala aurkezten dute euren burua; beste talde batzuetan ibilitakoak dira kide gehienak, eta oraingo proiektuarekin folk zelta dantzak eta abestiak jotzen dituzte, Galiziatik hasi, kantaurialdeko lurraldeetatik pasa, Bretainiara, eta Irlandaraino joanaz, Italiako dantzaren bat ere joz. Eurek sortutako abestiak ere jotzen dituzte tartean. Gaita, *whistles*, txirula, biolin, perkusio, gitarra, ukelele eta ahotsez sortutako doinuak dira Krisketakoek egiten dituztenak.

Marrate musika bandaren saioa izango da hurrengoa. Ordua eta lekua aldatu egingo dira kasu horretan; gainerako kontzertuak 20:00etan eta Sastiñan izango dira eta hau, berriz, 20:30ean eta kultura etxean.

**ROCKA ETA BLUESA EGITEN DUTE NOVENO IN BLUES TALDEKO KIDEEK, MODU AKUSTIKOAN**

Bastidako taldea da Marrate, 30 lagun inguruz osatua, ohiko musika banda, baina doinu "modernoagoak" egiten dituena, Juanma Saez zuzendariaren arabera. Tradizio handiko banda da, gainera, XIX. mende amaieran sortu baitzen; gerrak eta bestelako gorabeherek eraginda eten luze xamarra izan zuen aurreko mendeko erdi aldera, eta ospatu berri dute jardunaren berreskurapenaren 25. urteurrena.

Eta Red Crabs talde gasteiztarrak itxiko du iraileko Sastiñako Musika Festibalaren egitaraua. Ahots, gitarra, baxu elektriko eta bateriaz osatutako talde honek soul eta funk estiloetako bertsioak egiten ditu, batez ere –The Jackson 5, Nina Simone, Ottis Redding, Amy Winehouse, Stevie Wonder...–, nahiz eta euren zenbait abesti ere badituzten errepertorioan.

## Asteburuan hasiko da San Martin pilota txapelketa

Alebin, benjamin, infantil eta kadete mailetako Arabako ehunetik gora pilotarik –hogei Aramaiokoak– parte hartuko dute txapelketan, bikoteka. Azaroaren 10a bitartean, bariku eta domeketan jokatuko dira partiduak. 18:00etan hasiko da gaurkoa, hiru norgehiagokarekin; domekakoa 10:00etan hasiko da, eta bost partidu izango dira.

## Kiroldegiko kantxa alokatu egin daiteke, ordu libreetan

Antolatu dute egutegia kirol taldeen eta eskolaz kanpoko ekintzak kontuan hartuz. Libre geratu diren orduetan kantxa erabili ahalko da: martitzenetan, 17:00etatik 18:30era eta 20:00etatik 21:00etara; eguenetan, 20:00etatik 21:00etara; barikuetan, 19:00etatik 21:00etara. Eskaerak, hilaren 17a aurretik: *itxasokultura@gorbeialdea.eus*.

## Iraila iristearekin, aldaketak autobusen ordutegian

Irailaren 1etik aurrera, 15:30ekoa zen Arrasate-Aramaio zerbitzua 15:20an da, institutuko irteera ordura hobeto egokitzeko. Hori dela eta, ondorengo ordutegiak ere moldatu dituzte: L2-an, Gasteizerako 13:25eko eta 14:15eko zerbitzuak bost minutu aurreratu dituzte; eta L3-an, gauza bera egin dute Arrasatera doan 15:00etakoarekin.

## Bertsotruk: mendi buelta eta bazkaria, bertsoz lagunduta

Aramaioko, Gernikako eta Irungo bertso eskoletako kideek topaketa egingo dute hurrengo zapatuan. 10:00etan abiatuta, San Kristobaldik Santikurtz ermitarainoko bertso-ibilaldia egingo dute, lau geldialditan kantatuz; 14:00etan, berriz, bazkaria egingo dute Marixekan. Izena emateko, hilaren 13a aurretik: 688 62 70 89 (Xabi).



NIRE USTEZ

**PERU ABARRATEGI**

## Errutinaren deia

Esango nuke mundu honetan bizi den gehiengoak, nire inguruko pertsonek bai, behintzat, irrika handiz hartzen dutela udaren iritsiera.

Ez dut uste eguzkia denik urtaro hau hainbeste mirestera garamatzana. Izan ere, oporretan gauden bitartean, niri, behintzat, ez dit azkura handirik sortzen noizean behin zaparrada bat edo beste erortzeak.

Uda oporrekin erlazionatzen dugula gauza jakina da, eta guztiok maite ditugu oporrak; izan zaitezke mendizalea, izan zaitezke hondartzan toallatik altxatzen ez den turisten antzekoa, edo izan zaitezke festarik festa Euskal Herriko bazter guztietako tabernak itxi dituen gautxoria, baina hiru hauetako edonor zarela ere, ziur oporrak nik bezain beste miresten dituzula.

Oporrei, ordea, hasiera bat duten gauza guztiei bezala, amaiera ere iristen zaie, eta nireak, behintzat, amaitzear daude. Beraz, amaitu dezagun betiko erara: laranjekin egin ohi den moduan, atera zukua geratzen zaizkizuen azken egunei; izan ere, Gari abeslariaren hitzak gogora ekarriz, laster ikusiko duzue berriz ere zuen burua errutinaren morroi bihurtuta.

OHARRAK

**Pablo Maria Beitia**

Euskal Herriko txanponei buruzko liburu aurkezpena; eguaztenean, 19:00etan, Iñaki Aldekoa fundazioan –Gasteiz–.

**Odol ematea gaur**

Kultura etxe kanpoan egongo da autobusa (16:45-20:00).

**Mantentze gimnasia**

Hilaren 17an hasiko da. Izena udaletxean eman behar da.



Santa Ana aparkaleku berria datozen egunetan irekiko dute, aparkalekuak markatu ostean. IMANOL BELOKI

# Datorren asterako irekiko dute aparkalekua

Santa Anako aparkaleku berrian 51 autorentzako lekua egongo da; horren ostean, parke bat egingo dute bi partzelatan, eta baita oinezko pasabide bat Jose Arana auzoko etxeen atzeko aldetik; Santa Ana eta Santa Marina auzoak batuko ditu horrek

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Santa Ana auzoko doako aparkaleku berria datorren asterako zabaltzea aurreikusten dute. Guztira, 51 autorentzako plazak izango dira eremu berri horretan, eta datozen egunotan aparkalekuak markatu eta margotu ostean irekiko dute. Sarrera Pagalday harategi ondotik izango du, lehen ez bezala.

Lur eremu horietan ez da soilik aparkalekua egingo; izan ere, hiru fasetan daude oinarrituta Santa Ana eta Santa Marina auzo bitarteko eremuko lanak. "Aparkalekua irekitzea izan da lehenbiziko lana, eta horri eman diogu garrantzi handiena, lehen fasea deitu diezaiokeguna. Lur eremua zabaldu, galipota bota eta argiteria jarri dugu, eta aparkalekuak markatzean, lehenbailehen irekitzea da asmoa. Bigarren fasean, lurra pilatuta dagoen lursailean parke bat egingo dugu, lurra kendu eta aparkalekuaren alturara jarriz. Hori urrirako egin nahiko genuke. Hirugarren fasean, Jose Arana kaleko etxeen kontra, hauen atzealdean, oinezko pasabide bat egingo dugu, eta hau, berriz, azarorako amaitzea da gure asmoa", adierazi du Josu Ezkurdiak, Hirigintza eta Mugikortasun batzordeburuak.

### Ondo aprobetxatutako partzelak

Santa Ana eta Santa Marina auzo bitarteko lur eremuko bi partzelatan aparkalekua joango da eta beste bietan, berriz, parkea. "Guztira, 5.500 euro inguruko alokairua ordainduko dugu lau partzelengatik, eta parkinga egiteko eta eremu osoko egokitzapen eta bestelako lanetarako 29.000 euro inguruko aurrekontua jarri dugu. Horrez gain, oinezko pasabidea egiteaz lurjabeak arduratuko dira".

**APARKALEKUA AMAITZEN DUTENEAN, EZINGO DA ARBIÑOSTEKO ESPALOIAN APARKATU**

### Alternatiba bila

2014ko otsailean egin zen Eskoriatzako Santa Ana auzoko aparkalekua. Herri erdigunean aparkatzeko oso leku aproposean. Ordutik hona, irekita izan da, eta leku oso erabilia eta erosoa izan da herritarrendako. Hala ere, 2017ko uztailean itxi egin zuten aparkalekua. Hala, Udalak eta lur-jabeak adostasun batera iritsi dira, eta gune berria izango da laster Eskoriatzan, batetik, aparkatzeko, eta bestetik, lasai egon nahi dutenek erabilpen librerako parkean disfrutatzeko.

Aparkalekua itxi zenean, herriko toki ezberdinetan hainbat aparkaleku egin zituen Udalak, baina nahikoa ez, eta Arbiñosteko espaloian aparkatzeko baimena eman zuten, ezohiko neurri moduan. Edozelan ere, aparkalekua erabilgarri dagoenean, ezingo da espaloi horretan aparkatu.

# Atxorrotxeko inguruak konpondu egingo dituzte, auzolanean

09:30erako Atxorrotxeko zelaian batzeko dei egin diete Atxorrotx Kultura Elkarteko kideek herritarrei

**I.B** ESKORIATZA

Abuztuan indusketa lanak egiten izan dira hainbat boluntario Atxorrotxen, Iñaki Sagredo arkeologoaren gidaritzapean. Bi astez, Nafarroako Erreinuko gaztelua izan zenaren dorrearen aztarnaren bat aurkitzeko itxaropenaz aritu dira aurten. Egindako ustiaketa eremuak tapatu egin dituzte, baina, horrez gain, auzolanean hainbat lan egiteko dei egin dute Atxorrotx Kultura Elkarteko kideek.

### Lehentasuna, ermitako teilatua

09:30ean batuko dira nahi duten herritarrak Atxorrotx mendiko zelaian. Gurutze Santuaren ermitako teilatua konpontzea izango da lanetako bat. Horrez gain, inguruko belar txarrak kenduko dituzte, eta irailaren 15ean, Errekan Gora jaialdiaren barruan izango den Atxorrotx mendiko festarako lekua atontzeko ere aprobetxatuko dute.

### Atxorrotxeko festa

Irailaren 15ean, Errekan Gora jaialdiari amaiera emateko Atxorrotxeko gazteluaren festa izango da. 09:30ean, txistularien kalejira izango da, eta 10:30ean, Atxorrotx mendira igoera hasiko da Eskoriatzako eta Gatzagako plazetatik. 12:00etan, harrera eta bisita gidatua izango da, 12:30ean ekitaldia, eta ostean, dantzariak izango dira. 13:15ean, berriz, Lore Kolore pailazoak ikuskizuna eskainiko du, eta 14:30ean, The Potes taldea igoko da oholtzara. 16:30ean, berriz, Zopilotes Txirriaus talde nafarrak eskainiko du kontzertua, eta egunari amaiera emateko, DJ DZren (Esne Beltza) emanaldia izango da Inkernu taberna kanpoaldean.

# Oporren kontakizunak aurten ere, Ostegun Bidaiariak ekimenean

Aurtengoa bosgarren edizioa izango da eta hilabete honetan hiru bidaiaren gainekoak izango dira antzokian

**I.B** ESKORIATZA

Ostegun Bidaiariak egitasmoaren bosgarren edizioa izango da aurtengoa, eta bidai ezberdinak egin dituzten eskoriatzarren kontakizunak ezagutzeko aukera izango da irailean zehar, eguenetan, 21:00etan, Zaldibar antzokian.

### Hiru bidaia ezberdin

Bidaia kontatuko duenak nahi duen baliabide eta formatuak erabili ahal izango ditu jendeari informazioa helarazteko; hau da, argazki bidez, bideoekin… Hala, entzuleek galderak ere egiteko aukera izango dute. Lehenengo bidaiaren kontakizuna Saioa Artzamendik emango du, irailaren 13an, 21:00etan, Zaldibar antzokian, *Maroko: Mendiak, hiriak, basamortua* izenburupean. Maroko usain, zapore, kolore, soinu eta jendarte bereziak dituen herria da, nortasun handikoa, eta Artzamendik bertan bizitakoak kontatuko ditu.

Bigarren kontakizuna Nagore Uriartek eskainiko du, irailaren 20an, *Urrutiko bidaiatik, barneko bidaiara* izenpean. Peru, Ekuador eta Kolonbia aldean urtebete baino apur bat gehiago eman zuen Nagorek. Bidaian zehar, herri indigenak, komunitate ereduak eta hainbat kultura ezagutu zituen.

Azken hizlaria Naia Pagoaga izango da. Bigarren kontakizuna bezala, *Urrutiko bidaiatik, barneko bidaiara* izenpean, irailaren27an eskainiko du bere bidaian bizi izandakoak. Egun kopuru zehatzik gabeko bidaia egin zuen Pagoagak. Montesinho parke naturalean hasi eta Algarbeko itsas-ertzeraino motorrean joan zen.

# "Erronka honi aurre egiteko ilusioz nago"

**NARCISO PAVO** ARETO FUTBOLEKO ENTRENATZAILEA

Eskoriatza Kirol Elkartean ahal duen neurrian laguntzen jarraituko duen arren, Maila Nazionaleko Laskorain taldeko entrenatzaile berria izango da denboraldi honetan

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Eskoriatza Kirol Elkarteko erreferenteetako bat da Narciso Pavo eskoriatzarra. Klubeko zuzendaritzan urte asko daramatza, eta oraindik erabaki batzuk hartzen eta hainbat ardurarekin jarraituko duen arren, bide berri bati ekingo dio. Izan ere, orain dela gutxi, Maila Nazionaleko bigarren mailan ari den Laskorain B taldeko entrenatzaile izatea eskaini zioten, eta, hala, ibilbide berriari hasiera emateko gogoz dago.



Narciso Pavo, Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian. ESKORIATZA KE

**Nola eskaini zizuten Laskorain B taldearen entrenatzaile izatea?**

Bitxia izan zen. Oporretan, festan geundela esan zidaten entrenatzaile baten premia zutela. Hala, etxekoekin eta Eskoriatza Kirol elkarteko kideekin hitz egin ondoren, guztiek animatu ninduten baiezkoa emateko.

**Eskoriatzatik, maila nazionalean dagoen bigarren mailako talde bat koordinatzera; salto handia da, ezta?**

Bai; Eskoriatzako taldea jarraitzen eta eskatzen didaten guztian laguntzen segituko dudan arren, ikasten jarraitzeko eta erronka honi aurre egiteko prest nago. Erronka zaila izango da, helburua taldea mailaz igotzea izango baita, baina aukera zoragarria da. Talde gaztea da, 20-24 urte bitarteko gazteak daude, maila oneko jokalariak, eta, ilusio handiarekin daudenak. Horrez gain, elkarlanaren aldeko apustua egingo dugu. Izan ere, Eskoriatzako talde guztietako atezainak Laskoraineko atezainekin batera entrenatuko dira.

**Eskoriatzan ardura gutxiago izango dituzu orain, agian, baina atzeko lana egiten jarraituko duzu, ezta?**

Manuel Muñozen garaitik, areto futbol taldea sortu genuenetik izan naiz Eskoriatzako Kirol Elkartean; batez ere, areto futbolean buru-belarri. Ordutik hona, ibilbidea luzea izan da, eta gaur egun ditugun maila ezberdinak ikusita, emakumeen taldea sortu izanaz eta gaur egun areto futbol eskolan egiten ari garen lanaz oso harro nago. Horrez gain, beti egongo naiz Eskoriatzako zuzendaritzan laguntzeko prest, eta kargu banaketa berria eginda, gogoz ikusten ditut elkarteko gazteak. Uste dut lan bikaina egingo dutela, gainera, atzetik datozen gazteei ardura eta lana ematea ondo dagoela uste dut. Urte asko daramatzagunok ez dugun bizitasuna, positibismoa, eta gauza berriak egiteko gogoa oso garrantzitsua da, eta handicap hori dute beraiek.

**Pasa den astean, hiruko txapelketa izan zen Manuel Muñozen. Giro ederra izan zenuten bertan, ezta?**

Bai, nahiz eta sentsazio berezia izan nuen. Izan ere, Laskorain taldeko entrenatzaile moduan izan nintzen, eta lagun artean talde berria ezagutzeko, Eskoriatzako taldea nola dagoen ikusteko eta partidu bikainez disfrutatzeko aukera izan genuen Manuel Muñozen jokatutako txapelketan. Intentsitate handiko partiduak izan ziren, eta Laskorainek zein Eskoriatzak maila horretan jokatzen badute aurtengo denboraldian, emaitza onak lortuko ditugulakoan nago.

**"ESKORIATZA KIROL ELKARTEAK BEHAR DUEN GUZTIRAKO LAGUNTZEKO PREST EGONGO NAIZ BETI"**



## Denboraldi-aurreko txapelketa

Areto futboleko Euskal Liga hasiko du laster Eskoriatza taldeak. Hala, urtero moduan, denboraldia hasi aurretik, denboraldiaurrean gogor ari dira entrenatzen, aurtengo txapelketa intentsitate osoz eta fisikoki prestatuta hasteko. Hala, entrenamendua indartze aldera, hiruko txapelketa jokatu zuten pasa den astean Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian. Eurekin batera, bigarren mailako Laskorain taldea eta hirugarren mailako Alipendi taldea izan ziren.

Txapelketa Laskorain taldeak irabazi zuen arren, entrenamendu moduan ondo etorri zitzaien Eskoriatzako jokalariei eta entrenatzaileei. Gainera, Alipendiri 2-0 irabazita eta Laskorainen aurka bana berdinduta, aurreikusi baino emaitza hobeekin geratu ziren txapelketa amaieran.

## Euskal zirku ibiltaria ikusteko sarrera gutxi geratzen dira

Irailaren 14tik 16ra bitartean, 'Gure zirkua' ikuskizuna ikusteko hainbat saio izango dira Huheziko berdegunean

**I.B** ESKORIATZA

*Gure zirkua,* historiako lehenengo euskal zirku ibiltaria, Eskoriatzara etorriko da datorren astean. Iker Galartza euskal aktoreak sortutako ekimena arrakasta handia izaten ari da eskaini duten herri guztietan, eta badirudi Eskoriatzan ere halaxe izango dela. Izan ere, hiru egunean hainbat saio egongo dira, eta dagoeneko sarrera asko saldu dira. Hain zuzen ere, egubakoitzean, irailaren 14an, 19:00etan izango da lehenengo saioa; irailaren 15ean, 17:00etan eta 19:30ean egongo da; eta domekan, 12:00etan eta 17:00etan.

Hainbat diziplina artistiko uztartzen dituzte euskal zirku ibiltaria eskaintzen dutenek; besteak beste, akrobatak, magoak, trapezistak, malabaristak eta pailazoak izango dira. Sarrerak *Ticketea.com* webgunean daude salgai, 12 eurotan, eta 2 urtetik beherakoentzat, berriz, doan da.





Obra-hondakinak Azbe lantegiko bulegoak zeuden tokian. MIRARI ALTUBE

# Azbe ingurua gertu dago gainerako lanak egiteko

Abuztuan bota zuten lantegi ezagunaren bulegoak izandako zatia, eta orain, ingurua txukundu egingo dute behar bezalako biribilgunea egin ahal izateko. Era berean, zutik geratu den eraikinaren zatia berritu egingo dute merkataritzara bideratzeko

**Mirari Altube** ARETXABALETA
Abuztuaren 23an hasi ziren botatzen Azbe lantegiko bulegoak zeuden eraikina, eta eraiste lanak ezusteko barik egin dituzte: "Esandako egunean bertan bota zuten oraingoan, eta ez da egon inolako arazorik", adierazi du Unai Elkoro alkateak. Bertan utzitako obra-hondakinak jaso, eta ingurua gertatuko dute behar bezalako biribilgunea egiteko –autobusak eta kamioiak ondo pasatu ahal izateko–; aparkaleku batzuk eta lorategitxo bat ere egokituko dute inguru hartan.

Hori guztia egiten hasi aurretik, baina, Udalak eskuratu egin behar ditu lur horiek, eta gero, Foru Aldundiari lagako dizkio –haren ardura izango da obra–. Hori horrela, lanok ez dituzte urtea bukatu aurretik hasiko. Hain zuzen, datozen egunetan emango dutela lan horien nondik norakoen berri adierazi dute Foru Aldundiko ordezkariek.

**Eraikinaren egitura berritu**
Bota ez duten eraikin zatia –zerradun teilatua duena hain zuzen– berritu egingo dute: "Zaharberritze lantxo batzuk egingo dituzte egituran, ondoren Eroskik denda egokitu ahal izateko han", dio Elkorok, eta gaineratu du: "Hor dagoen arazoa da lurzoruaren kutsadura. Lurrak mugitzen hasteko derrigorrez behar dute baimena, eta aspalditxoan daude horren zain". Hori da, hain zuzen, lanok hainbeste atzeratu izanaren arrazoi nagusienetakoa.

Obrak aurrera egin ahala Urkulura bideko espaloia ere zabalduko dute, eta aparkalekuak egokitu. Denda egin ahal izateko, gainera, aparkalekuak derrigor bermatu behar dituzte.

## Deba ibai alboko lanak, hastear

Herrian beste lan batzuk ere egingo dituzte datozen hilabeteotan. Irailean bertan hasiko dituzte Deba ibaiaren ertzeko pasealekuko obrak. Construcciones Legasko SL enpresari esleitu zizkion Udalak, eta hilaren 17rako makinak bertan izango direla jakinarazi diote alkateari. Pasealekua Markole auzoraino luzatzea da helburua; hain zuzen ere, 62 metroko luzera du egiteko dagoen tarteak. Eta pasealekua luzatzearekin batera, aireko argindar sarearen lurperatze lanak ere bukatuko dituzte. 187.619 eurotan esleitu zituzten lan horiek eta Foru Aldundiaren diru laguntza jaso du Udalak. Lau hilabetetan eginda izango dute, ondo bidean.

Irisgarritasun lan batzuk ere egin gura dituzte hainbat kaletan. Gaia egunotan jarriko dutela mahai gainean adierazi du Elkorok.

# Irailaren 17an ekingo diete Ibarra kiroldegiko jarduerei

Dagoeneko iritsi dira 600 erabiltzailera eta gehiago izango direlakoan daude; iaz, %30 egin zuen gora

**M.A.** ARETXABALETA
Irailarekin batera erabiltzaile kopuruak gora egin du Ibarra kiroldegian. Jarduerak oraindik ez dituzte hasi, baina izen-emate epea zabalik dago –oraindik bete gabe dauden taldeetan–. "Arrakasta duten jarduerak, ohikoak direnak, dagoeneko beteta ditugu; TRX, spinninga, eta xunba, esaterako", dio jardueren ardura duen Iñaki Olaetxeak, eta gaineratu du: "Aurten, berri batzuk ere antolatu ditugu, eta horietan oraindik badago lekua. Irailean probatzeko aukera eskainiko dugu; hortaz, gerturatu ezagutzera".

Jarduera berriak hiru dira: hiit & pilatesa –intentsitate handiko ariketak eta pilates–; piloxinga –musika, pilatesa eta boxeoa–; eta core & stretchinga –indarra eta luzaketak–. Guztiak izango dituzte abian irailean eta taldea osatu ezean erabakiko dute zer egin hilabete bukaeran.

**Erabiltzaileak, gora eta gora**
Asier Mujika Kirol teknikariak adierazi duenez, erabiltzaile kopurua gora doa azken urteotan: "Iazko ikasturtean %30 egin zuen gora aurrekoarekin alderatuta. Aurten, dagoeneko 600era iritsi gara eta jarduerak hasterako hori baino gehiago izango direlakoan gaude", eta gaineratu du: "Datuak esku artean, txiki geratzen ere hasi zaigu kiroldegia une batzuetan".

**07:00etatik zabalik**
Irailarekin batera ohiko ordutegira itzuli da kiroldegia: astelehenetik egubakoitzera egun osoz (07:00-21:30); zapatuetan goizez (08:30-14:00) eta arratsaldez (16:00-20:00); eta domeketan goizez bakarrik (09:00-14:00).

## Mugikortasun Astea

Irailaren 16tik 22ra Europako Mugikortasun Astearekin bat egingo du Udalak eta hainbat ekintza antolatuko ditu ordurako; besteak beste, Skate Festa, bigarren eskuko bizikleta azoka, ibilgailu elektrikoen erakustaldia eta ibilaldi osasungarria.

GORA ETA BEHERA



M.A.

## Zaborra lorategian utzi dute

Zabor-poltsa bat eta ontzi bat agertu dira Belorrieta inguruko lorategi batean. "Deskuidatuta utziko zituen baten batek? Bertan daude, ba, edukiontziak…", adierazi du herritar batek kezkatuta.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

# Magiarekin gozatzen dabiltza herritarrak

Magia Astea antolatu du Kultura Sailak, bigarrenez, eta eguaztenaz geroztik ekitaldi mordoa eskaini dituzte herriko hainbat txokotan lau magok: Marsel-ek, Eriz-ek, Ameli-k eta Tor-ek. Gaurtik domekara bitartean, ostera, hiru ikuskizun izango dira Arkupen

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Magiarekin gozatzeko helburuarekin eta, era berean, zaletasuna sortzeko asmoarekin antolatu du Kultura Sailak bigarren aldiz Magia Astea. Adinari erreparatu barik edozein herritarrendako ekitaldiak dabiltza eskaintzen eguaztenaz geroztik entzute handiko lau mago: Marsel, Eriz, Ameli eta Tor.

**Magiarako zaletasuna pizten**

"Abestaldeak eta musika taldeak, dantzariak eta antzerkiarekin lanean dabiltzanak ere baditugu herrian, baina zerbait falta zitzaigun… magia. Nik neuk, gainera, oso gustuko dut magiaren mundua", dio Joxe Migel Uribarrenek, Kultura zinegotziak. Lehenengoz antolatutako Magia Asteak izandako arrakastaren ostean etorri da bigarrena, euskal magoak nagusi direla: "Sasoi batean telebistan ikusten genituen magoek gazteleraz edo ingelesez egiten zuten, baina orain badiiugu mago euskaldunak. Hortaz, ea zaletasuna pizten den gurean ere, eta mago entzutetsuren bat sortzen dugun…". Zinegotziak berak ez du baztertzen urte osoko tailerrak antolatzea.

**Hiru ikuskizun aste bukaeran**

Hiru mago euskaldun, zein baino zein ezagunagoak, Marsel, Eriz eta Tor, eta Ameli madrildarra, ikuskizun dotoreak eskaintzen dabiltza. Hain zuzen, Tor magoa iazko ekimenean ere izan zen eta herritarrek egindako harrera beroa du gogoan.

Eguaztenean zaharren egoitzan izan ziren, eta kalean ere jardun zuten. Gaur, egubakoitza, 11 eta 14 urte arteko gazteei magia zer den erakusten izango dira Marsel eta Eriz, eta gauean (22:00) ikuskizuna eskainiko du Erizek, Arkupen. Beste bi saio ere izango dira Arkupen: bihar, zapatua, Tor magoarena (19:00) eta etzi, domeka, Marselena (19:00).



Tor magoa umeen artean magia egiten eguaztenean. MIRARI ALTUBE

## "Magia zuzenean ikustea edonork du gustuko, baita euskaldunok ere"

**AITOR BILBAO** TOR MAGOA

Algortako magoak hogei urte daramatza magiaren bueltan.

**Arkupeko oholtza gainean izango zara bihar; zer eskainiko duzu?**

Magia parte-hartzailea egitea dut gustuko eta helduak zein umeak gonbidatuko ditut nirekin batera magia egitera. Eta, zelan ez, ondo pasatzea da helburua.

**Publiko zabalarendako magia egiten duzu; zein da publikorik zailena?**

Magia unibertsala da, baina hori aurkezteko hizkuntza moldatu egin behar da egoeraren arabera. Zailenak? Umeak, batzuetan; izan ere, ez dute gezurrik esaten eta aspertuz gero alde egiten dute. Eta hori da gerta daitekeen okerrena, publiko barik geratzea.

**Euskaldunok badugu magiarako zaletasunik?**



M.A.

Bai, bai. Hotzak garela diote, baina ez da horrela, magia zuzenean ikustea edonork du gustuko.

**Eta zeuri noiz sortu zitzaizun zaletasuna?**

Aitaita oso kuxkuxeroa nuen eta kartekin asko jolasten zen; harekin sortu zitzaidan harra. 15 bat urterekin magia liburua eskatu nion amari eta halaxe hasi nintzen; guztiz autodidakta naiz. Gero, beste mago batzuk ezagutu nituen eta Bilboko magoen elkartean sartu nintzen.

# Agorreko Andramaixak ospatuko dituzte Areantzan

Gaurtik domekara bitartean ekitaldi mordoa izango dira; besteak beste, auzo afaria, ginkana eta jolasak

**M.A.** ARETXABALETA

Gaur, irailak 7, hasi eta domeka eguerdira bitartean Agorreko Andramaixak ospatuko dituzte Areantza auzoan. Kanpai eskolakoek eskainitako kanpai-joaldien ondoren (20:00), tantaia jasoko dute eta auzoko pertsonaia Martin Kabarrixa ekarri. Ondoren, auzo-afaria izango dute eta afalostean kantuan eta dantzan egingo dute elkartutakoek.

**29. ginkana eta auzoko jolasak**

Zapatua hasteko txistularien doinuak izango dituzte (10:30), eta meza gero, (12:00) Basotxoko taldearekin. Bukatutakoan, auzoko jakiekin –Elizondoko txorizoa eta Mitarteko tortilla– osatutako mokadutxoa eskainiko dute, trikitilariek girotuta. 29. ginkana jokatuko dute gero (13:30) eta arratsaldean, Areantzako jolasak izango dituzte (17:45).



Martin Kabarrixa auzoratzen. J. ABASOLO

Domekan, Kurtzebarri mendiko egunarekin bat egingo dute; 09:30ean, Iturriko erromaratik irtenda joango dira. Eta tontorrean auzotarren argazkia aterako dute, urtero lez. Jaiak bukatuko dituzte Martin Kabarrixa etxeratuta (14:00).

## Beinke Loramendi dantza entseguak datorren astetik

Irailaren 28tik 30era bitartean ospatuko dira San Migel jaiak aurten, eta Loramendi elkartea dagoeneko hasi da orduko kontuak gertatzen. Hala, datorren astean hasiko dituzte Beinke Loramendi dantza entseguak. Astean behin izango dira, martitzenetan –irailaren 11n, 18an eta 25ean–, 19:30ean, Kurtzebarri eskolako gimnasioan; hainbat lagunek gidatuko dituzte saio horiek. Entsegu orokorra, ostera, irailaren 27an, eguena, egingo dute, Herriko Plazan, txistulariek lagun eginda.

Entseguetan parte hartzeko ez dagoela izenik eman beharrik adierazi dute elkarteko kideek, dantzan egiteko gogotsu agertzea nahikoa da. Hona hemen herritarrei helarazi gura izan dieten mezua: "Badatoz San Migelak! Hortaz, animatu eta gerturatu Beinke Loramendi dantza entseguetara!"

## Kurtzebarriko eguna domekan, gurutzeak aurten 90 urte beteta

Kurtzebarri mendiko eguna ospatuko dute, ohi legez iraileko bigarren domekan, Murrukixo Mendizale Elkarteko kideek. Hain zuzen, aurten 90 urte bete dira han gurutzea jarri zutela. Tontorrean elkartuko diren mendizaleei, salda, txorizo muturra eta xanpaina eskainiko diete 10:30etik aurrera –mezarik ez da izango–.

Mobiliario Arenaza
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Mojen komentua Aretxarteko merkatarien postuekin beteta, iaz. IMANOL SORIANO

# Ixadebalde gaur eta bihar mauka handiekin

Irailarekin batera, merkealdien azoka egingo du Aretxarte merkatarien elkarteak; sei postu izango dira eta udaberriko eta udako generoa eskainiko diete herritarrei beherapen handiekin. Horrez gain, egubakoitzetan hainbat ekitaldi egingo dituzte

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Aretxarte merkatarien elkarteak hamazazpigarrenez egingo du aste bukaeran merkealdien azoka. Azken aldietan lez, oraingo honetan ere mojen komentua izango da postuen topalekua. Gaur, egubakoitza, goizez (10:00-14:00) eta arratsaldez (16:30-20:30) zabalduko dituzte ateak, eta bihar, zapatua, goizez bakarrik (10:00-14:30).

**Sei merkatariren postuak**

Beste batzuetan baino merkatari gutxiago elkartuko dira oraingoan, eta guztiek eskainiko dute janzteko generoa; batzuek arropa eta beste batzuek oinetakoak. Hona hemen komentuan izango direnak: Asensio, Belar Meta, Haurrak, Kilima, Tak eta Titare. "Gutxiago izanda, erosoago egongo gara eta herritarrek gura beste leku izango dute lasai begiratzeko", adierazi dute antolatzaileek. Udaberriko eta udako kontuak izango dituzte, batez ere: "Merke-merke eta kalitate onenarekin, beti bezala".

Tak zapata dendako Vanessa Borregok denetik eroango duela dio: "Udako generoa bai, baina negu sasoikoa ere bai; gore-tex oinetakoak, esaterako. Motxilaren bat edo beste ere egongo da". Belar Metako Uxue Erañak azaldu du apaingarriak eta osagarriak ere eroango dituztela janztekoarekin batera: "Beherapenetan geratu diren arropak eta oinetakoak, baita bestelako kontuak ere: poltsak, edalontziak…". Merkatariekin batera UDAko ordezkariak ere izango dira mojen komentuan. Bazkideek 2018-2019 denboraldiko txartelak jaso ahal izango dituzte han.

Opariak ere izango dituzte bezeroek; 100 euroko bonua eta UDAko bi bazkidetza txartel zozketatuko dituzte.

**Egubakoitzak girotzen**

Aretxartek, gainera, irraileko egubakoitz arratsaldeak girotuko ditu, ekainean eta uztailean egindako moduan. Ipuin kontaketak, kontzertuak, umeendako jolasak eta tailerrak izango dira hainbat tabernaren inguruan.

## Ixadebalde azoka

Beherapenak eskaintzeaz gain, zozketak egingo dituzte bezeroen artean.

**Merkatariak**
- Asensio
- Belar Meta
- Haurrak
- Kilima
- Tak
- Titare

**Bestelakoak**
- UDA: bazkideek txartelak jasotzeko lekua.

**Zozketak**
- 100 euroko bonua.
- UDAko bi bazkide txartel

## Iraileko ekitaldiak

Taberna inguruetan ekintzak egingo dituzte.

**Irailak 7**
- Ipuin kontaketa: Gureako plazatxoan (17:30).

**Irailak 14**
- Umeendako jolasak: Eguzki parean (17:30).
- DJ baten kontzertua: Zaraia parean (23:00).

**Irailak 21**
- Buruarinen tailerra: Danona aurrean (17:00).
- Kontzertua: Txerrikumeak eta HKB. Orly aurrean (19:00).



MIRARI ALTUBE

## Denboraldia hasteko gertu

Denboraldi-aurreko azken partidua jokatu zuen eguaztenean Ohorezko Erregionaleko UDAko futbol taldeak Iru Bat taldearen aurka, eta 5-1 irabazi. Aste bukaeran hasiko duen denboraldia gertatzea helburu zuen partiduak, baita zaleen aurrean jokalariak aurkeztea ere. Izan ere, aurpegi asko dira berriak Sergio Santano gasteiztarrak gidatuko duen taldean; besteak beste, Mikel Lopetegi atezaina eta Ander Magunazelaia, Hugo Rodriguez, Jon Ander Burgos, Mikel Maiz, Yago de Paula eta Mikel Gavilan jokalariak.

## Judoa ezagutzeko aukera Desoreka klubari esker

Desoreka judo klubak ate irekien jardunaldia antolatu du gaurko, irailak 7, judoa ezagutzera emateko eta, era berean, arte martzial horrekin gozatzeko. Ilargi plazan izango dira arduradunak argibideak ematen; hona hemen ordutegia: 17:00etatik 18:00etara, 4 eta 5 urteko haurrak; 18:00etatik 19:00etara, 7 eta 8 urtekoak; eta 19:00etatik 20:00etara, 9 eta 12 urte artekoak. "Konpetentzia motorra eta zeharkako beste konpetentziak garatzeko aukera izaten dute judoarekin harremanak eta emozioak kontuan hartuta", diote.

Argibideak emateko hitzaldia ere egingo dute; irailaren 10ean, astelehena, Arkupen (18:00).

## OHARRAK

### Eskalada eskola, abian

Debagoieneko eskalada eskolakoek ate irekiak egingo dituzte Ibarra kiroldegian (18:00-19:00); hona egunak: 11, 13, 18 eta 20. Ikasturtea urrian hasiko dute.

### MTB martxa, 16an

Hirugarrenez antolatu du UDAk mendiko bizikleta martxa. Irailaren 16an egingo du (09:00) eta hiru ibilbide zehaztu ditu. Izena egunean bertan eman behar da.

### Antzerki tailerrak

Txaro Gallego Basarte aktore aretxabaletarrak antzerki tailerrak eskainiko ditu, urrian hasita. Izen-emate epea zabalik dago: 637 52 94 16.


Herritarrak, jaiak hasteko gogotsu, konfeti festaren ostean.


Umeak jolasean uretako puzgarrietan.


Udalbatzako kideak, dantzariak eta herritarrak ikurrina agurtzen.

# Herritarren parte-hartzea, Andramaixetako izarra

Udal ordezkariak eta Gazte Mugimenduko kideak pozik agertu dira jaietako giroarekin eta ekitaldiek izandako harrerarekin; kontzertuak, sokamuturra eta herri bazkaria nabarmendu dituzte batzuek, eta txosnagunea herritarren elkargune izatea besteek

**Mirari Altube** ARETXABALETA
Ikuskizunak, kontzertuak, tradizioari eusten dioten ekitaldiak eta beste kontu mordoa izan ziren abuztuaren erdian, Andramaixetan. Atzera begiratua eginda, bai udal ordezkariak, bai Gazte Mugimenduko kideak pozik agertu dira jaiok emandakoarekin.

"Gure balorazioa positiboa da; antolatutako ekitaldietan parte-hartze handia izan da eta nabarmentzeko istilurik ez da egon. Beraz, gustura gaude", adierazi dute Unai Elkoro alkateak eta Joxe Migel Uribarren Kultura zinegotziak, eta gaineratu: "Kontzertuak jendetsuak izan dira, sokamuturra ere oso arrakastatsua izan da eta haurrentzako bigantxek harrera ona izan dute. Eta, nola ez, hirugarren eguneko bazkaria aipatu behar: eguraldiak ez lagundu arren, plaza lepo bete zen beste urte batez".

Horrekin batera, nerabeen parte-hartzea nabarmendu dute: "Gazte ugari ibili dira; hortaz, etorkizuna bermatuta dago".

**KONTZERTUAK "ARRAKASTATSUAK" IZAN DIRA ETA TXOSNAGUNEKO GIROA, "APARTEKOA"**

Aparteko arazorik ez dela izan diote: "Kexak ohikoak, bereziki zaratagatik, iaz baino gutxiago".

**Gaztegunea, indartsu**

Gazte Mugimenduko kideak ere pozik dira txosnagunean izandako parte-hartzeagatik: "Beste urte batez, gazteon ilusio eta antolakuntzari esker, txosnagune berezi eta indartsua sortzea lortu dugu. Herritarron parte hartzea izugarria izan da: lanean, oholtza gainean zein ekintzekin gozatzen. Horri esker, txosnagunea herritarron elkargune berezi bat izatea lortu da eta lanerako ilusioz eta indarrez jarraitzen dugu".


Loramendi ikastolakoak –Zubillaga, Uribesalgo eta Gomez– txupina botatzeko gertu.


Gazte Eguneko bazkaria gertatzen txosnagunean.

BELARMETA
TAK
HAURRAK
TITARE
KILIMA
ASENSIO
ixabebalde
Aretxabaletako XVII. merkealdien azoka
MOJETAN
IRAILAK 7
10:00etatik 14:00etara
16:30etik 20:30era
IRAILAK 8
10:00etatik 14:30era
100€-tako bonu bat zozketatuko da eta UDA ko bi txartel
aretxarte
Aretxabaletako Udala



Andre Mariaren irudia aldean hartuta elizbira herrian.



Herriko pilotari gazteak Iturrigorri pilotalekuan, ikuskizun dotorea eskaini eta gero.



Draco taldearen ikuskizuna suarekin eta argiekin.



Gazteak, txosnagunean, *flashmob*-a egiten.

## GAZTEEK DEITUTAKO 'FLASHMOBA'-K IKUSMINA SORTU ZUEN TXOSNAGUNEAN

## MALEN ANTXIAK ETA UNAX URKIAK EGIN ZIETEN HARRERA NESKA-MUTIKOEI UDALETXETIK



Urkia eta Antxia alkate txikiak pregoia irakurtzen Umeen Egunean.



Txirrindulari gaztetxoak bizkor, Bizikleta Festan.



Zezen mekaniko gainean eutsi nahian.



Gaztetxoa, saltoka, gustura.



Aretxabaletako Udala

## KIROLEI ERE EGIN ZIETEN LEKUA JAIETAN: PILOTA ETA TXIRRINDULARITZA IZAN ZIREN IZARRAK

## UMEENDAKO BIGANTXENGANA ETA SOKAMUTURRERA HERRITAR ASKO GERTURATU ZEN


Herriko kuadrilla gaztetxo bat paella jaten plazako arkupeetan.


Zezentxoa hesia bota nahian Durana kalean.


Kuadrillak jolasean Herriko Plazan, bazkaldu ondoren.


Zopilotes Tributaus talde aretxabaletarra kantuan txosnagunean. ARGAZKIAK: AITOR AGIRIANO, GAZTE MUGIMENDUA ETA UDA.

## EGURALDI ESKASAK EZ ZUEN ZAPUZTU PAELLA-JANA, EZTA KUADRILLEN ARTEKO JOKOAK ERE

## ZOPILOTES TRIBUTAUS TALDEAK DANTZAN JARRI ZUEN TXOSNAGUNEAN BATUTAKO JENDETZA






## Udal Batzordearen agurra

Udari amaiera eman aurretik
beti gorena Debagoienean
goienak: Gora Andramaixak!

Beste urte bat menpe,
baina bat gutxiago izateko
libre: behingoz ALTSA,
behin betiko SU eman
eta bizitzeko ASKE,
ospa egin dutela ospatzeko
tenore –zuekin gaude!–
eta, ostera, behar ditugunak
gure artean: ohore!
Laztan sorta bat Alizia!

Amaitzera doa gure
agintaldia: gaizki eginak
barkatu eta ondo eginak
gogoan hartu, milesker
herritarroi; beti izan
zaituztegu prest eta gertu.
Gure laguntza osoa
hurrengoei, bata-eta zer egin
eta non eragin: indartzen
baliabideak, ehiza, baso,
ostatu eta museo jarduerak;
garatzen gazkintza, gatz
ekoizpena eta salmentak;
asetzen gatzagarren gaurko
beharrak eta aurreikusten
bihar eta etzikoak;
indartzen herri sena,
herritarrak betiere
protagonista, antolatuz
kirol
eta kultur ekitaldiak,
gauzatuz hondakinak
bereizteko xedia,
abiatuz Gazitzen Elkartia,
landuz Gatz Bidia
eta loratuz Euskaraldia,
hartara errotu dadin betiko
oso-osorik geuria!

Ondo pasau eta zoriontsu
jaixetan,baita gainerako
egunetan ere:
GATZA GAra!



# EGITARAUA

## IRAILAK 7
### EGUBAKOITZA

**17:30** Etxafuegoak eta bonba japoniarrak.

**18:00** Apar festa.

**19:00** Buruhandiak.

**09:00** Bederatziurreneko meza Dorletan, Eskoriatzako abesbatzarekin.

**Ondoren** Gazta, ogia eta ardoa.

**21:00** Bolatokiaren irekiera.

**22:00** Rock kontzertuak: Brigade Loco, Criminal Remains, Azken Sustraiak eta Crim.

**23:00** Bolo txapelketa.

## IRAILAK 8
### ZAPATUA

**10:00** Gatza Bidien gora ibilaldia, Eskoriatzako plazatik hasita.

**11:30** Otxandiotik eta Gatz Bidetik oinez etorritakoei ongietorria. Salda eta pintxoak egongo dira plazan.

**11:30** Kirol Egokituen Federazioaren erronka-jolasa.

**12:00** Meza nagusia Dorletan, Eskoriatzako abesbatzarekin.

**13:00** Trakamatraka Ikuskizuna. Tailer sortzailea.

**13:30** Kantu poteoa.

**14:30** Paella erraldoia plazan. Bazkalostean, Nafarroa kantu taldearekin kantu herrikoiak. Txartelak salgai Labidean: 5 euro.

**16:00** Puzgarriak eta jolas parkea, frontoian.

**17:00** Mus eta briska txapelketak, Toki Eder elkartean.

**18:00** Kintoen arteko jolasak, Otxandioko lagunekin batera.

**21:30** Herri afaria.

**22:30** Ezetz! Erromeria taldearekin dantzaldia.




**Iaz, jaietako herri afarian.** GOIENA

## IRAILAK 9
### DOMEKA

**11:00** Haur eta gaztetxoendako bolo txapelketa.

**12:00** Herri kirolak.

**13:30** Bertso-poteoa. Asier Iriondo eta Asier Otamendi bertsolariekin.

**17:30** Oztopo trialsin taldearen erakustaldia.

**19:00** The Potes taldearen kontzertua.



# Rock taldeen aldeko apustua Andramaixetan

Brigade Loco, Criminal Remains, Azken Sustraiak eta Crim taldeak izango dira oholtza gainean gaur, 22:00etatik aurrera. Zapatuan, bestalde, Ezetz! erromeria taldearekin dantzaldia izango da eta domekan, The Potes taldea

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Gatza City Crew Leintz Gatzagako gazte taldeak antolatuta, rock kontzertuak izango dira gaur, egubakoitza, 22:00etatik aurrera. Brigade Loco talde bergararra, Aretxabaletako eta Gatzagako musikariek osatutako Criminal Remains taldea, Azken Sustraiak talde beasaindarra eta Crim talde katalunniarra igoko dira oholtzara.

Azken urteotan ekarri dituzten moduan, guztiak punk-rock eta punk-oi! taldeak izango dira, eta kanpotik ere jendea gerturatuko delakoan daude antolatzaileak. Honela adierazi du Beñat Agirreurretak, Gatza City Crew taldeko kideak: "Beti saiatzen gara antzeko estiloko taldeak ekartzen. Gatzagako gazteen artean eta ingurukoen artean gustukoak izaten dira, eta jaiei hasiera ederra emateko jende dezente batuko delakoan gaude".



Criminal Remains taldea, Gatzagan eskainitako kontzertuan. GOIENA

### Agirreurretaren azken saioa

Criminal Remains taldeko musikaria da Beñat Agirreurreta, eta taldea uztea erabaki du. "Taldeak jarraitu egingo duen arren, nire azkeneko emanaldia izango da, eta Leintz Gatzagako jaietan, non bestela, erabaki dut azkeneko kontzertua eskaintzea".

### Kataluniarren apustua

Antolakuntzak Crim talde kataluniarra ekartzeko saiakera handia egin duela adierazi du Agirreurretak, eta taldekoak ere portatu direla gaineratu du. "Ez da erraza Kataluniatik Gatzagara talde bat ekartzea, duen kostuagatik... baina mereziko duelakoan gaude. Crim taldekoek beraien partetik asko jarri dute, eta hori eskertzekoa da. Hori horrela, rock kontzertuen gauera gonbidapena egin nahi dugu, emanaldi bikainak izango direlako...".

### Hainbat estilotako taldeak

Rock kontzertuez gain, beste estilo batzuetako taldeak ere izango dira Andramaixetan. Zapatuan, Ezetz! erromeria taldearekin dantzaldia izango da eta domekan, The Potes taldea izango da oholtza gainean.

**GATZA CITY CREW GAZTE TALDEAK ANTOLATUTA, ROCKA IZANGO DA NAGUSI ANDRAMAIXETAN**

## Objektu birziklatuekin egindako saioa

*Trakamatraka* haur ikuskizuna zapatuan izango da, 13:00etan. Material birziklatuarekin kontzertu didaktikoa eskainiko dute.

**Musika eta ingurumena**

Tailer eta kontzertu bidez, musika modu erakargarrian hurreratuko diete entzuleei eta, aldi berean, birziklatzekontzientzia landuko dute.



Argazkioinaxxx. ARGAZKIJABEAXXX

# Eskoriatzatik eta Otxandiotik oinez Gatzagako jaietara

11:30ean, bi herrietako lagunei harrera egin ostean, Kirol Egokituen Federazioaren erronka-jolasa izango da

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Mende askotako ohiturari jarraituz, Nafarroatik, Leintz bailaratik, Arabatik, Bizkaitik eta Otxandiotik, urtero, irailaren 8an, Dorletako Amaren egunean, oinezko erromesak joan izan dira Dorletako Santutegiraino. Otxandiok eta Leintz Gatzagak azkenengo mendeetan hartu-eman berezia mantendu dute urtero-urtero, etenik gabe, eta aurten, Eskoriatzatik ere hainbat lagun batzea eta Gatzagara Gatz Bidia eginaz igotzea da asmoa.

### Gatz Bidia ezagutzeko asmotan

Leintz Lotzen ekimeneko kideek sustatuta, Eskoriatzako plazatik 10:00etan abiatuko dira hainbat lagun Gatz Bidia eginaz –PR 100–. Asmoa PR-100 bidearen konponketa aldarrikatzea izango da, ezagutzen ez dutenek bide hori ezagutzea eta erakundeei eskatzea Eskoriatzatik Gatzagara, oinez, errepidea zapaldu gabe joan ahal izatea. Honela adierazi du Dorleta Elkorobarrutiak, Leintz Lotzen ekimeneko kideak: "Erlazio ona izan dugu beti eskoriatzarrekin, Otxandiokoekin moduan. Hala ere, errepidetik ez bada, ezin dira gaur egun Gatzagaraino igo, eta Gatz Bidia errekuperatzeko eta behar bezala jartzeko antolatu dugu ekimen hau. Hala, 4 edo 5 pertsona gidari moduan irtengo dira Eskoriatzatik, ezagutzen ez dutenei bidea erakusteko. Horretarako, auzolanean ahal izan dugun neurrian bidea ondo utzi ostean, ordu eta erdiko bide ederraz disfrutatzeko aukera izango dute animatzen direnek".

11:30 aldera iritsiko dira Eskoriatzatik zein Otxandiotik irtengo direnak, eta ordu horretan harrera egingo zaie Gatzagako plazan; salda eta pintxoak jarriko dizkiete gatzagarrek, ongietorria egiteko.

### Sentsibilizazio jolasak

Kirol Egokituen Federazioaren erronka-jolasa izango da mokadutxoa jan ostean. Urritasunen bat daukan jendearen azalean jartzeko sentsibilizazio jolasak egingo dira, talde erronka batzuk gainditzuz egin beharko direnak. Hala, Eskoriatzatik doazenek hausnarketa horren beroketa lanak ere ibilbidean zehar egingo dituztela adierazi dute antolatzaileek.

### Festak elkarrekin disfrutatuz

Bazkaritarako paella-jana izango da, eta bertan geratzeko gonbidapena ere egingo diete gatzagarrek bertaratzen direnei. Arratsaldean, bestalde, kintoen arteko jolasetan ere hartuko dute parte Otxandiokoek. Azken urteetan arrakasta izan duen ekintza da, eta aurten ere aurreko urtetakoa edo hobea izatea da asmoa. Dantzarien arteko desafioa ere izango dute, aurresku eta ezpata dantza lehiaketa egingo baitute. Honekin batera, hainbat euskal joko egingo dituzte, eta ilundu aurretik erromesak agurtuko dituzte txalo zaparrada artean.



Puntaik Punta jaialdira Gatz Bidea eginaz jaitsi zirenak –PR-100–. GOIENA



Iazko jaietan, Maite Ariztegi eta Irune Izkue izan ziren aizkoran erakustaldia egiten. GOIENA

# Herri kirol mistoen erakustaldia domekan

Domekan, 12:00etan hasita, aizkoran, Irati Astondoa eta Fausto Mugerza arituko dira eta harria jasotzen, berriz, Joseba eta Joana Ostolaza aita-alabak. Herri kirol erakustaldi horiez gain, egubakoitzean bolo txapelketa izango da, 23:00etan

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Domekan, eguerdiko hamabietan hasita, urtero hutsik egiten ez duten herri kirolak izango dituzte ikusgai gatzagarrek eta bertaratzen diren guztiek. Aurten ere, iaz moduan, kirolari mistoen aldeko apustua egin dute, eta hauek izango dira erakustaldia egingo dutenak: aizkoran, Irati Astondoa eta Fausto Mugerza arituko dira eta harria jasotzen, berriz, Joseba eta Joana Ostolaza aita-alabak. Zeanuriko eta Mutrikuko aizkolariek hainbat enbor ebakiko dituzte, ikusleen gozamenerako, eta Orioko aita-alabek hainbat jasoaldi egingo dituzte harri ezberdinekin.

Agustin Arruti harri-jasotzaileak jardungo du hizlari, giroa jartze aldera, eta gatzagarrek ez dute hutsik egingo; izan ere, aurreko urteetan ere ikuslez bete izan da herriko plaza.

**Emakumeen presentzia, gora**

Bola-jokoa ere ez da faltako, urtero moduan, Leintz Gatzagan. Egubakoitzean gaueko hamaiketan hasiko dira euren abilezia erakutsi nahi dutenak jokoan, eta sari ederrak izango dira, gainera. Aurten, emakumeen parte-hartzea sustatu nahi izan dute antolatzaileek, eta herriko hainbat emakumek bola-joko saioak eskatu dituzte, txapelketa aurretik praktikatzeko. Hain zuzen ere, honela adierazi du Juanito Bengoa alkateak: "Aspaldiko ohitura dugu bolo txapelketa Leintz Gatzagan. Astean, haurrekin batera aritu gara pixka bat irakasten, eta jolasten, eta baita txapelketara animatuko diren emakume batzuekin ere. Hori horrela, beste urte batzuetan moduan, 30 gizonezko inguru izango direla aurreikusten dugu, eta emakumezkoei dagokienez, berriz, zazpik edo zortzik esan digute parte hartu nahi dutela. Ea hamarrera iristen garen. Hori horrela, saio arrakastatsua izatea gura dugu, eta zorterik onena eman parte hartzen duten guztiei".

# "Kirol hau ezagutzera emateko egingo dugu erakustaldia"

**AITOR MURUA** PILOTUA

Oztopo Trialsin taldekoak domekan izango dira Gatzagan

**I.B** LEINTZ GATZAGA

Aretxabaletako Oztopo Trialsin taldeko kideek erakustaldia egingo dute domekan, arratsaldeko bost eta erdietan, Gatzagan. Taldean 5 urtetik 12 urtera bitarteko gazteak daude, eta horien entrenatzaile Aitor Murua pilotuaren gidaritzapean, bizikleta gainean jauzi ikusgarriak ikusteko aukera izango da.



Aitor Murua pilotua. GOIENA

**Oztopo Trialsin talde gaztea eta berria da, ezta?**

Urte hasiera aldera sortu genuen taldea, eta gaur egun, 15 pilotu inguru gaude. Zapatu goizetan entrenatzen gara.

**Zer-nolako erakustaldia egingo duzue?**

Ordubete inguruko saioa izango da. Udalak palet batzuk utziko dizkigu, eta guk zirkuitu bat prestatuko dugu. Horrez gain, naturako elementuak ere aprobetxatuko ditugu, eta baita Gatzagan dauden eskailera eta jauziak egiteko lekuak.

**Gatzagan izango zareten lehen aldia, beraz?**

Ni 2015ean izan nintzen saio bat eskaintzen Leintz Gatzagan, baina talde moduan joango garen lehen aldia izango da. Erakustaldiena, gainera, gauza berria da. Entrenatzen ditudan hainbat aritzen dira txapelketetan, baina bi erakustaldi bakarrik egin ditugu: Zerrajerako jaietan, Arrasaten, eta Aretxabaletan, Kirolez Busti ekimenaren barruan. Hori horrela, Gatzagako jaietan, hirugarrena egingo dugu.

**Zein helbururekin joango zarete?**

Kirol hau ezagutzera emateko asmoz joango gara. Egiten dugunaz disfrutatzeaz gain, taldekideak ezagutarazteko ere modu ederra da, eta ea erakustaldira gerturatzen direnei gustatzen zaien saioa.

**Zelan joan dira orain arteko erakustaldiak?**

Ikusgarria izan behar du, eta halakoa egiten saiatzen gara. Hamar urte inguruko haurrek egiten dituzten jauzi ikusgarriek txunditzen dituzte, batik bat, bertaratzen direnak, eta harrera ona izaten dugu.

**Taldea, beraz, egoera onean dago?**

Guztira, ez dakit zenbat pilotu joango garen erakustaldira; izan ere, hainbat oporretan daude oraindik. Ea ahalik eta gehien batzen garen. Horrez gain, taldea ondo dago, eta trialsina ezagutu edo praktikatu nahi duen edonorentzat ateak zabalik ditugu.



# Euskaraldia iristear dela, Euskararen Soka Elgetan

Goibeko Euskaltzaleen Topaguneak irailaren 15erako iragarri du Euskaltzaleen Eguna. Bazkarirako txartelak salgai daude eta antolatzaileek aurreratu dute eskutik eskura iritsiko den uztaiak Euskaraldiarekin lotutako mezua ekarriko duela aurten

**Larraitz Zeberio** ELGETA

Elgetako beste eragile ugarirekin batera Euskaraldia batzordean dihardu buru-belarri Elgetako Goibeko Euskaltzaleen Topaguneak. Hain zuzen ere, hilaren 15erako antolatu duten Euskaltzaleen Egunak azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean Euskal Herri mailan egingo den ekimena izango du ardatz.

Elgetako hamaikakoak protagonismo berezia hartuko du Euskararen Sokan, eta eskutik eskura Mendizaleen Plaza erdiraino iritsiko den uztaiak Euskaraldiarekin lotutako mezua ekarriko du aurten. "Garrantzi berezia eman gura diogu Euskaraldiari. Horretara bideratuko dugu Euskaltzaleen Eguna", esan dute. Euskaraldiako materiala salgai egongo da plazan goizean goizetik.

Egun osoko egitaraua antolatu dute hilaren 15erako. Neska-mutikoendako puzgarriak 11:00etatik 12:30era eta 15:30etik 17:00etara egongo dira zabalik. Euskararen Soka 12:30erako iragarri dute, eta egunean zehar Arrasateko gaiteroen esna deia, larrain dantza, trikitilarien eta buruhandien kalejira, Elgetako euskaltzaleen bazkaria, bazkalosteko euskal kantuen saioa eta Drindots taldearen erromeria izango dira. Taberna ere egongo da plazan, egun osoan.



Elgetarrak, duela bi urteko Euskararen Sokan uztaia eskutik eskura pasatzen. L.Z.

**EUSKALTZALEEN BAZKARIRAKO TXARTELAK SALGAI DAUDE DAGOENEKO 16 ETA 8 EUROTAN**

**Bazkaria, Kalitatea-ren eskutik**

Baserriko txerri saiheskia erreko dute aurten brasan Kalitateako kideek. Nagusien menua osatzeko, entsalada, Gernikako piperrak, Eceiza pastak, kafea eta ura izango dira. Txartelak salgai daude, hamasei euroko prezioan, Julian Markiegiren kioskoan. Umeen bazkarirako, oilasko izterra, izozkia eta ura daude. Txartelak salgai daude, zortzi eurotan, El Rincon de Lola tabernan.

Aste bukaera honetan hasiko dira Goibekoko kideak soka zatiak banatzen. Herri Eskolara ere eramango dituzte. Izan ere, helburua da herritarrik ez gelditzea barik.

## Euskaraldia girotzeko ekintza sorta

Elgetako Euskaraldia batzordea martitzenean elkartu zen eta hainbat dira iragarrita dauden ekintzak. Horiek diruz laguntzeko zozketa antolatu dute herriko merkatari gehienen parte hartzearekin. Hamaika sari banatzea da erronka eta txartelak euro batean salduko dira. Bestalde, *ahobizi* zein *belarriprest* moduan izena emateko kanpaina hilaren 20an zabalduko da, eta herritarrak Euskaraldiaren garrantziaz jabetzeko bi hitzaldi antolatu dituzte. Kike Amonarrizek *Euskara bidegurutzean Elgetan ere* izeneko aurkezpena egingo du irailaren 18an eta Xabier Payak *Ama no habla euskara,* urriaren 9an. Bi hitzaldiak 19:30ean izango dira, udaletxean. Euskaraldia batzordea hilaren 17an elkartuko da berriz, 20:00etan, Ozkarbi elkartean.

## 'Gure Zirkua' laster Elgetan

*Troupe* euskalduna hileko azken aste bukaeran izango da herrian. Bost emanaldi egingo dituzte, eta martxa bizian doa sarreren salmenta; 700 saldu dira dagoeneko. Erosteko bide bakarra *Ticketea.com* ataria da. Prezioa 12 euro da.

# 129 neska-mutiko hartuko ditu ikasturte berrian Herri Eskolak

Gehienek gaur, barikua, hasiko dituzte eskolak eta goizeko zaintza zerbitzua astelehenean zabalduko da

**L.Z.** ELGETA

Gaur ekingo diote 2018-2019 ikasturteari Elgetako Herri Eskolan. Zuzendaritzak emandako datuen arabera, ikastetxeak 129 ikasle izango ditu aurten. "Haur Hezkuntzan lau gela egongo dira eta Lehen Hezkuntzan, bost", azaldu dute. Aspaldiko talderik handiena ere hartuko du aurten ikastetxeak. "2 urteko gelan hogei ikasle egongo dira, bi irakaslerekin". Ikastetxeko irakasle taldea hamazazpi lagunek osatuko dute.

Lehenengo lau eskola egunetan jardunaldi trinkoa izango dute ikasleek. "Haur Hezkuntzakoak 12:30ean irtengo dira eta Lehen Hezkuntzakoak, 13:00etan. Jantoki zerbitzuko erabiltzaileak 14:30ean irtengo dira".

Aurreikusita dago ikasturte honetan ere goizeko zaintza zerbitzua egotea. Maala Guraso elkarteak antolatzen du eta astelehenean abiaraziko dute. Hasiera batean, 08:00etatik 09:00etara emango dute zerbitzua. Interesatuek *elgetakogurasoelkartea@gmail.com* helbidera idatzi behar dute.

**Haurreskola ere martxan**

Atzo eman zioten hasiera egokitzapenari haurreskolan. 1-2 urte arteko lau erabiltzaile daude, oraingoz, eta bi hezitzaile. Zerbitzua, hasiera batean, 08:45etik 16:30era eskainiko dute. Arduradunek jakinarazi dute izena emateko epea zabalik dela, plaza libreak daudelako oraindik.

**Ludoteka zerbitzua, zabaltzear**

Udal ludotekak, berriz, hilaren 12an zabalduko ditu ateak. 16:00etatik 19:00etara eskainiko du zerbitzua. Interesatuek udaletxean eman behar dute izena.

## Bihar, bisita antzeztua

Erdi Aroko Elgeta zelakoa zen ezagutzera emateko antzeztutako bisita gidatua egingo dute bihar, zapatua, Elgetan. Herritar talde baten eskutik antzinako Elgetaren egitura, lanbideak eta pertsonaiak ezagutzeko aukera izango da. Kontakizun gidatua 12:00etan abiatuko da, Mendizaleen Plazatik. Bisita gidatuak ordubete inguru iraungo du.



L.Z.

OHARRAK

### Ikasturte hasiera musika gelan

Ordutegi berriak zehazteko, Lorea Larrañaga musika irakasleak jakinarazi du musika gelan izango dela gaur, barikua, 16:00etatik 19:00etara. Interesatuek bertaratu besterik ez dute.

### Karim magoa Espaloia kafe antzokian

Irailaren 21ean, 22:30ean, magia ikuskizuna izango da Espaloiko kudeatzaile berriek antolatuta. Sarrerak salgai daude El Rincon de Lolan eta Maialden. Prezioa 10 euro da.

### Pilota txapelketarako izen-ematea udaletxean

Hilaren 20ra bitartean zabalik da herri mailako 4 t'erdiko pilota txapelketan izena emateko epea. Hiru kategoria daude.

# Ikasturte berriarekin liburutegia ere martxan

Herriko udal gimnasioa egokitu egin dute liburutegi bilakatzeko; Oinarin dantza taldeak ere bertan entseatzeko lokala izango du. Bai liburutegi zerbitzua eta baita dantza entseguak ere irraileko bigarren hamabostalditik aurrera abian izango dira

**G.A. / M.A.** ANTZUOLA

Eguzki auzoko udal gimnasioa oraingoz hutsik dagoela aprobetxatuta, Udalak bertan egokitu du behin-behineko liburutegia. Ikasturte berrirako prest izatea espero dute. "Asmoa da irailaren 15erako liburutegia herritarrei zabaltzea", azaldu du Beñardo Kortabarria alkateak.

Datorren urteko udaberri edo uda ingurura arte egongo da liburutegia gimnasioan. "Tarte baterako irtenbidea da eta datorren uda parterako, Torresoroara bueltatzea da asmoa. Obra handia da. Torresoroako proiektua idazten dihardute eta irailean lehiaketara irtengo da. Eta, noski, gimnasioa ere martxan jarri gura dugu; baina Torresoroan obra egin beharko da".



Udal liburutegia gimnasioan egokitu dute. GOIATZ ARANA

### Guneka egokitua

Gimnasioaren sarrerako espazioa egokitu egin dute haur txikiendako txokoa –ludoteka zenajartzeko. "Lehen geneukana baino liburutegi txikiagoa geratu da; %20 inguru galdu genuen. Liburutegia osotasun batean ulertu behar dugu; ezingo da lehen zena berreskuratu. Ordenagailuak ere galdu egin ziren. Orain, galdutako horren inbentarioa egin eta berriro liburutegia berreskuratzen saiatuko gara".

**UDAL LIBURUTEGIKO LIBURUEN %20 INGURU GALDU EGIN DIRA UHOLDEEN ONDORIOZ**

### Kaxak berrerabili egingo dituzte

Uholdeen ondorioz, Torresoroako liburutegitik liburuak atera behar izan zituzten. Eta liburu horiek batzeko erabilitako kartoizko kaxak, orain, udal gimnasioan daude pilaturik. Kaxa horiei irtenbidea eta beste erabilera bat eman gura die Udalak. Hala, herritarrei dei egin die esanez hutsik dauden kartoizko kaxaren bat behar izanez gero eskuragarri dituztela gimnasioan. "Liburuak Torresoroatik ateratzeko erabili genituen, eta orain kaxak hutsik daude. Berrerabili egin gura ditugu. Hondakinak tratatzeko filosofiarekin bat dator eta beste zerbaitetarako erabili gura duenak eskura ditu. Eta, hala ez bada, tolestu eta gorde egingo ditugu beharren bat sortzen denerako".

## Oinarinekoen dantzak gimnasioan

Udal gimnasioan entseatuko dute herriko Oinarin dantza taldeko dantzariek. Ikasturte berrira begira hasiko dituzte entseguak. Izan ere, uda osteko lehen dantza emanaldia Oñatiko Haur Dantzarien Egunean duten irailaren 16an, domekan.

Antzuolarrek gimnasioko pilates gelan entseatuko dute, bertan dagoen ispilu zabala eta aldagelak ere aprobetxatuz.



Pilates gelan egokitu dute dantzariendako gunea. GOIATZ ARANA



Anelkarren Elkartasun Festa, Zurrategi plazan. JABI ETXANIZ

# Kongo eta Senegalendako babesik sendoena aurten ere

Elkartasunez beteriko 1.750 euro batu ditu Anelkarrek Afrikan dituen hezkuntza proiektuak bultzatzeko

**J.B. / M.A.** ANTZUOLA

Aurten ere herritarrek ez dute hutsik egin eta harrera beroa izan du Anelkarren Elkartasun Festak. 1.100 euro lortu dituzte: "Giro ederra izan genuen. Herritarrak dagoeneko ezagutzen gaitu, badaki nora doan dirua eta ederto erantzuten du", dio Anelkarko Kontxi Laskurainek. Dirua Kongoko eta Senegalgo proiektuetara bideratzen da; bereziki, eskolen egoera hobetzeko. Kongoko proiektuarekin dihardu Bittor Arbuluk eta Senegalera, berriz, Kristina Bakaikoa joaten da urtero. "Biak dira antzuolarrak eta horregatik ere jendea asko inplikatzen da. Badakite batzen den dirua joan behar den lekura joango dela". Herritarrek 50 tortillatik gora eraman zituzten. "Gaur egun, mugikorretik gogorarazten dugu tortillak ekartzearena eta urtez urte jendeak hobeto erantzuten du. Eskertzekoa da". Uda aurretik egin zuten sardina-janean, 650 euro inguru batu zituzten. Guztira, 1.750.

Azaroaren 10ean, Anelkarrek 20 urte beteko ditu eta dagoeneko aurreratu dute zerbait berezia egiteko asmoa dutela.



GOIATZ ARANA

# Futbol zelairako bide berria

Autobideko lanak direla-eta futbol zelairako bidea elkarbanatu egin behar izan dute orain arte herritarrek -oinez nahiz autoan doazela- eta obretako ibilgailuek. Azpiegitura berriaren azpian pasabide bat egokituta, baina, nork bere bidea du orain: norbanakoek, alde batetik; eta behargínek, bestetik. Guztiek eskertu dute bide berriaren irekiera.



Iaz Trekutz Egunean egindako paella erraldoia. IMANOL SORIANO

# Dena prest mendiaz eta festaz gozatzeko bihar

Bigarrenez ospatuko dute, bihar, zapatua, Trekutz Eguna. Natura eta festa eskutik dakarren aspaldiko ohitura honi jarraipena eman gura izan dio Antzuolako herritar talde gazte batek. 10:00etan plazatik abiatuko dira oinezkoak Trekutzera

**Maider Arregi** ANTZUOLA

Bigarren Trekutz Egunerako dena prest dute antolatzaileek eta aurten ere herritar ugari batuko da Trekutzeko belardian.

Oinezkoak goizeko hamarretan abiatuko dira. Ondoren, bizikletaz igotzeko aukera izango dute antzuolarrek. "Bizikleta igoeran parte hartu gura duenak egunean bertan eman dezake izena. Lasterketa 10:30ean hasiko den arren, dortsalak hartzera 10:00etan etorri beharko dute txirrindulariek", argitu du Amaia Ramirez de Okarizek, antolatzaile taldeko kideak.

Behin Trekutzera iritsita, salda eta txorizoa izango da bertaratzen direnendako. "Trikitilarien doinuez eta mokadutxoaz gozatzeko aukera izango da. Eta aurten ere toka eta bolo txapelketak antolatu ditugu".

Iazko martxa eta giro bereko jaia egitea da asmoa, bazkaria eta erromeria egingo dira eta. Aurten, gainera, 300 lagun ingururendako paella erraldoia prestatuko dute Trekutzeko belardian –bazkarirako iaz baino txartel gehiago jarri dituzte salgai–.

**Mendizaleen festa zena**

Trekutz Egunaren sustraia nondik datorren argitu du Amaia Ramirez de Okarizek. Izan ere, Arrola Mendizale Elkarteak urtero egiten zuen festa, sasoi batean, Finalista Eguna ospatzeko.

Hain zuzen ere, kontatu du giro hori berreskuratu gura izan dutela herritarren artean: "Herriari bizia emateko eta Trekutzi berari ere bizia emateko asmoz antzuolar talde batek errealitate bilakatu duen ideia izan da. Jatorria Arrolaren Finalista Egunean dauka. Izan ere, sasoi batean, Trekutzera joaten ginen naturarekin lotura geneukan herritarrak lagunekin eta familiarekin. Oso giro polita izaten zen. Berriro giro hori herritarren artera ekarri gura izan dugu".

Natura eta kirolzaletasuna eskutik, herritarren arteko harremanak sustatzea ere baduela helburu diote antolatzaileek.

## Amaiera, musikarekin

Aurtengo nobedadeetako bat Mendaroko Motxeila Band elektrotxarangaren musika da. "Asmoa da erromeria amaitzean, Trekutzeko bidezidorretatik jaistea eta Herriko Plazan zain izango dugun elektrotxarangaz gozatzea guztiok".

**HERRITARREN ARTEKO HARREMANAK INDARTZEA ERE BADA FESTA HORREN HELBURUA**



NIRE USTEZ

**ANTONIO DEOGRACIAS** 'ANTO.DEO@GMAIL.COM'

## Inbidia

Bada abesti bat inbidiaz jarduten duena. Labanarekin alderatzen du eta pixkanaka hil egiten zaituela dio. Gauetan zeure ametsetan azalduz, "barrua irensten dizun munstro bat balitza". Ziur jende asko identifikatuta sentitu dela nahiz eta ez onartu gaixotasun hori jasaten duenik.

Agian, nire egoa edo suposizioa da, baina kalean pozik noala nigana gerturatu eta galdetzen didate: "Nola da posible beti zoriontsu egotea?" Ez, ez nago beti umorez, egun txarrak ere baditut. Baina baliteke arrazoia izatea besteek inoiz ardura ez izana. Inoiz ez dut sentitu inbidia bizilagunak auto hobeagoa erosi duelako. Ezta ere ni baino ederragoa delako. Beti konformatu naiz momentuan izan dudanarekin. Gustatzen zait, gainera, besteak zoriontsu izatea.

Nor bere buruarekin bakean badago, begietan islatzen zaio. Ezinezkoa da zoriontsua izatea bihotzean gorrotoa badago. Inbidia minbizia baino okerragoa da eta ez dago antidotorik. Gaixotasun horrek ez dauka bueltarik. Ezinezkoa da faxista oheratzea eta demokrata esnatzea... Inbidia antzeko zerbait da.



GOIATZ ARANA

## Errotako putzua, berriro bizirik

Uholdeen eraginez Antiguako presa hondatu egin zen. Errotako putzua ur gabe geratu zen, ahateak arriskuan utzita. Presa konponduta ez dagoen arren, behin-behineko irtenbidea eman dio Udalak putzuan ura egon dadin. Obra egiteko tramite guztiak eginda, Ur Agentzia lanean hastea falta da. Bitartean, baina, ahatekumeak jaio dira Antiguako errotako putzuan.

MUJIKA HARATEGIA
Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

# Otsailean hasiko dira 90 aparkaleku egiteko obrak

Aparkalekurako proiektua idazten udazkenean bukatu eta udazkenean bertan obra lizitatu gura du Udalak, 2019ko udaberria baino lehen lanak has daitezen; 90 leku eta txandatze bidezkoa, baina ez dago erabakita ordainpekoa edo doakoa izango den

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Seminario azpiko aparkalekuak 90 plaza izango ditu solairu bakarrean eta, doakoa edo ordainpekoa izango den zehaztu barik badago ere oraingoz, txandatze bidez funtzionatuko du. Hori aurreratu du asteon Elena Lete alkateak Udal Gobernuaren agintaldiko proiektu nagusienetakoa denaren gainean: "Proiektuaren idazketa udazkenean bukatuko dugu eta udazkenean bertan murgilduko gara exekuziorako adjudikazio prozesuan. Gure asmoa da urtea bukatu aurretik obra lizitatzea eta otsailean lanak martxan jartzea".



Seminarioko patio azpian egingo dituzte aparkalekuak. BERGARAKO UDALA

**Enpresa eraikitzailerik ez apenas**

Hortaz, txandatze bidez funtzionatuko dutela zehaztu dute, baina oraindik ez dute erabaki ordainpekoa edo doakoa izango den: "Kontzesio bidezkoa ez dela izango eta txandatze sistema izango duela, ziur. Ordaindu beharko den edo ez, herrian dugun aparkalekuan eskaintzaren araberakoa izango da".

2018ko udal aurrekontuan 1.400.000 euroko partida bideratu zuen Gobernuak proiektu horretarako, horietatik 1.120.000 euro mailegu bidez lortuta. Orain arte, azterketa topografikoak eta geoteknikoak egin dituzte seminarioko patioan eta, besteak beste, ikerketa horietatik ondorioztatu da lur azpian dagoen hodi biltzailean moldaketak egin beharko direla. "Ikastolaren patioa da, jaietako zezen-plaza bertan jartzen dugu eta bestelako ekintzak ere antolatzen dira bertan. Herriaren erdian dago eta obrek egunerokoan eragina izango dute. Hala ere, saiatuko gara obren exekuziorako epeak ahalik eta gehien laburtzen". Hala ere, Letek ez du obren bukaerarako eperik zehaztu: "Proiektuaren idazketa erabat bukatuta egon arte ezingo dugu eperik zehaztu, hankarik ez sartzeko".

Bestalde, azkenaldian bideratu behar izan dituzten bestelako obra batzuetako lizitazio prozesuetako emaitzak ikusta, Letek dio "arazo larriak" ari direla izaten enpresa eraikitzaileak topatzeko; horren adierazle, bi adibide jarri ditu: "Angiozarko beheko kaleko urbanizaziorako lehiaketara ez zen enpresarik aurkeztu eta Uberako beste proiektu baterako enpresa bakarra aurkeztu da".



KABIA

## Margarita Kerejetak, 102 urte

Irailean sartzearekin batera, urtebetetzea ospatu zuen Margarita Kerejetak. Joan den zapatuan, familiaren bisita jaso zuen egun berezia ospatzeko. Bestalde, argazkian ikusten denez, Mizpirualde egoitza kudeatzen duen Diputazioko Kabia erakundearen izenean lore sorta jaso zuen, Gregorio Iruretagoiena administratzailearen eskutik.

EUSKARALDIA.

## Bilerak antolatu ditugu enpresei, merkatariei eta ostalariei begira

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra ospatuko dugun Euskaraldia ekimenerako ahalik eta entitate gehienen laguntza lortu nahi dugu eta orain, enpresei, merkatariei eta ostalariei programaren berri emateko bilera informatiboak antolatu ditugu.

Enpresei begira antolatu den hurrengo bilera irailaren 12an izango da, 18:30ean. Merkatariendako eta ostalariendako, berriz, irailaren 10a eta 12a (20:30) zehaztu dituzte hurrengo bileretarako data moduan. Batzar guztiak Irizar jauregiko *Euskaldun berria* aretoan izango dira, goiko solairuan.

## Emakumezkoen Bergara Hiria futbol txapelketa bihar, lehen aldiz

Bergara Kirol Elkarteko futbol sailak lehenengoz antolatu du Bergara Hiria emakumezkoen txapelketa. Gizonezkoen txapelketaren 28. edizioa jokatu zen joan den asteburuan –Elorriok mendean hartu zuen Bergara– eta BKEk erabaki du aurten emakumeena ere antolatzea, Udalaren laguntzarekin –750. urteurreneko ekintzen barruan kokatzen da–. 45 minutuko lau partidu jokatuko dira: Bergararen eta Kantabriako Textil Escudo taldearen artekoa (16:30, Ipintza), Realaren eta Lagun Onak-en bigarren taldeen artekoa (17:30, Ipintza), hirugarren eta laugarren postua zehaztekoa (Ipintza, 18:30) eta finala (Agorrosin, 18:30).

disdira
ile-apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Sugoi
ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...
Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
Proiektuak - Koltxoiak
Horma-armairuak
Altzariak neurrira
Ateak - Eskailerak -
Leihoak - Tarimak -
Egur lanak
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491
BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

# KARATE SHOTOKAN
# KUDO ( MMA JAPONESA )
# KRAV MAGA ( AUTODEFENTSA )











## KARATE eta KUDO

ENTRENAMENTUAK IRAILAREN 10 AN HASIKO DIRA
ASTELEHEN, ASTEAZKE, eta OSTIRALETAN
UMEAK : 1. TXANDA . 17:30 etatik 18:30 era
2. TXANDA . 18:30 etatik 19:30 era
NAGUSIAK : 19:30 etatik 20:30 era



## KRAV MAGA

ENTRENAMENTUAK IRAILAREN 11 AN HASIKO DIRA
ASTEARTEAN eta OSTEGUNETAN
DENONTZAT : 18:00 etatik 20:30 era















HARREMANETARAKO DEITU 615 79 90 78 TELEFONORA
bergarako.shotokan@gmail.com HELBIDERA IDATZI
edo BERGARAKO IPINTZA INSTITUTOKO DBH
ERAIKUNTZAKO GIMNASIORA ENTRENAMENDU
ORDUETAN

KRAV MAGA SELF DEFENSE

BERGARAKO SHOTOKAN

INTERNATIONAL FEDERATION KUDO



# Fraiskozuriko ur zikinak, Mekolaldera bideratzear

Fraiskozuriko etxebizitzetako ur zikinak Mekolaldeko araztegira bideratzeko lanak datorren astean amaituko direla espero du Udalak; duela urte batzuk egindako inbentario batean 212 puntu jasotzen dira eta puntu nagusietako bat zen Fraiskozurikoa

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Fraiskozuri plazako etxebizitzen ur zikinak Mekolaldeko araztegira bideratzeko lanak astebete barru bukatuko dira. Udalak aurreikusi moduan, Artzamendi Construcciones enpresa bi hilabete inguruz aritu da lanean eta aurrekontua ia 93.000 eurokoa izan da. "Obra hauek aurrekontu handiak izaten dituzte; 24 etxebizitzarendako ia 93.000 euro gastatu ditugu. Inbertsio handiak dira gehienak, baina beharrezkoak, aldi berean. Horregatik, pixkanaka joango gara gauzatzen", esan du asteon Obra eta Zerbitzuetako zinegotzi Lander Arregik.



Aldamioa eraikineko fatxadara lotuta izan dute, Ura agentziaren aginduz. E. AZURMENDI

**Ibaiarendako "pauso inportantea"**

Duela urte batzuk, Udalak herri osoko isurketen inbentarioa egin zuen eta behar den bezala bideratuta ez zeuden 212 puntu detektatu zituzten. Hain justu, Fraiskozurikoa da inbentarioan jasotako puntu nagusietako bat.

Dagoeneko, gutxienez, 250 metro kubiko ur zikin errekatik kendu eta Mekolaldeko araztegira bideratu dira eta Lander Arregiren arabera, Deba ibaia biziberritzeko "pauso garrantzitsua" ari da izaten. Fraiskozuriko zatiaz gain, Kataibia kalekoa, Etxeaundikoa eta Usondokoa, San Lorentzo poligonokoa eta Osintxukoa dira aurrerantzean araztegira bideratu beharreko isurketa puntu nagusiak. Azken bi horiekin lanean ari da Udala. "Osintxuko ur zikinak ponpatze bidez bideratuko ditugu, eta San Lorentzokoa obra zailagoa eta garestiagoa izango da; ea 2019ko aurrekontuan partida bat bideratu dezakegun hurrengo urtean bertan gauzatzeko".

Udalaren asmo horren barruan kokatzen da bereziki erreka ondoan dauden baserriei bideratutako diru laguntza: "Baserri batzuek bideratzen dituzte euren ur zikinak, baina bereziki erreka ondoan daudenak errekara botatzen dituzte zuzenean. Horregatik, diru laguntza bat sortu zen horiei begira eta batzuek eskatu zuten; horrekin bermatzen duguna da ur zikinak kanpora ez irtetea".

**24 ETXEBIZITZATAKO UR ZIKINAK BIDERATU AHAL IZATEKO, 93.000 EURO GASTATU DITU UDALAK**

Izan ere, Arregiren arabera, azken urteetan Deba ibaiak "izugarrizko hobekuntza" izan du: "Tarteka izaten ditugu oso kezkagarriak diren isurketak [otsailean, Soraluze eta Osintxu artean, zianuro isurketa batek hainbat arrain hilik agertzea eragin zuen], baina, normalean, oso egoera onean dago".

**Nahiko obra berezia izan da**

Arregik azaldu du obra modu berezian gauzatu behar izan dutela: "Ura agentziak eskatu zigun aldamioaren oinarria ez jartzeko errekan, uholde arriskuagatik. Bestalde, hodia errekа kanpotik joan behar zen eta, horregatik, beira-zuntzez egindako hodi bat erabili da".

Bestalde, Antzuolan eta Elgetan ez dute araztegirik eta, Bergarako Udalaren ardura ez bada ere, Arregik badaki arazoa handia dela: "Badakit alkateak jo eta ke ari direla gaiarekin. Antzuolak obra berriarekin aukeraren bat izango du ur zikinak Bergarako sarera bideratzeko; Elgeta urrunago dago eta zailagoa izango da. Halako obrak oso zailak izaten dira".

## GORA ETA BEHERA



M.L.

### Erreka ondoko pistan egotea, "arriskutsua"

Osintxuko Muskiritsu errekan bainua hartzeko umeek toallak eta bizikletak pistan uzten dituztela dio herritar batek: "Azkar ibiltzen dira bizikletekin; arriskutsua da. Udalak ez digu kasurik egiten".

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

### Barruko igerilekuak itxita hilaren 17ra arte, garbiketa lanengatik

Udako denboraldiaren amaieran ohitura denez, Agorrosingo barruko igerilekuak garbitu egingo dituzte. Igerileku handia bihar, irailak 8, itxiko dute, 14:00etan; igerileku txikia, aldiz, domekan itxiko dute, ordu berean. Udaleko Kirol Zerbitzuak aditzera eman duenez, garbiketa lanek astebete inguru iraungo dute eta, beraz, erabiltzaileek barruko igerilekuak ezingo dituzte erabili irailaren 17ra arte. Erabiltzaileen artean sortu ahalko diren eragozpenak ahalik eta gehien arintzeko, kanpoko igerilekua irailaren 10etik eta 14ra irekita egongo da, ordutegi berezian: 14:00etatik 19:30era bitartean.

## OHARRAK

### 1942an jaiotakoak

Urriaren 6an Lasa jatetxean bazkalduko dute, 14:30ean. Izena eman behar da urriaren 1a baino lehen, aurrez 35 euro ordainduta: ES43 3035 0009 1300 91152950 (Laboral Kutxa).

### 1948an jaiotakoak

Irailaren 22an Lasa jatetxean bazkalduko dute, 14:30ean. Irailaren 15a baino lehen eman behar da izena, aurrez 60 euro ordainduta: 3035 0009 17 0091037499 (Laboral Kutxa).

### Udal euskaltegia: EGA

Gaur da azken eguna EGA ateratzeko ikastaroan izena emateko, udal euskaltegian: 943 76 44 53 edo *euskaltegia@bergara.eus*. Prezioa: 101 euro.

GLOBAL STUDIES AKADEMIA

Ingeleseko eskolak
• Adin eta maila guztiak (3 urtetik aurrera)
• Talde murriztuak (zortzi, gehienez)
• Banako eskolak

Irakasgai guztietarako laguntza eskolak: **Lehen Hezkuntza, DBH, batxilergoa...**
Hizkuntza berriak (oinarrizko maila): **Alemana, frantsesa, txinera, italiera...**

San Lorentzo 23, behea 1 - BERGARA • Tel.: 943 22 93 24 - 605 76 32 72
global_studies_academy@yahoo.es



Udaleko eta Gipuzkoako Eskola Kirol Egokituen Federazioko kideek martitzenean eman zuten hitzarmenaren berri. MIREN ARREGI

# Kirol inklusiboa helburu, bidea egiteko lankidetza

Behar bereziak dituzten 6 eta 14 urte arteko zazpi neska-mutikorekin lanean jarraituko dute Udalak eta Gipuzkoako Eskola Kirol Egokituen Federazioak, astean birritan; iazko ikasturtean jarri zuten martxan ekimena eta Bergara izan da ibarreko lehen herria

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Herriko zenbait familiaren eskaerari erantzuteko eta kirol esparruan ere herritarrei aukera berberak bermatzeko asmoz, iazko ikasturtean eskola kirol egokitua jarri zuen martxan Udalak 6 eta 14 urte arteko neska-mutikoendako, Gipuzkoako Eskola Kirol Egokituen Federazioarekin batera. Bergara izan da urrats hori egin duen Debagoieneko lehen herria.

### Inklusiboa, baina urratsez urrats

Iaz ireki zen ate horri jarraipena eman eta beharrezko baliabideak bermatzeko, hitzarmena sinatu zuten martitzenean: "Kirol plan estrategikoaren ardatzetako bat da kirola modu inklusiboan sustatzearena, eta horregatik sortu genuen lanerako esparru berri bat Diputazioarekin eta Federazioarekin batera. Oso pozik gaude emaitzarekin; herriko zazpi umek astero bi saio izaten dituzte, bat igerilekuan eta beste bat gimnasioan, psikomotrizitatea eta bestelako gaitasunak garatzen joateko", dio Elena Lete alkateak. Eskola Kirol Egokituen Federazioko Amaia Elizondok dio Federazioaren arazo handiena ekonomikoa izaten dela: "Balorazio bat egitea da gure hasierako lana. Umearekin eta familiarekin egoten gara, inguruan ditugun instalazioak aztertu eta gero monitoreak jarri. Gure arazo handiena ekonomikoa izaten da, oso ratio txikiekin egiten dugulako lan. Bergaran zazpi umerendako lau begirale ditugu".

Federazioko ordezkariek argi dute helburua inklusibotasuna dela, baina horra heltzeko hainbat direla dauden bideak: "Batzuetan, errazegi hitz egiten da inklusibotasunaz; dena ezin da inklusiboa izan hasieratik, prozesu bat dago atzetik. Hain justu, Bergarakoa moduko taldea sortzea lehen urrats moduan ulertzen dugu guk; hau da, helduko da, heldu behar bada, kirolaz euren lagunekin batera gozatuko duten eguna". Iazko zazpi neska-mutikoekin jarraituko dutela adostu zuten ekainean, baina Elizondok dio ateak zabalik dituztela behar bereziak dituzten umeekin lan egiteko.

Kirol Egokituen Federazioak 6 eta 14 urte arteko 143 umerekin egiten du lan Gipuzkoan.

ariznoa elkartea

2018-2019 KURTSO HASIERA

**Lehiaketako kategoriak (5. mailatik gorakoak):**
irailaren 3an, 18:00etan, Labegaraietan

**Aurre-benjaminak I (2013an jaioak):**
irailaren 18an, 17:30ean, Ipintza batxilergoko gimnasioan

**Aurre-benjaminak II (1. eta 2. mailetakoak):**
irailaren 18an, 18:15ean, Ipintza batxilergoko gimnasioan

**Benjaminak (3. eta 4. mailetakoak):**
irailaren 18an, 19:00etan, Ipintza batxilergoko gimnasioan

**Antzuolako taldea:**
irailaren 19an, 14:30ean, frontoian




Iraila osoan zehar ATE IREKIAK Ipintzan.
Etor zaitez gu ezagutzera!
Harremanetarako: *ariznoa_ge@hotmail.com*



**Ganbara abesbatza kontzertu bat eskaintzen.** AITOR AGIRIANO

# 'Serenity' lana aurkeztuko du Ganbara abesbatzak

Iraila Kulturala aurkeztu berri dute Bergaran, eta ekimen horren barruan eskainiko du Oñatiko abesbatzak kontzertua. Musika klasikoa kalera ateratzeko bidea bilatu nahi dute, eta, hori horrela, hainbat emanaldi Arrizuriaga parkean egingo dituzte, doan

**Arantzazu Ezkibel Galdos** BERGARA

Iraila Kulturala ekimena aurkeztu dute Bergaran. Bergarako kultura eskaintza aurkezteaz gain, herriko kultur elkarteen berri ematea da ekimenaren asmoa.

Ekimenaren barruan, musika klasikoa herritarrei erakustea helburu duen Musika Kalean eskaintza nabarmendu dute. "Musika klasikoa herritarrei erakusteko modu egokiena plazara, kalera, ateratzea da. Ohituta gaude musika klasikoa areto txikietan entzutera, baina nahi duguna da parkeetara ateratzea", azaldu du Edurne Korta Kultura teknikariak. Hori horrela, aste bukaeran hasiko dituzte kontzertuak: zapatuan, Oñatiko Ganbara abesbatzaren emanaldia izango da Seminarixoan, 19:00etan, eta domekan, Suakai taldearen hari taldea Arrizuriagan, 19:00etan: "Aurkezpen beharrik ez duen abesbatza da Ganbara bailara honetan. *Serenity* lana eskainiko dute. Bestalde, Suakai taldea abuztuan izan zen gurean, Suakai elektriko moduan. Oraingoan, modu klasikoagoan etorriko dira, musika lasaiarekin, baina entretenigarriarekin", gaineratu du Kortak.

Helburu nagusia musika kalera ateratzea den arren, eguraldi txarra egingo balu emanaldiak Seminarixoan izango lirateke. Emanaldi guztiak doan izango dira.

Antzerkia ere izango dute iraileko agendan: gaur, esaterako, Jardunek antolatuta *Beldartxo jatuna* ikuskizuna izango da Santa Anan, 18:00etan, –0 eta 6 urte bitartekoendako–.

### San Martin jaietako musika

Musika Kalean ekimenaren barruan, beste bi hitzordu izango dituzte San Martin jaietako asteburuan. Domekan, hilaren 16an, 11:00etan, Bergarako txistulari bandak kalejira egingo du eta 12:30ean kontzertu berezia eskainiko du Bergarako Musika Bandak.

Irailaren 23an, Tanar Quartet eta El Tango taldearen emanaldia izango da Arrizuriaga parkean, 19:00etan; eta hilaren 30ean, Tatiana Davidova sopranoa eta Victoria Gavrilchenko piano jolea izango dira Mariaren Lagundiko elizan, 19:00etan.

### Kultura Kalera

Irailaren azkeneko aste bukaeran, kultura kalera aterako dute. Ekainean atzeratuta utzi zuten kontzertu berezia egingo dute hilaren 28an –euria egingo balu, hilaren 29ra pasatuko litzateke, zapatura–. 750. urteurreneko kontzertua San Martin plazan izango da. Eserlekuetarako gonbidapenak nola eta noiz banatu aztertzen dabiltza oraindik.

Irailaren 30ean, San Martin plazan tailerrak egingo dituzte. Taila, zeramika, ehoziri elkartea, erraldoien konpartsa, argazki taldea, Jardun, Beart, Musika Eskola eta ehungintza tailerrak izango dira plazan. Modu horretan, elkarte horiek egiten duten lana gertutik ezagutzeko aukera egongo da.

### Kultura taldeen informazioa

"Aurten ere Bergarako kultura agendan herriko kultur elkarte guztien informazioa argitaratu dugu. Modu horretan lortu nahi dugu herritarrek talde horien berri izatea eta horietan parte hartzera animatzea", azaldu du kultura zinegotzi Maite Agirrek.

Hori horrela, iraileko kultura agendan 19 elkarteren gaineko informazioa dago: noiz elkartzen diren adierazten du, kontakturako bidea eta baita egiten duten lana ere.

**SUAKAI EZAGUNAK DIRA BERGARAN; ABUZTUAN SOINU ELEKTRIKOAK ESKAINI ZITUZTEN**



AITOR LAGOMA

## Bergararrak, Dan_tz jaiadian

Joan den aste bukaeran, Dan_tz musika jaialdia egin zuten Donostian. Musika garaikidearen eta elektronikoaren topagune izan zen hiriburua hiru egunez. Eta Bergarako BET egitasmoak ere bere lekua izan zuen. Gasteszenako areto txikian musika eta proiekzioak jarri zituzten irailaren 1eko gauean. DJ Balza, DJ Maio eta Eyharts musika jartzen ibili ziren eta BJ Dodoma & Anunnaki eta Lagoma, proiekzioak egiten. "Uste baino jende gehiago" joan zela diote, eta euren lana ezagutzera emateko modua izan dela.

## Kontxi Idigorasen akuarelak Raizabalen ikus daitezke irailean

Kontxi Idigorasek akuarela erakusketa zabaldu du Bergarako Raizabal gozotegian. Irail osoan zehar egongo dira ikusgai, gozotegia zabalik dagoen ordutegian.

Akuarelak egiten ditu Idigorasek eta lantzen dituen gaiak askotarikoak izaten dira. Oraingo honetan, erakusketan, bederatzi akuarela jarri ditu ikusgai. Akuarela horiek jasotzen dituzten gaiak bi direla azaldu du Idigorasek: "Bergarako paisaiak margotu ditut, batetik, eta baita loreak ere". Idigorasek herritarrak gonbidatu nahi ditu egiten duen lana ezagutu dezaten. Artekaleko 9. zenbakian dago Raizabal gozotegia.

## 'Oparitu zuhaitz bat' egitasmoaren beste hitzordu bat eguenean

*Oparitu zuhaitz bat* egitasmoaren barruan, beste hitzordu bat jarri dute datorren eguenerako, irailaren 13rako. Udal Liburutegian elkartuko dira, 19:30ean, eta hainbat gai landuko dituzte.

*Oparitu zuhaitz bat* egitasmoaren barruan, ondorengo gaiak landuko dituzte: lan istripuak, kooperatiba energetikoak, banku etikoen lana eta *Oparitu zuhaitz bat* egitasmoa bera.

Ingurumena eta ingurumenarekin lotura duten gaiak lantzen dituzte *Oparitu zuhaitz bat* egitasmoan. Nabarmentzen dute munduan biztanle kopurua gehitu egin dela, baina basoen kopurua jaitsi. Bizi kalitatea jokoan dagoela diote.



Zubikoan, kirola egiten. GOIENA

# Ateak irekitzeko egunak izango dira datorren astean

Zubikoa kiroldegiko eskaintza ezagutzeko aukera egongo da astelehenetik egubakoitzera bitartean, doan. Irailaren 17an hasiko dute ikasturtea; ikastaroetan izena emateko aukera dagoeneko zabalik dago; kiroldegian bertan eman daiteke

**Arantzazu Ezkibel Galdos** OÑATI

Zubikoa kiroldegian dena prest dute ikasturte berria hasteko. Kirol eskaintza zabala prestatu dute eta horietan izena emateko aukera dagoeneko zabalik dago. Hala ere, non izena eman ez dakienak eta eskaintza ezagutu gura duenak aukera paregabea izango du datorren astean. Astelehenetik egubakoitzera bitartean ateak irekitzeko jardunaldiak egingo dituzte. Horrek esan gura du herritarrek aukera izango dutela ikastaroetara joan eta eskaintza bertatik bertara ezagutzeko.

### Aholkularitza zerbitzua

Hurrengo astean zehar, Zubikoa kiroldegiko sarreran aholkularitza zerbitzua eskainiko dute. Hau da, pertsona batek kirolarekin zein helburu lortu nahi duen azalduta, aholkulariak zein ikastarotan izena eman dezakeen gomendatuko dio. Izan ere, kiroldegiko eskaintzaren barruan hainbat ekintza daude: lasaiak, intentsitate handikoak, egokituak, terapeutikoak eta gazteei zuzendutakoak.

Ekintza lasaien sailean hauek daude: pilatesa, body balancea eta hipopresiboak; intentsitate handikoan, aldiz, fit bikea eta zumba –euren aldaerekin–.

### Gazteendako ekintzak

Gazteei zuzendutako eskaintza ere badago, 12 eta 16 urte bitartekoei. Fit bike gaztea, zumba txikia –LH– eta zumba gaztea –DBH– egiteko aukera izango dute horiek.

Eskaintza egokituaren barruan, body tonua, gimnasia egokitua eta hirugarren adinekoentzako gimnasia daude; eta ekintza terapeutikoak dira gimnasia terapeutikoa eta pilates terapeutikoa.

**KIROLDEGI SARRERAN AHOLKULARITZA ZERBITZUA EGONGO DA HURRENGO ASTEAN ZEHAR**

### Gomendioa: izena ematea

Ateak irekitzeko egunetan, jarduera guztiak doan dira eta ez da derrigorra izena ematea. "Hala ere, izena ematea gomendatzen dugu, kopuruari dagokionez muga bat dagoelako; eta muga betez gero, lehentasuna izango dute izena eman dutenek", azaldu du Egoitz Atxaga teknikariak. Salbuespena pilates hastapena izango da. Derrigorra izango da izena ematea, hiru eguneko ikastaroa izango delako.

### Izena eman daiteke

Ikasturtea irailaren 17an hasiko dute, astelehena. Izena eman gura duenak dagoeneko badu horretarako aukera: Zubikoa kiroldegian eman beharko da ikastaroetako izena. Informazio gehiago behar duenak *zubikoa@onati.eus* helbidera idatz dezake, edo 943 71 63 75 telefono zenbakira deitu.

# Anita Parker taldeak joko du gaur Atzeko kaleko jaien barruan

Holi jaialdi koloretsua egingo dute gaur arratsaldean, eta txorimaloak eta erraldoiak ez dira faltako

**A.E.** OÑATI

Atzeko kaleko jaiak gaur hasiko dituzte: 16:00etan etxafuego jaurtiketa eta zinta lasterketa egingo dute. Iaz egin zuten moduan, aurten ere Holi jaialdi koloretsua egingo dute –18:30ean– . Ondoren, txorimaloen txanda izango da eta gauean, Agresion Verbal, Haxotz eta Anita Parker taldeak igoko dira taula gainera.

Zapatuan auzokoen omenezko salda eta bazkaria izango dute. 17:30ean sokamuturra egingo dute, eta ondoren txorimaloak eta garagardo dastaketa.



Anita Parker taldea. GOIENA

### Musika doinuak

Zapatu gaueko erromeria Imuntzok eta Belokik girotuko dute. Domekan, Bogan egingo dute mus txapelketa, 15:30ean. 16:00etan, txirrindulari proba eta 18:30ean, txorimaloak. Gauargik girotuko du iluntzea.

### Arantzazuko jaiak

Arantzazu auzoan ere jaiak egingo dituzte. Gaur, patata-tortilla lehiaketa izango dute, eta mus txapelketa; bihar, zapatua, bazkaria, musikak girotuta; eta domekan, presoei omenaldia –12:30– eta luntxa auzo-etxean.

## Final-laurdenetan sartu da San Migel pilota txapelketa

Atzo jokatu zituzten lehenengo final-laurdenak, eta bihar, zapatua, izango dira hurrengo lehiak –17:00–. Kadete eta gazte mailetako partiduak jokatuko dituzte lehenengo. Azkeneko lehia promes mailakoa izango da, eta Biain oñatiarrak Irustabarrena alegiarrarekin jokatuko du. Agirremalloa eta Cordon izango dituzte aurrez aurre.

## Gazte eta kadete mailetako ziklismo lasterketak bihar

Txirrindularitza lasterketa ikusteko aukera egongo da bihar, zapatua. 60. San Migel saria jokatuko dute gazteek eta bigarren mailako kadeteek. Udazkeneko kriteriuma izango da; lehenengo etapa, hain zuzen. Txirrindulariak unibertsitate aurretik irtengo dira, 10:00etan, eta amaiera leku berean izango dute, 12:00 aldera.

## Jose Luis Agirreren omenezkoa jokatuko dute bihar, zapatua

Erregional Preferente mailako taldearen aurkezpen ofiziala izango da partidua. Jose Luis Agirreren omenezko saria Aloña Mendik eta Tolosak jokatuko dute. Aurtengoa VIII. saria izango da. Endika Ruizek zuzenduko du aurten Aloña Mendiko talde nagusia. Bihar, zapatua, jokatuko dute partidua, Azkoagainen, 17:00etan.

## Mendi martxan izena emateko azkeneko eguna astelehena da

Oñatiko mendi martxan aurrez izena ematea gomendatu dute: hori egin daiteke *Kirolprobak* atarian eta Itturri eta Aloña Mendi tabernetan –12 euro–. Egunean bertan eman daiteke izena, baina 2 euro garestiagoa izango da. Antolatzaileek abisatu dute eurek jarritako markei kasu egiteko egunean bertan –ibilbidearen *track*-a izan arren–.

# Arantza artetik zaindari izatera

Benedikto XV.a aita santuak izendatu zuen Arantzazuko Ama gipuzkoarren zaindari 1918an eta ospakizun eguna irailaren 9a izango zela esan. Aurten dira, aldi berean, 550 urte Uribarri auzoko Rodrigo Baltzategi artzainari agertu zitzaiona

**Oihana Elortza** OÑATI

Duela 100 urte, 1918ko urtarrilaren 23an, erabaki zuen orduko aita santuak, Benedikto XV.ak, Arantzazuko Ama Gipuzkoako zaindari izendatzea. Aldi berean, baita haren omenezko ospakizun eguna irailaren 9a izatea ere.

**Garrantzia**

Garai hartako kronikek jasotzen dute sekulako pozarekin jaso zutela berria Oñatin. Baita Gipuzkoa osoan ere. Berehala eratu zuten batzorde bat ospakizunak antolatzeko eta apiriletik irailaren erdira bitartean hamabost erromesaldi egon ziren, gutxienez. Horietako lehena, oñatiarrena. Lau mila herritar joan ziren oinez 1918ko apirilaren 28an Oñatitik Arantzazura. Arrakasta ikusita, orduko agintariek erabaki zuten urtero egitea erromesaldia, irailak 9 dituenean. Eta aurten ere egingo da.

Arantzazuko Ama Birjina 1468an, duela 550 urte, agertu zitzaion Uribarri auzoko Rodrigo Baltzategi artzainari. Gertaera hark garrantzia hartu zuen orduko gizartean eta notizia hedatuz joan zen; Euskal Herriko mugak zeharkatu zituen. Eliza eraiki zuten herritarrek gertaera izan zen tokian, eta orduan sortutako Arantzazuko Kofradiak ostatua eraiki zuen erromesak hartzeko. Arriarango Juana izan zen ostatu haren zaindaria. 1501ean frantziskotarrak Arantzazura iritsi zirenetik, eurak izan dira Ama Birjinaren zaindariak, sasoi batean mesedetako erlijiosoak egon baziren ere.

**Arrazoiak**

Elias Martinez de Zuazo frantziskotar arabarra izan zen Arantzazuko Ama Gipuzkoako zaindari izateko nahia egia bihurtzen hasi zena. "Gogo hori zuen berak buruan eta lanean hasi zen hori nola gauzatu pentsatzeko. Harekin batera, udako oporrak Arantzazun pasatzen zituen Julian Lojendio estatuko abokatu donostiarra eta orduan Oñatiko alkate zen Esteban Gomendio zeuden hiruko lantaldean", dio Jose Mari Arregi frantziskotar oñatiarrak.

Lojendiok hitzaldi pare bat egin zituen Donostian Arantzazuko Amari buruzkoak. Oñatiko Udalak, berriz, erabaki zuen eskutitz bat bidaltzea Gipuzkoako Aldundira hark Gotzaindegira bidaltzeko. Juan Carlos Guerra arrasatear abokatuak egin zuen idatzia. Zaindari izendatzeko aipatzen zituen arrazoien artean zeuden, esaterako, agertu eta gutxira bukatu zela oinaztarren eta ganboatarren arteko gudua; baita euria ekarri zuela, lehorte gogor bati amaiera emanez. Gaineratu zuen XVI. eta XVII. mendeetan herritarrek, itsas gizonek zein militarrek esker oneko ofrendak nola egiten zizkioten Ama Birjinari. Eta noski, Ignazio Loiolakoak gaua Arantzazun pasa zueneko eguna.

## Igandeko ospakizuna

Domekan, 12:00etan izango da meza nagusia. Homiliaren ostean izango da. Frantziskotarrek testu bat irakurriko dute eta beste bat Markel Olanok, Gipuzkoako ahaldun nagusiak, frantziskotarrek hala eskatuta. Testuen irakurketaren ondoren, lore sorta bat eskainiko diote Ama Birjinari.

Meza Gipuzkoako gotzainak, Jose Inazio Munillak, esango du. Hainbat politikarik esan dute han izango direla; besteak beste, Bakartxo Tejeriak, Eider Mendozak, Arantxa Tapiak, Markel Olanok eta Oñatiko Udaleko zinegotziek.

Oñati eta Arantzazu arteko autobus zerbitzu berezia egongo da domekan.



**PILAR LEZEA**
VILLABONA-AMASA

"Azken sei urteetan etorri naiz eta gorputza lasaitzen eta azken egunetarako prestatzen dut aste honetan. Aurten, domekara arte geldituko naiz".



**M. KRUZ ETA AXUN IZTUETA**
BEASAIN ETA LAZKAO

"Ahizpak gara; urte batzuetan huts egin dugu, eta badugu etortzeko ohitura, bai. Elizkizunetara ere joaten gara".



**Absidean dagoen Arantzazuko Amaren irudia.** O.E.



**Elias Salaberriaren olio-pintura, zaindari izendatu zuten unearena.** G.A.

Eskutitz hura Oñatiko Udaleko zinegotzi guztiek sinatu zuten eta horietako bat, Bernardo Irizar, Gipuzkoako herri guztietan izan zen atxikimenduak jasotzen; 90 herrietatik 84k eman zioten babesa eskutitzari. 1912. urtea zen. Elizaren barruan aldaketak gertatu ziren hurrengo urteetan eta, azkenean, Leopoldo Eijo Garay gotzain galiziarraren eskutik heldu zen eskaera azken instantzietara, Erromara.

**7.000 erromes**

Duela 100 urteko irailaren 9an goizeko bostetan jo zituzten kanpaiak Oñatin Arantzazurako igoera hasteko. Zortzietan iritsi ziren gora; handik eta hemendik etorritako 7.000 erromes inguru; tartean, Eusko Ikaskuntzako lehen kongresuan parte hartu zuten hainbat lagun. Oinez joandakoez gain, 70 automobiletan eta 30 zaldi-gurditan elizgizonak eta lurralde ezberdinetako politikariak joan ziren Arantzazura. "Bi orduko meza izan omen zen, pausatua. Kanpoan jarritako aldare baten bueltan batu zen jendea. Orduko eliza gaur egun kripta moduan ezagutzen duguna zen eta jakinekoa zen joandako guztiak ez zirela han sartuko. Bazkaria ere egon zen eta dena ondo antolatzeko txartelak jarri zituzten mahaietan bakoitzak jakin zezan non jarri behar zuen. Domekan ere egongo da bazkaria, baina ez da garai hartako beste handia edo luxuzkoa izango. Garai honetan ez da hori tokatzen", dio Jose Mari Arregik.

**Originala**

Frantziskotarrek Arantzazun daramaten urte hauetan guztietan, hiru aldiz hartu du su elizak. Ama Birjinaren irudia ez da erre, onik atera da sute guztietatik, eta egun Arantzazuko eliza nagusiaren absidean dagoen irudia bera da duela 550 urte artzainari agertu zitzaiona. "Duela urte batzuk, mantu edo kapa batekin batera egoten zen. Baina eliza berritu zutenean, XX. mendean, eliza modernoa egin zuten eta ikusi zuten irudi hori ez zetorrela bat. Eztabaida piztu zuen erabakiak, baina mantua kentzea erabaki zen, azkenean. Orain, egia esan, lehen baino hobeto ikusten da. Irudia bera, zintzarria eta arantza, hiru elementu horiexek dira originalak", dio frantziskotar oñatiarrak.

Irudiak 36 zentimetro ditu altueran eta bederatzi kilo pisatzen du. Domeketako mezaren ostean, ondotik ikusteko aukera egoten da, aldarearen eskuineko aldean dauden eskailerak igota.

## Apostoluen urteurrena

500 urte pasako historian, hirutan erre da Arantzazuko eliza eta beste horrenbestetan eraiki dute berriz. Azken aldaketa XX. mendekoa da. "Pablo Lete frantziskotar eskoriatzarrak eliza handiago baten beharra zegoela ikusten zuen, kripta txiki gelditzen zela ikusita. XX. mende erdialdean, euskal artista onenetako asko elkartu ziren eliza egiteko: Oteiza, Basterretxea, Txillida, Eulate bera... eta Saenz de Oiza eta Luis Laorga arkitektoekin batera sekulako eliza moderno eta dotorea egin zuten. Hori bai izan dela Ama Birjinaren mirari bat", dio Jose Mari Arregik.

**Oteiza**

Hain zuzen ere, datorren urtean beteko dira 50 urte Jorge Oteiza eskultoreak egindako apostoluak jarri zituztela: ekainean (12tik 17ra) apostoluak eta urrian (21ean) pietatea. Apostoluen lana, alderik alde, hamabi metro hartzen dituzten kareharrizko hamalau figura erraldoik osatzen dute. Horietako bakoitzak hiru metro inguruko altuera du eta lauzpabost tonako pisua. Irudiak ez daude inolako oinarriren gainean, eta airean baleude bezala ikusten ditu aurrez aurre begiratzen dienak. "Apostolu bakoitzak jarrera bat irudikatzen du, gizakiak bizitzaren aurrean hartzen dituen hamalau jarrera daudela esan genezake. Hor agertzen dira, esaterako: suizidioa, haserrea, elkartasuna, adiskidetasuna...", dio Jose Mari Arregik.

Bisita orokorrak eta Oteizari buruzko bisita zehatzak egiten dituzte Arantzazun, Mankomunitateak gidatuta. Aurrez egin behar dira erreserbak, eta horretarako bideak hauek dira: 943 79 64 63 / 943 71 89 11 / *turismo@debagoiena.eus*.



Oteiza apostoluak egiten. OÑATIKO UDAL ARTXIBOA. ARLANZON FUNTSA



Apostoluak kolokatzen 1969ean. OÑATIKO UDAL ARTXIBOA. ARLANZON FUNTSA



Martitzenean egindako aurkezpenean, Donostian. GIPUZKOAKO ALDUNDIA

## Urdangarin, Petti eta Etxart irailaren 16ko kontzertuan

### Emanaldia 'Oxigenoa euskarari 6.000 metrotan ere bai' egitasmoaren aldekoa da eta sarrerak salgai daude

**O.E.** OÑATI

*Oxigenoa euskarari 6.000 metrotan ere bai* proiektuaren aldeko kontzertua egingo dute irailaren 16an San Migel parrokian. Et Incarnatus orkestrak egingo du emanaldia, Oñatiko Ganbara Abesbatzaren eta honako abeslari ezagunen partaidetzarekin: Mikel Urdangarin, Niko Etxart, Naia Robles, Petti eta Maider. Emanaldia Pello Zabalak aurkeztuko du.

*Oxigenoa euskarari 6.000 metrotan ere bai* egitasmoaren helburua da euskara eta mendizaletasuna uztartzea, eta urrian hilabeteko espedizioa egingo dute Himalaian Euskal Herriko gazteek eta xerpek, Felipe Uriarte mendizalea gidari dutela.

Oñatin egingo den kontzertuarekin gura dena da espedizioko kideak agurtu, egitasmoa egia bihurtzen lagundu duten erakunde, enpresa eta pertsonei eskerrak eman, kultur ekimena eskaini eta espedizioko azken aurrekontua osatu. Kontzerturako sarrerak hamar eurotan daude salgai Txokolateixian, 685 75 07 63 zenbakian eta *furiartec@gmail.com* helbidean. Parrokian ere egongo dira egunean bertan.

## Iazko udan baino %3,6 bisitari gehiago etorri dira Oñatira

### Araotzen egindako geo-ibilbideak eta Arrikrutz Kobetako espeleologia irteerak bete-beteta egon dira

**O.E.** OÑATI

Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziak emandako datuen arabera, joan den urtean baino bisitari gehiago izan dira aurtengo udan Oñatin: 21.000, guztira;%3,6 gehiago, zehazki. Turismo Bulegoan, Arrikrutz kobetan eta Txokolateixian nabaritu da gorakada iazko datuekin konparatuta. Autokarabana gunean ere %5 bisitari gehiago izan dira.

Oñatira etorri diren turistek antolatutako bisita eta irteeretan parte hartu dute. Datuek diote, adibidez, Turismo Bulegoko arte-historiako bisitetan 6.285 lagun egon direla, Txokolateixan 1.824 eta kobetan 5.385. Araotz bailaran egindako geo-ibilbide eta espeleotxiki eta espeleo bisitak ere bete egin dira.

Jatorriari buruz, Bizkaitik (%13) eta Gipuzkoatik (%13) etorri dira. Baita Valentziatik (%14), Madriletik (%10), Kataluniatik (%9) eta Frantziatik (%11) ere. Aurten euskarazko hiztegiak jarri dituzte Turismo Bulegoan eskuragai hainbat hizkuntzatan.

# Etxebestetarren abentura berriak

Patrizio Etxebeste, haren familia, lagunak eta lankideak Bergaran dira, orain dela hamalau urte filmatu zuten 'Aupa Etxebeste!'-ren lekukoa hartuta, 'Agur, Etxebeste!' filma grabatzen; irailaren 17ra arte, Bergarak zinema-plato itxura izango du


Telmo Esnal eta Asier Altuna, filmeko zuzendariak. GOIENA

**Aitziber Aranburuzabala** BERGARA
Aztarna gozoa utzi zuen Bergaran 2005ean estreinatu zuten *Aupa Etxebeste!* filmak (Asier Altuna *Kixi* eta Telmo Esnal) ; eta orduan moduan, bere jaioterrian, Altunari eta haren lantaldekoei laguntzeko prestutasuna erakutsi dute herritarrek eta Udalak.

Abuztuaren 28an hasi ziren *Agur, Etxebeste!* filmatzen eta, aurreikuspenen arabera, irailaren 17 bitartean, Bergarak plato erraldoi itxura izango du.

**"Tratu ezin hobea"**

Eguraldi onak eta opor egunak lagunduta, ikusle asko hurbildu da San Martin plazaraino egunotan; han errodatu dituzte filmeko sekuentzia asko; Patrizio Etxebeste (Ramon Agirre) senarrari lekukoa hartuta, Maria Luisak (Elena Irureta) alkate kargua hartzen duen unea eta horren ingurukoak, esaterako. Filmekoen eskaintzari erantzunez, oraingoan ere, herritar asko ari dira aktore lanetan; Arantxa Ibartzabal, horien artean: "Bost grabaketa-egun nituen nik eta dagoeneko azkenekoa bakarrik falta zait. Paper txikia da, herritar bat naiz, orain paseatzen agertzen dena eta hurrengoan kuxkuxeatzen. Aurreko filmean moduan, lagun kuadrilla etorri gara; esperientzia polita da, baina jakin egin behar duzu nora zatozen; izan ere, ordu asko geldik edo zain zaude, eta batzuetan luze egin daiteke, baina lantaldea oso jatorra da eta pozik gaude tratuarekin".

Herenegun, eguaztenean, osoko bilkuren aretoan izan ziren grabatzen, eta han izan ziren Musika Bandako kideak ere: "Bandarentzako izugarria da berriz ere filmean parte hartzea; gainera, aurrekoan baino protagonismo handiagoa eman digute, eta oso eskertuta gaude. Oso adeitsuak eta profesionalak dira guztiak. Hiru grabaketa-egun genituen, bihar dugu bigarrena herriko plazan".

**ORAINGOAN ERE, HERRITARRAK ETA UDALA ALTUNAREN LANTALDEAREKIN ELKARLANEAN**

Iritzi berekoak dira Ariznoa tabernako Juan Etxabarri eta Baster arropa dendako Mariaje Ibañez; abuztuaren 30ean, euren lantokia plato bihurtu zuten: "Orain dela hilabete eta erdi inguru etorri ziren taberna baten bila ari zirela esanaz, eta geroago baieztatu ziguten gurea aukeratu zutela. Abuztuan taberna itxita genuenez, egun baterako alokatu genien; Ramon Agirre eta zerbitzari papera duen Jon Iraola aktoreekin grabatu zuten gurean. Bezperan etorri ziren dekoratuak atontzera eta, horrenbeste gustatu zitzaidanez, bertan utzi ditut hainbat osagarri: leihoetako biniloak, koadro batzuk eta arbela, adibidez. Zegoen moduan edo hobeto utzi zuten dena, oso profesionalak dira", kontatu du Etxabarrik. "Gure dendan, berriz, ez zuten aldaketarik egin, zegoen moduan ondo zegoela iruditu zitzaien. Maria Luisa eta haren estilismo-aholkularia izan ziren gurean errodatzen, aldagelan, hain justu. Arropa batzuk erostera etorri ziren eta niri egunero egiten dudana, hau da, bezeroa artatu eta konponketa txiki batzuk egitea egokitu zitzaidan; oraingoan, baina, kameren aurrean. Oso azkar egin zuten dena; plazer bat izan zen guretzako *Kixi*-ri laguntzea, eta eurak ere gustura izan zirela esan ziguten".

**Lantaldea, etxean moduan**

Lehenengo bi asteak martxa onean doazela dio Esnalek: "Plaza bera, lantalde artistiko eta tekniko berarekin, baina hamalau urte geroago, eskarmentu handiagoarekin. Garaiak aldatu egin dira, eta bestelako baliabide teknikoak ditugun arren –aurrekoan Super-16an grabatu zuten eta orain, dena digitala da–, eta istorio berria bada ere, helburua bera da, komedia dibertigarri bat" sortzea. "Aurreprodukzioan lan handia egin dugu, eta ondo doaz grabaketak. Plangintza estua dugu, sekuentzia asko grabatu behar ditugu eguneko, baina laguntasun handia dugu herriaren aldetik, eta berriz ere oso eskertuta gaude", gaineratu du Asier Altunak, eta zera dio Elena Iruretak: "Luxua da Bergaran lan egitea, lagunekin eta lagun-artean".

LEINTZ GATZAGAKO ANDRAMAIXAK
GOIENA TELEBISTA, 'JAIAK'
IRAILAREN 10EAN, ASTELEHENEAN, 18:00ETAN, 20:00ETAN ETA 22:00ETAN
IRAILAREN 12AN, EGUZTENEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN
ASTELEHENEAN HEMEN DEBAGOIENA SAIOA ETA EGUAZTENEAN JAIAK SAIOA
goiena
Zu hemen zaude.




Patrizio Etxebeste (Ramon Agirre) Bergarako San Martin plazan filmatzen. IRUSOIN



Filmeko lantaldea Bergarako Musika Bandako kideekin. MIREIA LARRAÑAGA



*Agur, Etxebeste!* filmeko klaketa Bergarako udaletxearen aurrean. IRUSOIN



Garate aktorea Banda zuzentzen. IRUSOIN

# Shot! estudioa berrabiarazteko asmoz, elkartasun kontzertua

Irailaren 23an egingo dute, Amaia antzokian, 19:00etan hasita; sarrerak dagoeneko salgai daude, 12 eurotan

**A.A** ARRASATE

Maiatzaren 11n kiskali zen Shot! grabazio estudioa, eta kolpe handia izan zen herrian eta, orokorrean, Euskal Herriko musikari eta musikazaleentzat; hori horrela, Shot!-eko bidelagunek hainbat ekimen prestatu dituztela iragarri dute: "Helburua Arrasateko estudioa berriz ere martxan jartzea da. Lehenengo ekitaldia Amaia antzokian egingo dugu. Ezohiko proposamenez jantzitako kontzertu ederra prestatu dugu. Askotariko musikariekin osatu dugu kartela: garai bateko Golpes Bajos taldeko Pablo Novoa eta Keu Agirretxea; Ruper Ordorika; Petti eta Barrenan semiak, Ines Osinaga, Zea Mays taldeko Aiora eta *Piti* eta Huntza taldea".

Sarrerak aurrez *Arrasate.eus* atarian eta Taupan zein Irati tabernetan eros daitezke, eta egunean bertan leihatilan.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko iraileko sariak!



Poltsa
PuntuEus fundazioaren eskutik.
Parte hartzeko sariaren izena: Ebook



Sarrerak
Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz
ARRIKRUTZ



Otarrea
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

PARTE HARTZEKO:
**Posta elektronikoz:** kluba@goiena.eus **Whatsapp:** KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Irabazi bi lagunendako otordua

ITURRITXO JATETXEARI ESKER
Begiratu *Puntua* aldizkariko *Otorduan* atala eta hartu parte!
943 25 05 05 kluba@goiena.eus
KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



*Puntua* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...

Bazkidetu zaitez: 2018 (irailetik aurrera): 31€
Deitu: **943 25 05 05**. *kluba@goiena.eus*

goienakluba
Euskara irabazlo, denok irabazle!

# "Ez dakit gorputzak zelan erantzungo didan"

**NERE ARREGI** GOIERRI GARAIAKO ATLETA

**ATLETISMOA** Arrasatekoa Kroazian lehiatuko da bihar, zapatua, munduko distantzia luzeko txapelketan; hain zuzen, 100 kilometroko lasterketa izango du aurrean

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Datua zuzena da, kazetariak oraingoan ez du hankarik sartu. Nere Arregik 100 kilometroko munduko txapelketan hartuko du esku bihar, zapatua, Kroazia iparraldean dagoen Sveti Martin Na Muri herrian. Azken bi urteotan izandako lesioak gaindituta, distantzia luzeetan dihardu, baina orain arte, gehienez, 50 kilometroko lasterketak egin ditu. Hain zuzen, ekainean Santanderko 50 kilometroko proban eskuratu zuen Espainiako selekzioarekin munduko txapelketara joateko txartela.


Nere Arregi, aste barruan, Elorregiko bidegorri zatian. XABI URZELAI

**Prest zapatuko lasterketarako?**

Bueno, prestatu, behintzat, prestatu naiz, lana eginda dago. Baina halako distantzietan inoiz ez dago jakiterik ondo prestatu zaren edo ez.

**Izan ere, zelan prestatzen da 100 kilometroko lasterketa bat?**

Nik agindupean egiten dut lan, ez naiz nire kabuz ibiltzen. Entrenatzaileak esaten didana betetzen dut, nutrizionista daukat elikadura zaintzeko... Egunero ibili naiz entrenatzen, eta saio batzuk luzeak egin ditut, 44 kilometrokoak, 50 kilometrokoak... Normala den moduan, inoiz ezin da lasterketako distantzia entrenatu, seguruenik ez ginatekeelako irteera puntura azalduko [Barre].

**Izan ere, bi maratoi dira bata bestearen jarraian, eta beste hamasei kilometro opari.**

Bai; lagunak une oro ibiltzen dira halako erreferentziak ematen, Iruñera korrika joatea bezala dela... Aurrekoan, Donostiatik Arrasaterako bidea autoz luzea egin zitzaidan... Ba, pentsa korrika... Azkenaldian, halako kontuak ditut buruan [Barre].

**Asier Cuevas moduko korrikalari bat ondoan izatea garrantzitsua da [Eibartarra ere Espainiako selekzioarekin lehiatuko da].**

Oso garrantzitsua, eta lagun handia da, gainera. Laguna, eta ni saltsa honetan sartzearen erruduna ere bai, neurri handian. Egun askotan elkarrekin entrenatzen ibili gara; eskerrak bera ondoan daukadan.

**Duela bizpahiru urte Gipuzkoako maratoian eman zenuen ezusteko handiena, 3 ordutik jaitsi eta Gipuzkoako txapeldun izan zinen. Eta handik aurrera?**

Handik aurrerako bi urteak oso gogorrak izan ziren. Oin-zolako fasziitis batengatik geldi egon behar izan nuen 2016an, eta 2017an Donostiako maratoia topera prestatzen nenbilenean, geratu egin behar izan nuen, anemiak jota. Gero, anemiatik errekuperatzeko, erritmoak jaisten hasi nintzen, korrika polikiago egiten, eta kasualitatez Santanderko 50 kilometroko lasterketara joan eta lan txukuna egin eta gero [helmugan bigarren, 3.38.29 eginda], Espainiako selekzioko hautatzaileak deitu zidan.

**Eta, ze asmo duzu zapaturako?**

Ideiarik ere ez daukat, inoiz ez dut-eta halakorik egin. Oso burugogorra naiz eta txarto egonda ere kosta egiten zait lasterketa batetik erretiratzea. Baina hau beste kontu bat da, partehartzaileen %50 erretiratu egingo dira, eta hori nabil nire buruari behin eta berriro errepikatzen; alegia, erretiratzea ez dela porrota.

**Etxekoak ondoan izango dituzu, baina Kroaziara joango zirela jakin zenuenean haserretu egin zinen.**

Pentsa, 100 kilometro dira. Lasterketa amaitzen badut, ez dut jakin ere egin gura ze kondiziotan gurutzatuko dudan helmuga. Etxekoek egoera horretan ikusteak ez dit graziarik egiten.

**Gorputza muturrera eramango duzu.**

Garbi daukat hori. Orain, balore guztiak mugan baditut, pentsa zelan egongo naizen lasterketa amaitutakoan. Gibelak, giltzurrunek... asko sufritzen dute halakoetan, eta hiru aste beharko ditut baloreak bere onera bueltatzeko. Hau kirola da, baina ez kirol osasungarria, garbi daukat hori. Baina egindako bideaz izugarri gozatu dut; horrenbestez...

**"HAU KIROLA DA, BAINA EZ DA KIROL OSASUNGARRIA, ASTINDUA DA GORPUTZARENDAKO"**

## Mikel Linazisoro, Munduko Txapelketan, gaurtik hasita

**ESKALADA** Bergarakoa lehenengoz lehiatuko da seniorrekin maila horretako nazioarteko txapelketan

**X.U.** BERGARA

Abuztu amaieran, Europako gazte mailako txapelketan lehiatu zen Mikel Linazisoro, Errusian, eta egun gutxian berriro ere katu oinak jantzi eta nazioarteko txapelketa batera bueltatu da. Bergarakoak gaur, egubakoitza, hasiko du txapelketa, sokako modalitateko kanporaketa saioekin: "Txapelketa berezia izango da niretako, senior mailako eskalatzaileekin lehiatuko naizelako, eta oso pozik nago, bertan parte hartu ahal izate hutsa gauza handia da eta.


Mikel Linazisoro. X.U.

2018ko txapelketa garrantzitsuena izango da, kirol ekitaldi handiena, nahiz eta benetako helburua datorren hilean Argentinan izango dudan [Gazteen Olinpiar Jokoak]".

Hori horrela, Linazisorok aitortu du txapelketa esperientzia hartzeko baliatuko duela: "Buenos Airesko txapelketarako hilabete eskas geratzen da, eta entrenamenduak hitzordu horretara bideratuta ditut. Hori horrela, lan bolumenagatik orain nekatu samar nago, baina ilusio handia daukat txapelketara begira".

Gaurko kanporaketa saioak gainditzen baditu, bihar, zapatua, izango ditu finalerdi eta finalak. Ondoren, irailaren 11n *bloke*-ko txapelketa izango du, eta irailaren 12an abiadura edo *speed* delakoa.

## FUTBOLA Bergarak eta Mondrak derbia dute liga hasteko

Oraingo asteburuan hasiko dute Ohorezko Erregional mailako Aretxabaletak, Mondrak eta Bergarak liga txapelketa –gainontzeko kategoria gehienak datorren astean hasiko dira– eta liga hasteko etxeko taldeen arteko derbia izango da, domekan Bergarak Mondra hartuko du-eta Agorrosinen (17:30). Aretxabaletak ere etxean jokatuko du ligako lehenengo jardunaldia; domekan (16:30) Añorga hartuko du Ibarran.

Oñatin, berriz, Aloña Mendik talde nagusiaren aurkezpen ofiziala egingo du zapatuan (17:00) Zubikoan, eta ondoren lagunartekoa jokatuko dute Tolosaren kontra.

## SASKIBALOIA MUk Euskal Kopa jokatuko du, bihar hasita

EBA txapelketa hasi bitartean, irailean Mondragon Unibertsitatea Euskal Kopan murgilduta egongo da. Guztira, bost jardunaldi jokatuko dituzte, eta Ordizia, Santurtzi, Easo, Goierri, Iparragarri 2020 eta Mondragon Unibertsitatea izango dira zein baino zein gehiago.

Hain zuzen, asteburuan lehenengo jardunaldiko partiduak Iturripen eta Ordizian jokatuko dituzte. Zapatu arratsaldean jokatuko dute arrasatearrek, 18:00etan, eta Easo izango dute aurrean. Hala, Ointxe! berria bertatik bertara ikusteko aukera izango da; besteak beste, kantxan izango da Zach Kirschbaum jokalari amerikar berria.

ESKER ONA

## Martin Alzola Etxeberria



2018ko abuztuaren 4an hil zen, 85 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2018ko irailaren 7an.

ESKER ONA

## Jose Gauna Moreno



Itxas Eder arrandegikoa

2018ko abuztuaren 14an hil zen, 72 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2018ko irailaren 7an.

ESKER ONA

## Iñaki Mendibil Larrañaga



'Ipiñarri'

2018ko abuztuaren 20an hil zen, 58 urte zituela.

Gure minak eta negar zotinak arindu eta azken agurrean lagundu gaituzuen guztioi, bihotz-bihotzez mila esker.

—

Domekan, irailaren 9an, 10:30ean, Elorregiko San Prudentzio elizan izango da meza bere izenean. Bertaratuko zaretenoi aldez aurretik eskerrik asko.

Bergaran, 2018ko irailaren 7an.

ESKER ONA

## Cristobal Zabaleta Urcelay



2018ko irailaren 1ean hil zen, 89 urte zituela.

Mila esker, familia guztiaren partetik, doluminak adierazi eta hiletara etorri zareten guztioi.

Bergaran, 2018ko irailaren 7an.

ESKER ONA

## Juan Olasolo Eizaguirre



'Ziardei'

2018ko abuztuaren 2an hil zen, 76 urte zituela.

Mila esker familia osoaren partetik, doluminak helarazi dizkiguzuen guztioi.

Bergaran, 2018ko irailaren 7an.

ESKER ONA

## Antoni Urrutia Galdos



2018ko uztailaren 31n hil zen, 93 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran-Arrasaten, 2018ko irailaren 7an.

ESKER ONA

## Julio Ugarte Irazabal



2018ko abuztuaren 3an hil zen, 79 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2018ko irailaren 7an.

ESKER ONA

## Angeles Moreno Rodriguez



Juan Garciaren alarguna

2018ko irailaren 3an hil zen, 86 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2018ko irailaren 7an.

ESKER ONA

## Kontxita Beitia Kortabarria



Santi Erostarberen alarguna

2018ko abuztuaren 28an hil zen, 81 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta egun hauetan era askotara maitasuna eta babesa eskaini diguzuen guztioi eskerrik asko, bihotzez, familiaren izenean.

—

Ondra elizkizuna zapatuan, irailaren 8an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan ospatuko da. Bertaratuko zaretenoi aldez aurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2018ko irailaren 7an.

ESKER ONA

## Luis Urmeneta Gambra



2018ko abuztuaren 28an hil zen, 87 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

—

Ondra meza zapatuan izango da, irailaren 8an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi aldez aurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2018ko irailaren 7an.

ESKER ONA

## Patxi Etxabe Maiztegi



2018ko abuztuaren 27an hil zen, 65 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aramaion, 2018ko irailaren 7an.

ESKER ONA

## Anastasio Ugarte Aizpeurrutia



2018ko abuztuaren 18an hil zen, 91 urte zituela.

Mila esker, familia osoaren partetik, doluminak helarazi dizkiguzuen guztioi.

Oñatin, 2018ko irailaren 7an.

ESKER ONA



## Agustina Lizarralde Ayestaran

Martin Ayerberen alarguna

2018ko abuztuaren 28an hil zen, 89 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.
—
Agustinaren familiakoen izenean eskerrik asko, bihotzez, San Martin egoitzako taldeari, bera pozik izan dadin lagundu izanagatik.

Oñatin, 2018ko irailaren 7an.

ESKER ONA



## Julene Barrenetxea Zuazua

2018ko abuztuaren 28an hil zen, Abadiñon, 42 urte zituela.

Senar Iker Alberdiren, seme-alaba Intza eta Lizarren eta gainerako familia osoaren partetik, eskerrik asko doluminak helarazi dizkiguzuen guztioi.
—
*Zuretzako gure agurrik politena*
*zuretzako muxurik ederrena.*
*Gure bihotzean beti*
*eramango zaitugu, maitia.*

Abadiñon-Osintxun, 2018ko irailaren 7an.

MEZA



## Luis Urcelay Casatorre

2018ko abuztuaren 10ean hil zen, Madrilen, 80 urte zituela.

Haren emazte Ana Sanzek, seme-alaba Iciar eta Vidalek, anai-arreba Pako Urcelay eta Edurne Aldanak, ilobek, lehengusu-lehengusinek eta lagun moduan izateko zortea izan genuen guztiok, zapatuan, irailak 8, 19:00etan, Bergarako San Pedro parrokian izango den haren aldeko hileta-elizkizunera gonbidatzen zaituztegu.
Esker on aurrez.

Familiaren helbidea: Artekalea 19.
Bergaran, 2018ko irailaren 7an.

ESKER ONA



## Maribel Aramburu Garcia

Eskerrik asko aste hauetan jasotako besarkada eta maitasun adierazpenengatik. Beste horrenbeste zeuentzat, familiaren partetik.

Arrasaten, 2018ko irailaren 7an.

ESKER ONA



## Rosarito Arenaza Lazkano

Pedro Mari Jauregiren alarguna

2018ko abuztuaren 9an hil zen, 83 urte zituela.

Eskerrik asko babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2018ko irailaren 7an.

ESKER ONA



## Gerardo Maiztegi Biain

2018ko abuztuaren 26an hil zen, 49 urte zituela.

Eskerrik asko egun gogor eta samin hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.
—
Ondra meza zapatuan izango da, irailaren 8an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.
Bertaratuko zaretenoi aldez aurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2018ko irailaren 7an.

OROIGARRIA



## Maribel Aramburu Garcia

Edurne Iraola txistulariaren ama

*Momentu gogor honeitan bat egiten dogu familixiaren samiñarekin.*

Arrasaten, 2018ko irailaren 7an.

OROIGARRIA



## Rosarito Arenaza Lazkano

Oihana Elorza lankidearen amaginarreba

2018ko abuztuaren 9an hil zen, 83 urte zituela.

Bat egiten dugu une gogor hauetan.

Bergaran, 2018ko irailaren 7an.

OROIGARRIA



## Gerardo Maiztegi Biain

2018ko abuztuaren 26an hil zen, 49 urte zituela.

*Ez nau izutzen gaurik ilunenak*
*ez nau beldurtzen azken arnasak*
*inoiz minak irensten bazaitu*
*beti irriz oroitu nazazu.*

Maite zaitugu.

Zure txikixak: Jon, Ane, Iñigo, Maialen, Leire eta June.
Oñatin, 2018ko irailaren 7an.

OROIGARRIA



## Olatz Beitia Lezeta

2018ko uztailaren 28an hil zen, Erentxunen, 45 urte zituela.

*Iturri zaharretik edanda*
*egin zenuen zeure bidea,*
*zugandik edanda*
*urratuko dugu gurea.*

Aramaixoko familia.
Aramaion, 2018ko irailaren 7an.

OROIGARRIA



## Olatz Beitia Lezeta

2018ko uztailaren 28an hil zen, Erentxunen, 45 urte zituela.

*Badoa uda, astiro-astiro.*
*Eta ez dugu, berriro, elkarrekin bazkaririk egingo;*
*ez dugu, gehiago, zurekin berriketaldirik izango.*
*Baina zure ondoan bizi izandakoa ez digu inork kenduko.*
*Gurekin zaitugu, betiko.*
*Maite zaitugu, Olatz.*

Lagunak.
Eskoriatzan, 2018ko irailaren 7an.

OROIGARRIA



## Antonio Errasti Ortueta

2018ko uztailaren 26an hil zen, Aramaion, 81 urte zituela.

*Gure ondotik joan zara*
*baina zuk emandakoa*
*gurekin gelditzen da bihotzez.*

Goiena Aseguruak.
Arrasaten, 2018ko irailaren 7an.

Eskela gehiago 44. orrialdean.

OROIGARRIA



## Maria Nieves Ayastuy Maiztegui

Iker Oñate lankidearen ama

2018ko abuztuaren 26an hil zen.

Bat egiten dugu une gogor hauetan.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

Oñatin, 2018ko irailaren 7an.

---

OROIGARRIA



## Maria Nieves Ayastuy Maiztegui

2018ko abuztuaren 26an hil zen, 62 urte zituela.

*Mila oroitzapen,*
*mila barre-algara,*
*baita negar batzuk ere…*
*Izar berri bat jaio da*
*gure herriko zeruan.*

Maite zaitugu. Zure lagunak.

Marian eta Juan Antonio, Mariasun eta Juanpe, Maixabel eta Luis, Iñaki eta Aurita.
Oñatin, 2018ko irailaren 7an.

---

OROIGARRIA



## Maria Nieves Ayastuy Maiztegui

2018ko abuztuaren 26an hil zen.

*Borrokan, indartsu*
*Borrokan, irribarretsu*
*Borrokan, koloretsu*
*Halaxe joan zara, ama*
*Borrokan, indarrez, duintasunez.*

*Beti arte, ama. Maitasunez.*

Oñatin, 2018ko irailaren 7an.

---

OROIGARRIA



## Felipe Prat Castillejo

2018ko abuztuaren 30ean hil zen, 90 urte zituela.

*Zure oroimenak indartzen gaituelako eta beti maite izango zaitugulako.*

*Gero arte, tio Felipe.*

Gonzaleztar koinatak eta ilobak.
Bergaran, 2018ko irailaren 7an.

---

OROIGARRIA



## Marilu Guridi Gurrutxaga

2018ko abuztuaren 6an hil zen, 64 urte zituela.

*Zurekin partekatutako bide zatian*
*ikasitakoa eta bizi izandako*
*une goxoak eskertuz.*

Espoloiko lagunak.
Bergaran, 2018ko irailaren 7an.

---

OROIGARRIA



## Txaro Beistegi Ibabe

2018ko abuztuaren 11n hil zen, 63 urte zituela.

*Hainbat urtetan*
*hainbat istori*
*lagun artean*
*mila afari*
*beti umore onean*
*kontu kontari*
*txiste eta kantu*
*barre ugari.*

Bergarako KMK 91 kuadrillakoak.
Bergaran, 2018ko irailaren 7an.

---

OROIGARRIA



## Silvi Carrancio Blanco

Rafael Zamoraren alarguna

2018ko abuztuaren 24an hil zen, 82 urte zituela.

*Beti hitz goxoak eta irribarrea zenituelako guztiondako...*
*Zutaz beharrean, beti besteez arduratzen zinelako...*
*Gure bidea argitu zenuelako...*
*Jarraitu beharreko eredua izan zinelako...*
*Horregatik guztiagatik, eskerrik asko, ama.*

*Gure bihotzetan, betirako.*

Aretxabaletan, 2018ko irailaren 7an.

---

OROIGARRIA



## Marisa Pagonabarraga Oiarzabal

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) langilea

2017ko irailaren 10ean hil zen.

*Gure gogo-bihotzetan zaude, Marisa.*
*Maite zaitugu!*

Mondragon Unibertsitatea
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Eskoriatzan, 2018ko irailaren 7an.

---

OROIGARRIA

## Manuel Jose Madera Ochoa

Ubane Maderaren aita

2018ko abuztuaren 26an hil zen, Soraluzen.

Bat egiten dugu une gogor hauetan.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

Debagoienean, 2018ko irailaren 7an.

---

OROIGARRIA



## Pantxi Ibarzabal Bengoa

## Maritxu Letona Badiola



2018ko abuztuan joan zaizkigu.

Zuek emandakoa gurekin gelditzen da.
Eskerrik asko.

Sorginak Gatzagako emakume taldea.
Leintz Gatzagan, 2018ko irailaren 7an.

---

URTEURRENA



## Mari Cruz Erostegi Zubia

2017ko abuztuaren 13an hil zen, 97 urte zituela.

Oñatiko Mikel Deunaren parroki elizan ospatuko da urteurreneko meza, 2018ko irailaren 8an, 19:00etan.

*Argi bat itzali da*
*hemen lurrean*
*berri bat piztu da*
*han, zeru ederrean.*
*Gure ondotik joan zara,*
*baina beti izango zaitugu*
*gure bihotzean.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2018ko irailaren 7an.

---


**OROILORE**

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



*Jakin ezazue nahiz eta heriotz asegurua izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.*

*Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.*

**Tel.:617 44 21 55. BERGARA**


Eskela gehiago 42-43. orrialdean.

## TXUTXU-MUTXUAK









**1. Canuto eta Begoña**
Canuto Askasibarrek eta Begoña Ardanzak urrezko ezteiak ospatu dituzte abuztuan. "Mila zorion, etxekoen partetik!".

**2. Peio eta Ainhoa**
Ainhoa Lazkano eta Peio Errarte irailaren 8an ezkonduko dira Arrasateko Udaletxean. "Zorionak, bikote! Ziur primerako eguna izango dela! Zoriontsu izan eta disfrutatu eztei-bidaian. Patxo handi bat, kuadrillakoen partetik!".

**3. Iosu eta Irene**
Iosu Saiz eta Irene Orbe Gasteizko San Bizente Martir elizan ezkondu ziren irailaren 1ean. "Zorionak eta urte askotarako, bikote!".

**4. Itziar eta Alberto**
Zapatuan, hilak 8, Alberto Sanchezen eta Itziar Artamendiren ezkontza ospatuko dugu Bergarako Lasa jatetxean. "Zorionak, bikote! Ziur primerako eguna izango dela! Musu handi bat, kuadrillakoen eta familiaren partetik!".

## ZORION AGURRAK



OÑATI
**Katixa Zurutuza Garcia de Albeniz**
Abuztuaren 25an, 6 urte. Zorionak, *guapisima*! Ondo pasatu zure urtebetetzean. Patxo handi bat, etxeko danon partetik!



ARRASATE
**Laia eta Mara del Pozo Martin**
Abuztuaren 25an, 4 urte. Zorionak, bikote! Primerako eguna pasatuko dogu danok elkarrekin. Muxu erraldoi bat, familiako guztien partetik.



OÑATI
**Ander Urtaza Ronda**
Abuztuaren 24an, 11 urte. Zorionak, *guapo*, etxeko guztien partetik. Muxu handi bat eta ondo pasatu.



OÑATI
**Mikel Sanchez Arroiabe**
Abuztuaren 22an, 5 urte. Zorionak, Mikel! Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo handi bat, danon partetik!



BERGARA
**Mikel Zaitegi Fernandez**
Abuztuaren 22an, 8 urte. Zorionak, Mikel! Patxo handi-handi bat, maitte zaittugun danon partetik!



ARETXABALETA
**Aner Villar Pastor**
Abuztuaren 22an, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako, txapeldun! Ondo pasatu zure eguna! Patxo erraldoi bat, familixa danaren partetik!



ARAMAIO
**Ilargi Bengoa Gomez de Segura**
Abuztuaren 21an, 11 urte. Zorionak, Ilargi! 11 urte jada... Zoriontsu izaten jarraittu! Jaso patxo erraldoi bana, familixako danon partetik!



OÑATI
**Aimar Garcia Lopez**
Abuztuaren 21ean, 4 urte. Zorionak, politt hori! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu erraldoi bat eta jarraitu hain alaia izaten!



BERGARA
**Iker Garitano Arroyo**
Abuztuaren 20an, 3 urte. Zorionak, maittia! Segi horrelako mutil alaia eta jatorra izaten eta muxu handi-handi bat, familia osoaren partetik.



ARAMAIO
**Maddi Lizarralde**
Abuztuaren 19an, 8 urte. Zorionak, politt hori! Zortzi urte gure bizitzak beteten. Jarraittu holan! Patxo bat, familia danaren partetik!



ANTZUOLA
**Izadi Sudupe Larrea**
Abuztuaren 19an, 9 urte. Zorionak, maittia! Segi neska alaixa izaten irrifar politt horrekin! Patxo potolo bat! Irati, aitatxo eta amatxo.



OÑATI
**Peru Gezalaga Rodriguez**
Abuztuaren 18an, 7 urte. Zorionak, maittia! Jada 7 urte! Ondo-ondo ospatu zure eguna! Muxu handi bat, familia danaren partetik!



BERGARA
**Malen Egaña Fernandez**
Abuztuaren 18an, 9 urte. Zorionak, familiakoen partetik.



BERGARA
**Izaro eta Aizpea Lazpiur Eskibel**
Abuztuaren 18an, 9 urte. Zorionak eta bi muxu handi, bixoi! Ondo pasatu eguna, etxekuon partetik.



BERGARA
**Maddi Hernandez Sarasketa**
Abuztuaren 17an, 2 urte. Zorionak, sorgintxo! Bi urtetxo! Muxu potolo pila, etxekoen partetik, printzesatxo!



OÑATI
**Izar Agirre Fuente**
Abuztuaren 16an, urtebete. Zorionak, printzesa. Muxu erraldoi bat aitatxoren, amatxoren eta familixa danaren partetik.



ARRASATE
**Laia Tamayo Kortabarria**
Abuztuaren 16an, 9 urte. Zorionak, Laia! Ondo-ondo pasatu eguna familiarekin eta lagunekin.



ARRASATE
**Unax Blazquez Del Pozo**
Abuztuaren 16an, 9 urte. Zorionak, maittia! Egun ona izan. Besarkada handi bat, danon partetik.



ESKORIATZA
**Ibon Agirre**
Abuztuaren 15ean, 3 urte. Zorionak, bonboitxo! Mila patxo amatxoren, aitatxoren eta etxeko guztion partetik.



ARRASATE
**Jon Aranzabal Vitoria**
Abuztuaren 15ean, 11 urte. Zorionak, Jon. Betiko bezala, primeran pasatu genuen eguna. Muxu pila bat, familia osoaren partetik. Mua!



ESKORIATZA
**Aroa Garro Diaz de Garayo**
Abuztuaren 14an, 12 urte. Zorionak, *guapa*! Primeran pasatu dozu uda osoa! Hurrengo urte osoa topera disfrutatu, 12 urte die-eta!



ARRASATE
**Nahia Alvarez Fuentes**
Abuztuaren 14an, 11 urte. Zorionak, printzesa! Muxu potolo bat, etxeko danon partetik. Ondo pasatu!



BERGARA
**Jokin Amesti Gomez**
Abuztuaren 12an, 2 urte. Zorionak, txapeldun! Primeran ospatu eguna! Musu erraldoiak zuretzat!



ARRASATE
**Alain Fernandez Davila**
Abuztuaren 11n, 2 urte. Zorionak, etxeko guztien partetik! Muxu potolo bat!



ARETXABALETA
**Oinatz Urkia Berezibar**
Abuztuaren 11n, 9 urte. Zorionak zure egunean, Oinatz! Ondo-ondo pasatu eguna, zure etxekoen partetik.



ESKORIATZA
**Ekia Garrido Igartua**
Abuztuaren 8an, 2 urte. Zorionak, printzesa, etxeko danon partetik. Ondo ospatu eguna eta patxo handi bat!



OÑATI
**Aimar Igartua Zubia**
Abuztuaren 8an, urtebete. Zorionak eta urte askotarako, potxoli! Zure lagunen eta familixakuen partetik!



ANTZUOLA
**Garazi Diosdado Lizarazu**
Abuztuaren 7an, 10 urte. Zorionak, politt hori! Egun zoragarria pasa dezazula eta muxu pila bat, etxekoen partetik!

ARRASATE
**Julen Uribeetxeberria Errasti**
Abuztuaren 7an, 3 urte. Zorionak, Julentxo! 3 urte gure bizitzak alaitzen! Etxeko danon partetik, patxo handi-handi bat!

OÑATI
**Maialen Rodriguez Altube**
Abuztuaren 7an, 4 urte. Gure neskatilatxoak 4 urte. Zorionak eta urte askotarako. Maite zaitugun denon partetik.

ARETXABALETA
**Iraide Larrañaga Ormaetxea**
Abuztuaren 5ean, 8 urte. Zorionak, printzesa! Jada 8 urte. Patxo erraldoi bat, familiaren eta, bereziki, Jonen partetik.

BERGARA
**Unai Beistegi Frias**
Abuztuaren 5ean, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure egunean eta primeran ospatu! Patxo handia, familia osoaren partetik.

BERGARA
**Unax Barrenetxea Gambra**
Abuztuaren 3an, 5 urte. Zorionak, txapelduna! Patxo potolo bat, etxeko danen, eta batez be, Maiaren partetik.

BERGARA
**Maria Asuncion Udabe Osa**
Abuztuaren 3an, 91 urte. Zorionak ama, amama eta birramama maitea! Muxu eta besarkada handi bat, etxeko guztion partetik.

BERGARA
**Xabat Unamuno Etxeberria**
Abuztuaren 3an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo ospatu egun handi hau!

BERGARA
**Irati eta Enara Urrutia Retegi**
Zorionak, bikote! Iratik abuztuaren 3an, 7 urte eta Enarak abuztuaren 6an, 5 urte. Patxo handi bat, etxekoen partetik!



OÑATI
**Aiora Fernandez Galdos**
Abuztuaren 2an, 6 urte. Zorionak, maitia, amatxoren eta aitatxoren partetik! Ondo pasatu eta dantza asko ein!

OÑATI
**Ixone Guridi Urteaga**
Abuztuaren 2an, 10 urte. Zorionak, *prexoxi*. Ondo ospatu 10. urtebetetzea. Etxeko danon partetik.

ARETXABALETA
**Kerman Etxebarria Zabala**
Abuztuaren 2an, urtebete. Zorionak, pitxintxo! Asko maitte zaittugun danon partetik, zorionak, maittia!

OÑATI
**Oihan Aramendi Fuente**
Uztailaren 31n, 3 urte. Zorionak, *txikitin*! Muxu erraldoi ba,t etxeko danon partetik. Bereziki Elene, Ione eta Izar.

ARRASATE
**Amaia Garcia Tena**
Uztailaren 31n, 7 urte. Zorionak, printzesa, 7 urte! Zelako ondo pasatuko dugun zure festan. Muxu handi bat.

ESKORIATZA
**Zoe Silva Martins**
Uztailaren 29an, 4 urte. Zorionak, Zoe! Muxu asko amatxo eta aitatxoren, amamaren, osaba-izeben eta lehengusuen partetik.

OÑATI
**Katixa Arranbide Amundarain**
Uztailaren 27an, 7 urte. Urepelen bizi den gure biloba Katixari, bihotz-bihotzez, Oñatiko aittaittak eta amamak.

OÑATI
**Ana Mari Liziaga**
Uztailaren 26an, 85 urte. Zorionak, amandria! Ondo pasatu eta patxo bat, etxeko danon partetik!

**Espazio arazoak direla-eta, abuztuak 25etik aurrerako zorion agurrak datorren astean argitaratuko dira.**

# AGENDA

**EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus



ALEA.EUS

**ARRASATE Olatz Salvador bakarlariaren emanaldia**
X. Kulturate Akustikoa egitarauko hirugarren emanaldia egingo du Donostiako kantariak. *Zintzilik* diskoa aurkeztuko du; tartean, diskoari izena ematen dion kantua. Debalde.
*Etzi, domeka, Kulturaten, 20:00etan.*

## EGUBAKOITZA 7

**ARETXABALETA Ixadebalde azoka**
Udako soberakinak, prezio merkeetan.
*Mojen komentuan, 10:00etan.*

**OÑATI Arantzazura irteera eta bazkaria**
Lagun Leku elkartearen eskutik.
*San Lorentzoko autobus geltokian, 11:00etan.*

**ARETXABALETA Magia tailerra Eriz eta Marsel magoekin**
Eriz eta Marsel magoekin,11-14 urte artekoendako.
*Arkupen, 11:00etan.*

**OÑATI Atzeko kaleko jaiak**
16:00etan, zinta lasterketa; 18:30ean, *Holi* delako jaialdi koloretsua; 19:30ean, erraldoien kalejira eta presoen aldeko elkarretaratzea; eta 22:30ean, Agresion Verbal, Haxotz eta Anita Parker taldeen kontzertua.
*Atzeko kalen.*

**OÑATI EkoUdalatx zerbitzua**
Landareak, haziak... erosi eta ortugintzari buruzko kezkak argitzeko aukera. Urteko azkena.
*San Martingo ortuetan, 16:30ean.*

**LEINTZ GATZAGA Andramaixak**
17:30ean, etxafuegoak eta bonba japoniarrak; 18:00etan, apar festa; 19:00etan, buruhandiak; 21:00etan, bolatokiaren irekiera; eta 22:00etan Brigade Loco, Criminal Remains, Azken Sustraiak eta Crim taldeen kontzertua.
*Leintz Gatzagan.*

**ARRASATE Trikitixa Eskolako ate irekiak**
18:00etan, kalejira; 18:30ean, *Gurozuna jo* delako saioa eta IV. *Trikigin* erakustaldia. Matrikula egiteko aukera ere egongo da.
*Herriko Plazan.*

**BERGARA 'Beldartxo jatuna' ikuskizuna**
Didau Antzerki Faktoriaren lana, umeendako, Jardun elkartekoen eskutik.
*Santa Ana parkean, 18:00etan.*

**BERGARA Aritzetako San Migeleko indusketak berbagai**
Josu Etxezarragak egingo du berba.
*Irizar jauregian, 19:00etan.*

**ARRASATE 'Under the sea' ingelesezko antzerkia**
3-10 urte artekoendako.
*Euskal Herria plazan, 19:00etan.*

**ARETXABALETA Agorreko Andramaixak Areantzan**
20:00etan, kanpaiak jo eta tantaia jaso; eta 20:30ean, auzo-afaria eta kantaldia.
*Areantzan.*

**OÑATI Arantzazu auzoko jaiak**
20:00etan, tortilla lehiaketa; eta ostean, afaria eta mus txapelketa.
*Arantzazuko auzo-etxean.*

**ARRASATE Marala Trio taldea**
X. Kulturate Akustiko barruko lehen emanaldia. Ahotsetan eta perkusio instrumentuetan oinarritutako doinuak egiten dituen hirukotea.
*Kulturaten, 20:00etan.*

**ARAMAIO Noveno In Blues taldea**
Sastiñako musika festibala.
*Sastiñan, 20:00etan.*

**ARRASATE Haurrendako kantak**
Kia Eta Bere Ukelelea taldearekin.
*Euskal Herria plazan, 20:15ean.*

**ARETXABALETA Eriz magoa**
Euskarazko magia saioa egingo du. Sarrerak, lau euro.
*Zaraia aretoan, 22:00etan.*

## ZAPATUA 8

**ESKORIATZA Auzolana Atxorrotxen**
Atxorrotx Kultura Elkartearekin.
*Atxorrotxen, 09:30ean.*

**OÑATI Txirrindularitza proba**
Gazteentzako eta bigarren urteko kadeteentzako lasterketa.
*Unibertsitate etorbidean,10:00etan.*

**ARETXABALETA Ixadebalde azoka**
Udako soberakinak, prezio merkeetan.
*Mojen komentuan, 10:00etan.*

**LEINTZ GATZAGA Andramaixak**
Askotariko ekintzak egun osoan. Informazio osoa 24. orrian.
*Leintz Gatzagan.*

**ARETXABALETA Agorreko Andramaixak Areantzan**
10:30ean, txistularien diana; 12:00etan, meza; 12:45ean, mokadutxoa trikitilarien laguntzarekin; 13:30ean, 29. ginkana; eta 17:45ean, jolasak.
*Areantzan*

**OÑATI Arrano taberna-elkarteak 35. urte**
Triki-poteoa eta bazkaria egingo dituzte.
*Arrano tabernan, 12:00etan.*

**ELGETA 'Elgeta Erdi Aroan' bisita**
San Roke kalea agertoki bihurtuta, herriko hainbat pertsonaiak 1335eko Elgeta irudikatuko dute. Aurrez izena eman behar da: *turismo@debagoiena.eus* edo 943-71 89 11.
*Mendizaleen plazan, 12:00etan.*

**OÑATI Arantzazu auzoko jaiak**
14:30ean, auzo-bazkaria; eta ostean, musika eta bertsolarien saioa.
*Auzo-etxean.*

**OÑATI Atzeko kaleko jaiak**
13:00etan, salda; 14:30ean, bazkaria; 17:30ean, sokamuturrak eta poniak; 19:00etan, garagardo dastatzea; 19:30ean, txorimaloen kalejira; 20:30ean, Ttek elektro-txaranga; 00:00etan, piroteknia saioa; eta ostean, Imuntzo eta Beloki taldearen erromeria.
*Atzeko kalen.*

**ARETXABALETA Tor magoa**
Euskarazko magia saioa egingo du. Sarrerak, hiru euro.
*Zaraian, 19:00etan.*

**BERGARA Ganbara taldea**
Oñatiko taldearen saioa. Sarrera doan, Seminarixoa bete arte.
*Seminarixoan, 19:00etan.*

**ARRASATE Virginia Maestro bakarlaria**
X. Kulturate Akustiko barruko emanaldia. 2008an *Operación triunfo* irabazi zuen musikariak 1950eko eta 1960ko hamarkadetako doinuen eragina du.
*Kulturaten, 20:00etan.*

**ARAMAIO Bertso afaria**
Xabi Igoa, Sebastian Lizaso eta Iñaki Murua bertsotan.
*Ibabe auzoan, 21:00etan.*

## DOMEKA 9

**ARETXABALETA Agorreko Andramaixak Areantzan**
09:30ean, Kurtzebarrira oinez joango dira; 12:00etan, Kurtzebarrin argazkia egingo dute; eta, 12:45an, itzulera.
*Areantzan.*

**OÑATI Oñatiko I. orientazio proba herrikoia**
Zailtasun ezberdineko hiru ibilbide izango dira, adin guztietako jendearentzat. Izen-ematea, egunean bertan: gaztetxoek, doan; eta 16 urtetik gorakoek, bost euro.
*Foruen plazan, 10:00etan.*

**ARETXABALETA Kurtzebarri Eguna**
Gurutzea jarri zela 90 urte bete dira. Oinez igotzen diren mendizaleei, salda, txorizoa eta xanpaina eskainiko diete tontorrean.
*Kurtzebarrin, 10:30ean.*

**LEINTZ GATZAGA Andramaixak**
Askotariko ekintzak, egun osoan. Informazio osoa 24. orrian.
*Leintz Gatzagan.*

**ARAMAIO Andra Mari Eguna**
11:30ean, salda; 12:30ean, meza Bizente Goikoetxea abesbatzarekin; 13:30ean, Andra Mari kofradiaren batzar nagusia; eta 14:30ean, bazkaria.
*Ibabe auzoan.*

**ANTZUOLA 'Antzuola, izan zena eta oraina' bisita gidatua**
Irala Torre baserriko nekazaritza jardueraren berri emango dute. Aurrez izena eman behar da: *turismo@debagoiena.eus* edo 943-71 89 11.
*Irala Torren, 12:00etan.*

**OÑATI Arantzazu auzoko jaiak**
13:00etan, auzoko presoei omenaldia; eta ostean, luntxa.
*Auzo-etxean.*

**OÑATI Usakoko bainu denboraldiaren amaiera**
Azken eguna soroslearekin.
*Usakon.*

**OÑATI Atzeko kaleko jaiak**
15:30ean, mus txapelketa; 16:00etan, txirrindulari proba; 18:30ean, txorimaloen kalejira; eta 20:00etan, Gauargi taldea.
*Atzeko kalean.*

**ARETXABALETA Marsel magoa**
Euskarazko magia saioa egingo du. Sarrerak, hiru euro.
*Zaraia aretoan, 19:00etan.*

**BERGARA Suakai taldea**
Talde nafarrak hari instrumentuak ditu oinarri. Besteak beste, *Game of*

*Thrones* telesaileko musikaren bertsioa egin du.
*Arrizuriaga parkean, 19:00etan.*

## ASTELEHENA 10

**ESKORIATZA Ate irekiak kiroldegian**
Ikasturtean zehar eskainiko diren ekintzak probatzeko aukera.
*Kiroldegian, 08:00etan.*

**OÑATI Ate irekiak kiroldegian**
Ikasturtean zehar eskainiko diren fitness eta gimnasia ekintzak probatzeko aukera.
*Kiroldegian, 09:00etan.*

**ARRASATE Monterroni buruzko erakusketa**
Monterron herrira zabaltzeko ideia lehiaketako proposamenak herritarren eskura ipini dituzte, hilaren 14ra arte.
*Kulturaten, 11:00-13:00 eta 17:00-20:00.*

**OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak eskatzeko.
*Foruen plazan, 12:00etan.*

**ARRASATE Euskaraldiari buruzko batzar irekia**
Helburuak dira Euskaraldia zer den azaltzea, haien iritzia jasotzea eta inplikazioa bilatzea.
*Kulturaten, 18:00etan.*

**BERGARA Ananda yoga eskolarako ate irekiak**
Boluko eskolan *Hata* filosofia azaldu eta praktika laburra egingo dute.
*Ananda yoga eskolan, 18:30ean.*

## MARTITZENA 11

**ESKORIATZA Ate irekiak kiroldegian**
Ikasturtean zehar eskainiko diren ekintzak probatzeko aukera.
*Kiroldegian, 08:00etan.*

**OÑATI Ate irekiak kiroldegian**
Ikasturtean zehar eskainiko diren fitness eta gimnasia ekintzak probatzeko aukera.
*Kiroldegian, 09:00etan.*

**ARRASATE Burgosko irteerarako izena emateko eguna**
Gaur hartuko dituzte izenak erretiratuen elkartean. Prezioa 32 euro da. Besteak beste, Santo Domingo de Silos eta Lerma bisitatuko dituzte, hilaren 19an.
*Erretiratuen elkartean, 11:30ean.*

**BERGARA Ananda yoga eskolarako ate irekiak**
Boluko eskolan *Hata* filosofia azaldu eta praktika laburra egingo dute.
*Ananda yoga eskolan, 11:30ean.*

**OÑATI Bingoa erretiratuendako**
Lagun Leku elkartean egingo dute, opariekin.
*Lagun Lekun, 17:00etan.*

**OÑATI Danborradako entseguak**
2009an eta 2010ean jaiotako neska-mutikoendako entsegua egingo dute.
*Eltzian, 18:45ean.*

## EGUAZTENA 12

**ESKORIATZA Ate irekiak kiroldegian**
Ikasturtean zehar eskainiko diren ekintzak probatzeko aukera.
*Kiroldegian, 08:00etan.*

**OÑATI Ate irekiak kiroldegian**
Ikasturtean zehar eskainiko diren fitness eta gimnasia ekintzak probatzeko aukera.
*Kiroldegian, 09:00etan.*

**ELGETA Ludoteka zerbitzuaren hasiera**
Gaur hasiko dute zerbitzua. Izen-ematea zabalik dago udaletxean.
*Ludotekan, 16:00etan.*

**BERGARA Kafe Konpon**
Etxeko tresna txikiak konpontzeko tailerra. Ikasturteko lehena.
*San Joxepen, 16:00etan.*

**BERGARA Estresari buruz berbetan**
Karmele Gurrutxagak egingo du berba estresari eta antsietateari buruz. Irekia.
*Miguel Altuna institutuan, 18:30ean.*

**BERGARA Eguaztenetako azoka**
Herriko baserritarren produktuak erosteko aukera.
*Oxirondon, 18:00etan.*

**OÑATI Aisialdi begirale ikastaroaren aurkezpena**
Irekia.
*Euskaldun Berri gelan, 18:30ean.*

**OÑATI Danborradako entseguak**
2008an jaiotako neska-mutikoendako entsegua egingo dute.
*Eltzian, 18:30ean.*

## EGUENA 13

**ESKORIATZA Ate irekiak kiroldegian**
Ikasturtean zehar eskainiko diren ekintzak probatzeko aukera.
*Kiroldegian, 08:00etan.*

**OÑATI Ate irekiak kiroldegian**
Ikasturtean zehar eskainiko diren fitness eta gimnasia ekintzak probatzeko aukera.
*Kiroldegian, 09:00etan.*

**OÑATI Garbigune ibiltaria**
Herritarrek utzitakoak jasoko ditu.
*Azokan, 10:30ean.*

**OÑATI Hotz Oñati taldearen erakusketa**
Gaur zabalduko dute, hilaren 21era arte.
*Kultura etxean, 18:00etan.*

**OÑATI Danborradako entsegua**
2009an eta 2010ean jaiotako neska-mutikoendako entsegua egingo dute.
*Eltzian, 18:45ean*
.

**OÑATI Nagusien danborrada**
Entsegu orokorra egingo dute konpainia guztiek.
*Eltzian, 20:00etan.*

**ESKORIATZA Ostegun Bidaiariak: 'Maroko: mendiak, hiriak, basamortua'**
Ikasturteko lehen kontakizuna egingo du Saio Artzamendik. Marokon ezagututakoak eta bizi izandakoak erakutsiko ditu argazki bidez.
*Zaldibarren, 21:00etan.*

## ZINEMA

**GASTEIZ**

**GORBEIA**

**¡Vaya bichos!**
Egunero: 17:00.

**Mision imposible**
Egubakoitza eta zapatua: 19:35, 22:30.
Domeka: 11:45, 19:35.
Astelehenetik eguenera: 19:35.

**Hotel Transilvania 2**
Egunero: 17:30.

**The equalizer 2**
Egunbakoitza eta zapatua: 20:00, 22:30.
Domekatik eguenera: 20:00.

**Megalodon**
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:30.

**Yucatan**
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 19:50, 22:30.
Domeka: 12:00, 17:15, 19:50.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 19:50.

**Los increibles 2**
Egunero: 17:00.

**El mejor verano de mi vida**
Egubakoitza eta zapatua: 19:30, 22:00.
Domekatik eguenera: 19:30.

**Los futbolisimos**
Egunero: 16:30, 18:30, 20:30.
Domeka: 12:00, 16:30, 18:30, 20:30.

**¿Quien esta matando a los muñecos?**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domekatik eguenera: 20:30.

**Alpha**
Egubakoitza eta zapatua: 16:40, 18:35, 20:30, 22:30.
Domeka: 12:00, 16:40, 18:35, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 16:40, 18:35, 20:30.

**La monja**
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Domekatik eguenera: 16:30, 18:30, 20:30.

**Teen titan go**
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:20, 20:10.
Domeka: 12:00, 16:30, 18:20.
Astelehenetik eguenera: 16:30, 18:20.

**I love dogs**
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30.
Domeka: 12:15, 17:30, 20:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**BOULEVARD**

**La monja**
Zapatua eta domeka: 12:30, 13:30.
Egunero: 15:45, 16.30, 17:50, 18:40, 19:50, 20:45, 21:55, 22:50.
Egubakoitza eta zapatua: 00:00.

**I love dogs**
Egunero, martitzena izan ezik: 12.10, 17:10, 19:30, 21:50.

**Megalodon**
Zapatua eta domeka: 12:50.
Egunero: 15:45, 18:05, 20:25, 22:45.

**Yucatan**
Egubakoitza, zapatua eta domeka: 12:15, 15:15, 20:20, 23:00.
Astelehena, martitzena eta eguena: 17:00, 19:40, 22:20.
Eguaztena: 17:00, 22:20.
Egunero: 18:15, 21:00, 23:45.

**Los futbolisimos**
Egubakoitza eta zapatua: 13:00, 15:50, 17:55, 20:00.
Domekatik eguenera: 13:00, 15:50, 17:55.

**Los increibles**
Egubakoitza eta zapatua: 12:20, 17:00.
Domekatik eguenera: 12:20, 17:00, 19:40.

**Alpha**
Egunero, martitzena izan ezik: 13:10, 16:05, 18:10, 20:15, 22:25.

## KRITIKA

**La novia del desierto** ★★★☆☆
**Zuz.:** Cecilia Atan eta Valeria Privado. **Herr.:** Argentina (2017).
**Aktoreak:** Paulina Garcia, Claudio Rissi,

# Bidaia askatzailea

**ANTONIO ZABALA**

Literaturak eta zinemak bidaia baten istorioa kontatzen dutenean, bidaia fisikoarekin batera, hau da, egiten diren kilometroekin eta sortzen diren gertaeren azalpenarekin, pertsonaien bidaia emozionala agertzen da. Hori horrela, pertsonaiak ez dira berdinak istorioaren hasieran eta bukaeran. Hori gertatzen da *La novia del desierto*-n. Bizitza osoan etxe batean lan egin duen neskame batek, lanarengatik, urrun dagoen beste leku batera joan behar du. Leku itxi eta babestu batean bizi izan den pertsonak basamortu luze bat zeharkatu beharko du. Eta bi paisaia ezberdin horiek pertsonaiaren izaera eta bizitzari aurre egiteko duen modua aldatuko dituzte.

Zuzendariak denbora osoan neskamearen pausoak jarraitzen ditu. Bera da istorioaren pertsonaia nagusia, eta horrela tratatzen du. Filmaren momentu askotan pertsonaia oso ondo fokuratuta agertzen den bitartean, bere ondoan dagoen paisaia edo pertsonaia gaizki fokuratuta daude. Ez dut uste nagusia ez diren beste pertsonaiek jasaten duten tratua egokia denik. Paulina Garcia oso aktore ona da eta berezko argia du. Ez du halako laguntzarik behar pertsonaiaren izaera eta aldaketak azaltzeko. Dena den, *La novia del desierto* gustura ikusten den filma da. Apala eta laburra, baina polita. Ondo iristen zaizkigu pertsonaiaren aldaketa eta bidean sortzen diren harreman askatzaileak.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

AZKEN BERBA



IDOIA ETXEBERRIA

## Azkar bizi gara

Lagun batek poema bat bidali dit. Egilea ezezaguna ei da. Esaten duena, ordea, aski ezaguna. Oporretatik bueltarako aproposa:

*Bizitza gure zain izateko*
*zain bizi gara.*
*Bizitza geldoa da, oso geldoa,*
*eta gu azkar goaz, oso*
*azkar.*
*Azkar jaten dugu, azkar hitz*
*egiten dugu eta azkar*
*egiten dugu lo.*
*Eta bien bitartean, bizitzak*
*ez ditu ulertzen denbora*
*espazio estresatu horiek.*
*Gu korrika ari garen*
*bitartean gertatzen den*
*hori da bizitza.*
*Momentu perfektuaren zain*
*bizi gara, momentua*
*erabili eta perfektu bihurtu*
*gabe.*
*Momentu hori, geure buruaz*
*baino gehiago gauza*
*materialez arduratzen*
*garena.*
*Zain bizi gara lan-eguna*
*amaitutа etxera iristeko,*
*zain bizi gara ostirala*
*izateko –asteazkenean*
*zoriontsu ez dena*
*asteburuan ere ez dela*
*izango ahaztuta–.*
*Zubiak, oporrak, uda iristeko*
*zain bizi gara.*
*Zerbait pasatzeko zain bizi*
*gara, eta pasatzen den*
*bakarra bizitza da.*

Ez gaitezen bizi hurrengo oporren zain. Hauxe da momentua. Orain.

BUKATZEKO



Mikel Gonzalez de Martin, irribarretsu, AEK Larnakaren elastikoa soinean duela. INSTAGRAM

# 'Gontxa' gustura dabil Zipreko etapa berrian

Abentura berri bat bizi izateko erabakia hartu zuen uztailean Mikel Gonzalez de Martin futbolari arrasatearrak, eta ez da batere damutu. Familia bikain moldatu da Larnaka hirira, eta arlo profesionalean Europa League-rako sailkatzea lortu dute

**Xabi Gorostidi** LARNAKA
Bizitzaren trena begi aurretik pasatzerakoan, egonkortasuna alboratu eta ziztu bizian doan bagoira igotzea erabakitzen dute batzuek. Eta horixe bera egin berri du Mikel Gonzalez de Martin futbolari arrasatearrak. Zaragozan beste urtebeterako kontratua izan arren, maleta prestatu eta Zipreko Larnaka hirira lekualdatzea erabaki zuen. "Iaz, Zaragozan, *play-off*-erako sailkatu arren, ez genuen mailaz igotzea lortu, eta handik gutxira jaso nuen AEK Larnakaren eskaintza. Ez zen erabaki erraza izan, etxekook gustura baikeunden Zaragozan. Baina Reala uzteko orduan, atzerrian jokatzeko desioa nuen buruan: beste kultura batean, beste hizkuntza batekin... Erabakia hartu aurretik, egun pare bateko bisita egin genuen Larnakara Anek [emaztea] eta biok, eta aurrera egitea erabaki genuen".

Hizkuntzaren erronka nola daraman galdetuta, zera erantzun du: "Nire ingelesa ez da oso akademikoa, baina poliki-poliki ari naiz maila hobetzen. Zipreko ama hizkuntza grekoa da, eta niretzat lagungarria da hori, eurekin ingelesez komunikatzeko orduan bi aldeek egiten dugu-eta ahalegin gehigarria".

**Larnakara egokitzen**
"Oso hiri turistikoa da, eta udako denboraldiak martxotik urrira irauten du. Familia, adibidez, bikain egokitu da: Ane eta haurrak duela bi astetik daude hemen, eta jada hiri kanpoaldeko etxe batean finkatu gara".

Mediterraneoan bizi izateak baditu berezko berezitasunak, eta zera dio, besteak beste, elikadurari buruz: "Elikadura Greziakoaren oso antzerakoa da: souvlakiak, gazta eta pepino entsaladak... baina, egia esan, arrain eskaintza handiagoa izatea espero nuen. Uharte bat da, baina bertakoak ez dira oso arrantzaleak, antza. Souvlakiak asko gustatzen zaizkit".

Ziprera egokitzeko, berotasuna da kontuan hartzeko faktoreetako bat. Hondartzara joateko lagungarri izan daiteke, baina entrenatzeko, ez. "Beroa saihesteko, 08:00etan hasten ditugu lan saioak".

**Kirol arloan hasiera polita**
Klubaren historian bigarrenez lortu dute Europa League-rako sailkapena, eta kontinenteko talde indartsuetako batzuekin neurtuko dituzte indarrak. "Ludogoretsk, Zurich eta Bayern Leverkussen taldeen aurka lehiatuko gara. Azken hauek ondo ezagutzen ditut, Realaren aurka azken minutuan sartutako golarekin irabazi ziguten eta. Ez zaigu Arsenal, Milan edo Chelsea bezalako oilarrik egokitu, baina pasatzeko aukera gehiago izango ditugu".

DEBAGOIENEKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA
"GUZTION ESKOLA, GUZTION ARTEAN"
Matrikulazio epea zabalik




goleskola
baikara
IRAILAREN 3tik 14ra
605 77 39 92 goieskola@gmail.com

HELDUEN HEZKUNTZA
Matrikula 2018-2019 ikasturtea
EPA ARRASATE HHI
www.epaarrasate.hezkuntza.net
Arrasate Pasalekua 1, 3 eta 5. Tel.: 943 77 11 72
EPA BERGARA HHI
www.epabergara.hezkuntza.net
Barrenkale 33. Tel.: 943 76 44 52